



ERAIKITAKO ONDAREAREN ZAHARBERRITZEA ETA KUDEAKETA OSOA UNIBERTSITATE MASTERRA

Master Amaierako Lana

Gipuzkoako Etxe Merkeen adibide bat: Azkoitiko San Martin auzoa

Ikaslea: Iker Lamariano Garagarza
Zuzendaria: Lauren Etxepare Igiñiz

Donostia, 2012

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
SARRERA	4
HELBURUA	6
2. TESTUINGURU HISTORIKOA	8
IDUSTRIALIZAZIOA	8
ETXE MERKEEN LEGEAK	12
BIZKAIKO ADIBIDEA	15
GIPUZKOAKO ETXE MERKEAK	18
DONOSTIA	18
AZKOITIA	21
IRUN	21
ARRASATE	23
AMETS BATEAN GELDITUAK	24
3. SAN MARTIN, AZKOITIA	25
HERRIAREN EGOERA SOZIO-POLITIKOA	25
INDUSTRIALIZAZIOA	26
ARAZOARI IRTENBIDE BILA	32
NON ERAIKI?	35
SAN MARTIN AUZOA. LORATEGI-HIRIA	37
ETXEEN ANALISI KONPOSITIBO BAT	43
BARRU BANAKETA	44
FATXADAK	47
ESTILOA	49
EGITURA ETA MATERIALAK	50
ERAIKIN SOZIALA	52
ERAIKITZE PROZESUA	56
ASPEKTU EKONOMIKOA	57
BI INAUGURAZIO ETA OMENALDI BAT	62
TOMAS BILBAO HOSPITALET. ARKITEKTOA	65
OBRAK	66
POLITIKA	71

4. EGUNGO EGOERA	74
5. ONDORIOAK	78
6. KRONOLOGIA	79
7. ESKERRAK	81
8. ITURRIAK	82
ARTXIBOAK	82
BIBLIOGRAFIA	82
ARGITALPEN PERIODIKOAK	83
SAREKO ITURRIAK	84
ERANSKINAK	85

1. SARRERA

*«...como quien exhibe un monumento valioso,
que en sí no encierra valor histórico ni riqueza artística,
pero que lleva en su entraña la vida feliz de un centenar de familias,
y por ello representa un valor espiritual y material incalculable»*

(Jose de Posse, 1931)

SARRERA

Halaxe zihoen Jose de Posse y Villelgak bere Azkoitiko San Martin auzoaren prozesua azaltzen duen *La Casa Propia*¹ liburuan. Ez omen zuten etxe hauek inongo balio historikorik ez eta aberastasun artistikorik ere. Ziur aski, beste modu batera balioztatuko ziren orduan eraikinak eta, orokorrean, gizakiaren sorkuntzak, artistikoak eta ez hain artistikoak. Baina bi kontzeptuak zaku berean sartu zituen: artistikotasuna eta historikotasuna. Eraikin batek historikoa izateko ederra izan beharko balu bezala.

Baina lan honetan aztertzen dugun sorkuntzak bi balore hauek ba ote dituen ala ez erabakitzeke, aurretik, garbi eduki beharko genituzkeen kontzeptuak dira. Alde batetik, artistikoa den ala ez definitzea guztiz gai subjektiboa da. Baina, honetaz gain, duen karga artistikoa neurtzeko, lehenik, garaian ziren korrante estetiko-estilistikoek begiratu behar diegu eta, honen barruan, sortzaileak, arkitektoa kasu honetan, sortzean duen trebezia edo originaltasun maila. Ezin aipatu gabe gelditu ere horrelako egitasmo batek zituen muga monetarioen barruan lortutako sorkuntzak dituen merezimenduak.

Bestetik, historikotasunarena daukagu. Eraikin bat historikoa den ala ez esateko, ezinbesteko baldintza dugu honek denboran zehar eginiko bidaia. Hau da, eraikinak iraganekoa izan behar du, historian zehar bidaiatua izan behar du. Gainera, gaur egun ditugun balio estetiko, sozial edota funtzionalengatik ezberdinak izan behar ditu bere baitan. Hau da, eraikinak bere garaiko balio horien guztien (edo batzuen) isla izan behar du. Hori baita historiko egiten duena. Lekuko bat da. Gaur egun, gu guztioi eraikinaren sorkuntza garaian arnasten zen gizartearen giro hura nolakoa zen kontatzeko, oraindik bizirik dirauena. Dokumentu historikoa balitz bezalaxe. Beraz, Posseren hitzak zehatz-mehatz hartuta, arrazoia eman geniezaioke San Martineko etxetxo haiek balio historikorik ez zutela zihoenean, orduan bertan eraiki baitzituzten.

¹ POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaína. 1931.

Baina, ziur aski, inoiz edukiko ez zutela esan nahiko zuen arren, gaur badutela esan dezakegu, lehen azaldutako arrazoiengatik.

Illo horretan, ikerlan hau egin bitartean, laurogeita bost urte pasatu dira jadanik etxetxo haiek eraiki zirela. San Martineko Etxe Merkeetan erreparatzean, badakigu, orainaldiko pertsona askoren aterpe badira ere, garai zaharrago bati dagozkion balioen ostatu izan direla. Beraien alde estetikoa ez da inondik ere gurekiko garaikidea, beste garai batetan jorratutakoa da eta. Urbanizazioaren aldetik ere, San Martin auzoak “lorategi-hiri” deituriko dentsitate baxuko auzo mota honen hedapenaren hastapenetara eramaten gaitu. Bere balio sozialaz eta politikoaz, zer esanik ez. San Martin bezalako Etxe Merkeen auzo guztiek jatorri bera dute: industrializazioa, eskulangileen masifikazioa, etxebizitza gabezia eta, azkenik, arazo hau zuzentzeko Gobernuak eginiko erreformak. Etxe hauek lurralde guztietan momentu jakin batean gertatutako arazo bati emandako soluzio sozial bati erantzuten die. Orduan leku askotan eman zen Etxe Merkeen fenomeno bati. Herrian eta komunikabideetan sekulako oihartzuna izan zuen ekimena izan zen eta gaur arte herri osoak ezagutzen du, batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, etxetxo haien historia edo beraien berezitasuna. Bere balore historikoa, finean, momentu historiko jakin baten parte izatean datza.

Eta eraikin multzo hau historikoa den heinean, ondare historiko bezala tratatu behar dugu.

Askok, arrazoi hauei jarraiki ia guztia ondarea dela esan dezakete, horrek dakarren irrealtasuna salatuz. Baina historian zehar gauzatu diren sorkuntza guztiek ez dituzte berezitasun berak, ez eta ere maila berean. Eta, azken finean, gaur egungo gizarteari dagokio aintzakotzat zenbateraino hartu. Gizakiaren ondarea, honek bere bizitza gauzatzeko garatu behar izan dituen soluzioen arrastoa da. Ez da kasualitatea hitz hau, historikoki, herentziaren kontzeptuarekin oso lotua joan izana, gure aurrekoek, beraien lorpenak guk gozatu eta balora ditzagun utzi baitizkigute. Historiako liburuek baino informazio gutxiago izan badezakete ere, hauek dira zilegitasun osoz irakur daitezkeen dokumentu bakarrak. Ez dute gezurrik esaten, ez dute manipulatzeko. Bere interpretazioan izaten dira lanak.

Laburbilduz, gure historiaren parte diren arrasto hauek zaindu eta baloratu egin behar ditugu. Izan dadila ikerketa lantxo hau, ekimen horretan laguntzeko.

HELBURUA

Gaur egun, gizartean Ondare Kulturalak duen lekua gero eta finkatuago dago. Arlo honetan, jendarteak gero eta gehiago baloratzen duela esan dezakegu. Informazioaren hedapenak azken urteetan jasan duen azelerazioak, besteak beste internetaren bidez, hau erraztu besterik ez du egin. Erakundeek duten papera ere ezin aipatu gabe utzi. Askotan turismoak suposatzen duen aterkiaren babesean bada ere, gure ondare kulturala ezagutzeko zuzendutako produktuak gero eta zabaldutakoak dira eta gure inguruaren ezagutza historikoa eta kulturala denon eskuragarri dagoen gauza dira. Honi Ondare Kulturala babesteko adostutako legeek azken urteotan izandako eboluzio positiboa gehitu beharko genioke, honen zaintza gero eta zorrotzagoa nabarmenduz. Ildo honetan, EAEn, hiru dira ondare kulturala nagusiki zaintzen duten legeak: 1978ko Konstituzio Espainiarra, bere 46. artikuluekin; 1985eko Espainiako Ondare Historikoaren Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko 1990eko Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea.

San Martineko auzoak, Eraikitako Ondare askotan lege hauek bermatzen duten babesik ez badu ere, ez legoke gaizki ondarearen babesaren kultura guztiok barneratzea eta gure historia ezagutzeko erabiltzea. Zentzu horretan, ez dago gaur egun inongo argitalpen sakonik San Martineko etxeen historia kontatzen digunik. Egoera deigarria, herriaren eboluzioan honek izan zuen garrantzia kontuan izanez gero. Eta bibliografia faltaz ari garenez, probintzia mailan ere, Bizkaiko Etxe Merkeen inguruan badaude publikazio on batzuk, Gipuzkoan ez dugu horrelakorik.

Bide horretan, lan honen **xede nagusia** Azkoitiko San Martineko Etxe Merkeen analisi historiko-konstruktiboa lantzea da. Azkoitiko historian garrantzia handiko gertakizuna izan zen bere planifikazioa eta gauzatzea. Gertaera hau pertsonalitate garrantzitsuz inguratua izan bazen ere, garrantzi gutxiagokoak ez ziren hainbat eta hainbat langile eta familia izan ziren inplikatuak, kontuan izanik hauek direla herrira aberastasuna ekartzea posible egiten dutenak eta etekin horiek gozatzen azkenak. Auzoaren arkitekturari dagokionez, honen identifikazioa eta balorazioa.

Horretarako behar beharrezkoa egiten zaigu **berariazko xede** batzuk erdiestea:

- Testuinguru soziala, politikoa eta kulturala ahalik eta hobekien osatzea.
- Ekintzen jarraipen kronologikoa egitea.
- Etxeen zein auzoaren analisi konpositiboa egitea.
- Orainaldiko egoeraren errealitatera hurbiltzea.

Erabilitako tresnen artean lan honen jatorria suposatu zuena dago: Beatriz Herrerasen “Las Casas Baratas en Gipuzkoa”-en² argitalpena. Azpimarragarria da, ere, Azkoitiko Artxibo Munizipalak auzo honi buruz gordeta duen informazio bolumena eta bere arduradunaren laguntza, hura izan baita lan honetarako erabilitako informazio iturri nagusia. Eta ezin ahaztu, informazioari dagokionez, denerako erabiltzen dugun tresna: sarea. Ikerketaren helburu hauek lortzeko jarraitu beharreko **metodologia**, beraz, honakoa izan da:

- Ikerketa artxibistikoa eta bibliografikoa.
- Lekura desplazatu eta etxeak eta haien inguruak, barruti batzuk barne, *in situ* ezagutzea.
- Iturri digitalak.
- Dokumentazio grafikoa: iturrietatik hartuak eta propioak.
- Etxebizitza batzuk bisitatu eta haien Eraikinen Inspekzio Teknikoak egin orainaldiko egoeraren lagin modura.

² HERRERAS Moratinos, Beatriz. *Las casas baratas en Gipuzkoa*. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía 21-n. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993. 263-274 or.

2. TESTUINGURU HISTORIKOA

«Egunen batean ingudea, ingude izateaz nazkatu-
rik, mailua izatera pasako da.»

(Mijaíl Bakunin, 1814 – 1876)

INDUSTRIALIZAZIOA

XVIII. mendearen erdialdetik XIX.aren hasiera bitartean, Britainia Handira sistema eta baliabide produktiboetan aldaketa sakonak iritsi ziren, fenomeno sozio-ekonomiko itzela ekarri, gaur egun Industria Iraultza izenaz ezagutzen duguna, hain zuzen.

Eraldaketa hau, batik bat, bi makinak ekarriko du: lurrinezko makinak eta Spinning Jenny zelakoak (James Hargreaves, 1765; ehungintzarako makina harigile bat). Honek, batez ere, burdinaren eta ehunen industrian izugarritzeko iraultza ekarri zuen, produkzioa izugarri haziz: kopuru berdina sortzeko, denbora eta eskulan gutxiagoren beharra izango zen.



Txanpon eta Tinbrearen Fabrika Nazionaleko Watt-en Lurrinezko makina.

Iturria: http://es.wikipedia.org/wiki/M%C3%A1quina_de_vapor

Geroxeago, honi, beste aurrerapauso bat gehitu zitzaion lurrina sortzeko ikatza erre beharrean kokea erretzen hasi zenean, honek ahalmen kalorifiko handiagoa baitzuen.

Sistema produktiboei dagokienez, hauek ere aldaketa sakon bat jasan zuten beraien egitura berrantolatu eta seriean produzitzen hasi zirenean. Prozesu produktibo konplexu bat, sinple askotan banatzen zen, langileen kualifikazioa, jadanik, ez zelarik hain beharrezkoa, eta hauek enpresarentzat merkeagoak ziren, produkzioak ere, epe berdinean, gora egiten zuen bitartean. Geroxeago, 1908. urtean, Amerikako Estatu

Batutetan, *fordismoaren* ezarpena etorri zen Henry Forden eskutik, automobilen industrian, hauen produkzioaren erabateko hazkundea eta prezioen jaitsiera handia ekarri. Ideia hau, serieko produkzioari aldaketa batzuk ezartzean zetzan. Alde batetik, langileak espezializatuak eta bakartuak izatera pasatu ziren eta beraien soldatak eta lan baldintzek hobera egin zuten; bestetik, muntaia katea ezarri zuen, zinta garraiatzailea izan zelarik sistema berri honen osagai garrantzitsuena. Metodo berri hau izan zen, ordura arte aberatsek bakarrik eros zezakeen produktua klase ertainarentzat eskuragarri utzi zuena. Funtzionamendu honen funtsa arlo industrial askotara zabaldu zen, gaur egun ere, oraindik, martxan dagoelarik hein handi batean.

Aipatu beharra dago, Iraultza garai honen beste eragile handi bat trenaren asmakuntza izan zela, hau izan baitzen lur garraiorako, ordura arte ozeanoetarako itsasontziak izan zirena. Berrikuntza honek industrien produktuak eremu zabalago batean azkarrago zabaltzeko erraztasun handia ekarri zuen, baina baita pertsonen garraiorako ere. Lan honetan aztertuko dugun kasurako ere, oso esanguratsua izango da garraibide honen etorrera, geroago ikusiko dugun bezala.

Beraz, makinei esker, produkzioaren gorakada handiak negozio aukera handiak ekarri zituen enpresaburuentzat. Langileen sektore aldaketa izugarria izan zen, lehen sektoretik bigarrenera hain zuzen. Landa eremuetatik aukera gehiago eskaintzen zituzten tokietara lehendabiziko exodo handia izan zen. Honek paisaia ere eragin handia izan zuen, hiri eta herrietako biztanleria eta lurzoru urbanizatua haziz, lehen baserriak zeuden lurzoruetan etxebizitza berriak eta industriak eraikiz, etab. Azpimarragarria da, baita ere, 1914 eta 1918 artean Lehen Mundu Gerran estatu espainiarrak ez parte hartzeko hartu zuen erabakiak hemen izan zuen eragina. Alde batetik, industriari aukera paregabea suertatu zitzaion, beste herrialdeekiko konpetentzian sekulako aldea irabazi ahal izan zuelako, batez ere, Amerikarako esportazioetan. Eta hemengo industria buruek sekulako irabaziez gozatu ahal izan zuten. Beste aldetik, baina, kontsumorako prezioen gorakada egon zen. Langileek eta beraien familiek behar zituzten elikagaiak gero eta urriagoak ziren etxeetan. Etxebizitzari dagokionez ere, hauek eraikitzeako materialen eta eskulanaren prezioaren garestitzea etorri zen.

Bestalde, ideologiaren aldetik, kontuan izan behar da orain eskulangilea izango den gizartearen zati handi horren kontzientzia izango den aldaketa. Lehentxeago, baserritarra bere lanaren jabe zen, nahiz eta bizi baldintzen txirotasuna handia izan. Aldaketak bere lana saltzea ekarri zuen eta, honekin batera, bere lana inork erosi ezean, ezer gabe gelditzea, langabezia. Lehen baliabide produktiboaren jabe zen eta orain ez, honek dakarren botere ezberdintasunekin.

Aurrez aurre jarritako bi irudiren sorrera etorriko zen: burges industrialak eta eskulangilearena, eta horrekin batera, zein ote zen guztiaren jabe eta zergatik. Zer dela eta hainbesteko botere ezberdintasuna. *Jabetza* eta *boterearen* arteko tartea hain

estua izateak ideologia idealistek indarra hartzea baino ez zuen egin, non dena zalantzan jartzen zen, batez ere, klase ezberdintasunak eta erregimen politikoa. Hau guztia, hamarkada batzuk lehenago European hasi zen Industrializazioaren norabide berdinean zetorren eragina zen. Biztanleriak, gutxi zutenak gehiengoa zirela ikusi zuen eta aberastasuna modu justuago batean banatuko balitz, hobeto bizi zitekeela. Aldarrikapenak, matxinadak, grebak, sindikalismoa, sozialismoa, anarkismoa, komunismoa... jaio berriak ziren.

Prozesu konplexu hau, Industria Iraultza, Europa osoan eta mundu osoan zabalduz joan zen. Eta Gipuzkoa ere ez zen salbuespena izan. Baina hemen aldaketa askoz ere lasaiago egin zen. Industrializazioak beste leku askotan bizi baldintzak era drastikoan aldatzen zituen bitartean, hemen metodo aurreindustrialekin batera konpartitu zuten denbora luzeagoa izan zen. Beraz, garaiko Azkoitiko egoera aztertzerakoan, argi izan behar dugu ez zela denbora asko herrian industria finkatzen hasi zela, honek ekarri zituen bizi baldintzen aldaketekin. Kontzientzia aldaketari dagokionez ere, modu progresiboan izan zen. Gipuzkoa, Azkoitia salbuespena izan gabe, oso fededuna zen eta eliza katolikoak sekulako eragina zuen herritarrengan. Lantegietan, langileak beraien eskubideak defendatzeko antolatzen hasi ziren. Industrialariak oso gogorrak ziren eta gehiegikeria asko jasan behar izan zituzten. Baina injustizia hauek guztiak salatzeke beti zegoen kristautasunaren influentzia, ideologia markatuak baino gehiago.

Industrialdeetan metaturiko lan kantitate handiak eskulanaren behar handia eragin zuenez, hau, dei efektu bat izan zen egoera tamalgarrian bizi zen hainbat eta hainbat pertsonentzat. Hiri eta herri industrializatuak gero eta jende gehiagoz betetzen joan ziren, aurrez inoiz ikusi gabeko hazkunde demografikoa ekarriz. Hain zen handia langileen pilaketa, non, ahal zuten moduan konpontzen ziren, lantegien inguruan, batere osasungarriak ez ziren txaboletan bizitzeko. Baserritar asko apopilo gelditzen ziren astean zehar, asteburua iristean, mendirako bidea hartzera bueltatzeko. Egoera hau hamarkada luze batzuetan luzatu zen, gaixotasunak eta izurriteak zabaldu ziren eta laster hasiko ziren iskanbilak greba eta borroken bidez, etxebizitza duin eske.

Hau guztiaren aurrean, burgesia etxebizitza gabeziaren inguruko arazoaren larritasunaz ohartu zen. Alde batetik, argi zeukaten, langileek, beraien familiekin batera, pairatutako pilaketaren egoerak haien erabilgarritasunean eragiten zuela, gaixotasunengatik eta, batez ere, beraien bizi-itxaropena larriki murriztu zuelako. Bestetik, eta agian, gehien axola zitzaien arrazoia, ez zituzten batere atsegin matxinadak eta manifestazioak; honekin batera, ideologia berrien zabalkuntza abiadura ikaragarrian mugitzen baitzen. Beraz, hau horrela izanik, Europako beste toki industrializatu batzuetako prozeduretan oinarritzen hasi ziren eta, kasu askotan, ugazabak eta gobernuak izan ziren langileentzat etxebizitzak eraikitzen hasi zirenak. Beti ere, hauek eskulanaren erabilgarritasuna bermatzearen xedearekin, baina, baita ere, ideologia iraultzaileak baztertu eta jabetza pribatuaren balioak barneratzeagatik.

Kontrola zen arrazoi nagusia, langileen ezinbesteko beharren gainetik. Hala ere, esan beharra dago, leku askotan horrela izanik ere, Euskal Herrian ez zirela asko izan egitasmo mota hau hartu zutenak. Hemen inguruan ditugun Etxe Merkeen gehiengo handi bat, langileak beraiek kooperatibetan antolatu zirelako lortu zituzten eta. Azkoitiko kasua salbuespen handia da, ez baitzuten ez langileek ez eta enpresek sustatu, udaletxeak baizik.

Gobernuek ere, arazoaren aurrean, zegokien papera bete eta erreformak egin zituzten legedian. Hala nola, Frantzia eta Britainia Handian, pasa zen mendetik, asmo sozialeko legeak aterata zeuden masifikazioa ekiditeko: “Société française des habitations à bon marché” (1889) lehenaren kasuan eta “Labouring Houses Act” (XIX. mendearen erdialdea) bigarrenaren. Langileei errazago egin zitzaienten etxebizitza eskuratzea eta ugazabei hauen gauzatzea. Bi kasuetan, lorategi-hiria izan zen, nagusitu zen urbanizazio formula, garaiko higienista eta arkitektoen gomendioei jarraiki. Giro honetan iritsi zen, 1911n, Espainiara, lehenengo Etxe Merkeen legea.

ETXE MERKEEN LEGEAK

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, Europako adibideei erreparatuz atera zen, lehen aldiz espainiar estatuan, 1911. urtean, **Etxe Merkeen lehenengo Legea**. Orduan gertatzen ari ziren gatazkei ezin izan zitzaien luzarora eutsi eta Gobernuak neurriak hartzera bultzatua izan zen. Lege honen abantaila nagusia langileentzako interes baxuko maileguetan zetzan, etxea ordaintzeko orduan, hilero jasan beharreko zama hain handia izan ez zedin. Baina, langileei lege honi heldu ahal izateko, urteko 3.000 pezetako gutxieneko diru-sarrerara edukitzea eskatzen zitzaien. Ekimenak nekez izan zuen arrakastarik, langileen gehiengoa oso egoera estuan bizi baitzen eta gutxi ziren soldata horietara iristen zirenak. Gipuzkoari dagokionez, lege honi atxiki zen eraikuntza multzo bakarra Antiguako Arantzazu auzoa dugu.

Etxe Merkeen bigarren Legea 1921ean izan zen onartua. Honek, berrikuntza modura, etxebizitzaren tipologiaz ere hitz egiten du. Familiabakarreko eta etxebizitza eraikinak ezberdindu, azalera erabilgarriak mugatu eta lorategi-hiriak aipatu eta bultzatzen ditu. Kooperatibismoa bultzatzen ere saiatzen da. Gipuzkoari buruz ari garenean ezin dugu kasu askori buruz hitz egin, baina guztira ezagutzen ditugun kasuak zortzi izanik, eraikitze datei kasu eginaz horietatik bi lege honi atxikiak izan zirela pentsa dezakegu. Abantailak, aurreko legearen aldean onak ziren, baina ez zuen langilerian behar bezala mamitu.

1923an Miguel Primo de Riveraren diktadura ezarri zen eta boterean mantenduko zen 1930 arte. Gauzak horrela, lehendik eztabaidatzen ari zen lege proiektua alde batera utzi eta 1924ko urriaren 10ean **Etxe Merkeen hirugarren Legea** onartu zen. Orokorrean, hau izan zen arrakasta handiena izan zuena. Eduardo Aunósek, Primo de Riveraren Gobernuak Lan Ministroak, lege hau erabili zuen bere politika sozialaren ardatz gisa populismoz bustirik eta, bide batez, langileria sisteman sartu eta jabetza pribatuaren zentzuan sartzeko. Gobernuak sozialistekin izan zuen harremana ona izan zen zentzu honetan, anarkistekin, ordea, sekulako errepresioa ezarri zuen. Erreferentzia gisa, Bizkaian eraiki ziren 57 auzoetatik 51, lege honi atxikiak izan ziren. Gipuzkoari dagokionez, berriz, zortzitik bost izan ziren abantaila itzel hauek ikusi zituztenak. Etxebizitzaren egoera nabarmenki hobetu bazen ere, asko ziren errekurtsio benetan urriak zituzten langileen kritikak, ezin baitzuten lege honek ezarritako baldintzen barruan sartu. Klase ertainekoek, berriz ezarritako soldataren mugaren deuseztapena eskatzen zuten.³

³ DOMINGO Hernández, M^a del Mar. *La vivienda Obrera en Bilbao y el Bajo Nervión: Las Casas Baratas, una nueva forma de alojamiento (1911-1936)*. Girona: Universitat de Girona. 2005. 134. or. "fueron frecuentes las criticas..."

Legeak estatuari laguntzak emateko aitortu zizkion eskumenak honakoak ziren, besteak beste:

- Etxeak eraiki behar ziren lurren %50a eta eraikuntza kostuaren %70a maileguan %3ko interesarekin eta 30 urterako.
- Eraikuntzaren aurrekontu osoaren %10a hobari gisa, entitatea izanez gero (udaletxea hemen sartu zen), eta %20 kooperatiba eta irabazi asmo gabeko erakundeentzat.

Diktadura, lege hauek jendeak Gobernuarengan zuen miresmena handitzen zutela ohartu zen eta ez zuen zalantzarik izan inguruko jende guztia bere alde jartzeko erabiltzean: funtzionarioak, kazetariak, militarrek... Horrela, hurrengo urteetan, klase ertainera (1925), funtzionarioei eta organismo autonomoei (1927) eta militarrei (1928)⁴ zabaldu zitzaizkien laguntzak Dekretu-Legeen bidez. Berau oso kritikatu izan zen, bertan, Etxe Merkeen benetako izaera galtzeko intentzioz eginga zela ikusten zelako. Adibidez, lehen, urteko sarreraren muga 30.000 pezetatan zegoena, orain 60.000koa izango zen. Hala ere, hurrengo urteetan, Etxe Merkeak ugaritu besterik ez zuten egin. Gehienbat Bizkaian, estatuko beste inon baino gehiago eraiki zituztelarik. Lege honen iraunaldian burutu zen estatu mailako Etxe Merkeen lehen Kongresu Nazionala eta, 1928an, Etxe Merkeen Konfederazio Nazionala eta *Hogar Propio* aldizkaria sortu ziren.

1930eko uztailaren 21ean, Gipuzkoako Diputazioak, laguntzak emateko **Etxe Merkeentzako Araudia** onartu zuen. Zerga salbuespenak Gipuzkoara zabaltzearekin batera, hobari propio batzuk finkatu zituen:

- Udaletxeek eraikitako eta jabetzan emateko Etxe Merkeak, kostuaren %10a.
- Kooperatibek edo ongintzazko elkarteek eraikitako eta jabetzan emateko Etxe Merkeak, %10a.
- Irabazi-asmozko elkarteek eraikitako eta jabetzan emateko Etxe Merkeak, %5a.
- Udaletxeek eraikitako eta alokairuan emateko Etxe Merkeak, kostuaren %5a.

1931n Bigarren Errepublikaren etorrerarekin, paradoxa badirudi ere, Etxe Merkeen lege prozedura guztiak gelditu ziren. Honen arrazoia Gobernu berriak Etxe Merkeen inguruko guztia aurreko Gobernu diktatorialarekin lotzea izan zen. Kontrajarria badirudi ere, bere logika izan dezake, kontuan izanik, neurri hauek guztiak erreformistak zirela, jabetza pribatua sutsuki bultzatzen zutela eta kontrol soziala zutela helburu, horrela, jendarte konformismoan murgildu eta sistema kapitalistaren

⁴ DOMINGO Hernández, M^a del Mar. Op. cit. 135. or.

oinarriak mantenduz. Neurri iraultzaileak balira, arazoa estatu kontu bilakatuko litzateke, jabetzan eman gabe eta errenta eta etxebizitza kolektiboa bultzatuko litzateke. Francisco Javier Muñozek bere tesian azaltzen duen bezala⁵, gobernuak lege hauekin laguntza eta mailegu bidez, familiabakarreko etxebizitzaren eraikuntza bultzatzen du inizatiba pribatuari lagunduaz eta, beti ere, lurraren balioa errespetatzen, etxebizitzaren kontua estatuaren kontu bezala ekidinez.

Hala ere, aurretik martxan zeuden eskaerek bere bidea jarraitu zuten. Horren adibide izan zen, Gipuzkoan, Iruneko Lapitze auzoa, 1932an eraikia.

⁵ MUÑOZ Fernández, Francisco Javier. *Arquitectura Racionalista de Bilbao (1927-1950). Tradición y modernidad en la época de la máquina*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2011. 378. or.

BIZKAIKO ADIBIDEA

Azkoitiko Etxe Merkeez ari garenean, ekidin ezineko kasua dugu Bizkaikoa aipatzea. Bertan eraiki ziren auzoen kopuruak ez du zerikusik Gipuzkoakoekin, hemen eraikitakoak zortzi izan ziren bitartean, ondoko probintzian eraikitakoak 57 izan baitziren. Guztira 2.994 etxebizitza, benetako izugarrikeria Gipuzkoako 359ekin alderatuz gero. Fenomeno propio bat izan zen. Langile kopuru izugarriagan izan zuen eragina. Hauek, gehienbat, Etxe Merkeen legeek bultzatutako kooperatibetan antolatu eta beraien etxeak eraikitzen hasi ziren. Gehienetan, beraien eskuak erabiliz ahal zen guztian lan eginez. Arkitekto esanguratsuenak Manuel Maria Smith, Emiliano Amann, Ismael Gorostiza, Tomas Bilbao... izan ziren

Ezberdintasun handi hau bere neurrian aintzakotzat hartzeko, kontuan izan behar dira bi probintzien arteko ezberdintasunak. Bi probintzien industrializazio prozesua ez zen inondik ere berdina izan. Gipuzkoan, lurralde osoan sakabanatuago zen bitartean, Bizkaian, nukleo jakin batzuetan metatu zen eskulangile masa guztia. Bizkaiko industria burdinaren erauzketa eta honen eta altzairuaren esportazioan oinarritu zen hamarkada luzeetan. Burdina Enkarterrietako mendietan meatzariak erauzi eta Nerbioiko konpainia siderurgiko nagusiek tratatu eta esportatu egiten zuen burdin edo altzairu formarekin. Enpresa hauetako garrantzitsuena Bizkaiko Labe Garaiak zen eta Barakaldo eta Sestaoko hirietan zeuden kokaturik, ibaiaren ertzean bertan. Immigrazio izugarria izan zuten hiri hauek eta ingurukoek, bertako lan aukerak erakarrita, eta guztiak beren lanpostuetatik hurbil bizitzen jarri ziren, pilatuta eta modu inondik ere ez osasuntsuan.

Azkoitiko San Martin auzoa diseinatu zuen arkitektoak, Tomas Bilbaok berak, bost horrelako eraiki zituen hauekin hasi baino lehen. Bera Bilbotarra zenez, ez da harritzekoa bertan egin izana bere obra nagusia. Azkoitiko alkate Ricardo Otaño jakinaren gainean zegoen Bizkaiko Etxe Merkeen mugimenduaren arrakastaz eta Bilboraino mugitu zen Bizkaiko Aurrezki Kutxan laguntza jasoko zuenaren esperoan. Kontatuen bidez, Tomas Bilbaorekin harremanetan jarri eta honek ezagutzen dugun obraren proiektua egin zuen. Baina, honetaz, ikerketa lan honetan murgiltzean hitz egingo dugu xehetasun osoz.

Tomas Bilbaoren obra Bizkaiko probintzian, bost jardueratara mugatzen da Etxe Merkeei dagokienez. Lau Bilbon, Zurbaran, Arabella, Buena Vista eta Obreros Panaderos; eta La Mutual, Arrigorriagan altxaturiko bakarra. Bilboko lauak Artxandako magalean eraikiak dira, Azkoitikoak bezala.

Ana Julia Gomezek eta Javier Ruizek beraien Bilboko Etxebizitza Merkeak⁶ liburuan, bere auzoen deskribapen laburtu bat eskaintzen da, besteak beste. Zurbaran eta Buena Vistako auzoen urbanizazioa erradiala da. Lorategi-hirien idealizatzaile ingelesen⁷ planteatutakoa praktikan jarritz. Bide nagusiaren zabaltasunari, berdegune handiei eta zuhaitzen ugartasunari, etxe bakoitza inguratzen duen lorategi handiak gehitu behar dizkiogu, hauek eskaintzen duten bizi kalitateaz ideia bat egin dezagun. Urbanizazio hauek duten izaeran deigarria egiten da beraien bizitegitasuna. Industria guneetatik urrun, bertan bizi den isolamenduak lasaitasun osoa posible egiten du, irudi guztiz klasista izan zitekeena bezalaxe. Buena Vistaren kasuan, bere erradialtasuna abaniko forman du eratua. Urbanizazio mota hau ere Howardek lorategi-hirien planteamenduetako bat bezala proposatutakoa izan zen.



Buena Vista eta Zurbaraneko Etxe Merkeak hurrenez hurren.

Iturria: Bilbao Aldizkaria, 2009ko apirila eta ekaina

Tomasek etxe hauetan irudikatutako estiloa neoeuskalduna izan zen, batez ere. Euskal arkitekto askok erabilitako estiloa zen hau. Euskal baserri eta dorretxeetan inspiratua zegoen eta, batez ere, euskal burgesiak beraien txalet eta jauregiarako erabilitakoa zen. Klase ertaineko langileei familiabakarreko etxeak eraikitzeak gustatu zitzaizela dirudi, hauen estatus sozialera hurbildu nahian edo, nonbait. Eta Zurbaranen kasuan hein handi batean lortzen dutela esan daiteke. Estilo honi, ohikoa zen estilo ingelesetik hartutako elementuak gehitzen dizkio, *Old English* deiturikoa, adibidez, *Oriel Window*-ak (hiru ertzeko begiratokiak) etab.

Tomasek San Martinen eraikitako etxeak taldeka atxikiak diseinatu bazituen ere, Bizkaian horrelakorik ez egiten saiatu zen. Eta emaitza, irudian ikus dezakegun adibidean bezala, benetan ikusgarria izan zen.

⁶ GÓMEZ Gómez, Ana Julia eta RUIZ San Miguel, Javier. *Bilboko Etxebizitza Merkeak. (1911-1936)*. Bilbo: Polidori, EHAEO. 2004

⁷ Ideia honen aitzindari eta bultzatzaile nagusia Ebenezer Howard izan zen 1902an *Garden cities of tomorrow* argitaratu zuenetik.

Azkenik, aipatu beharra dago, Bilbon Zurbaran eraikitzearekin batera, kritika latzak egin zirela garaiko prentsari. Askok pare bat oheren berrakuratzegatik ordaintzen zuten diru kopuru berdinarekin, beste batzuk honelako txaletak eskuratzen zituztelako.

GIPUZKOAKO ETXE MERKEAK

Beatriz Herrerasek bere “Las casas baratas en Gipuzkoa”-n⁸ egindako informazio bilketan oinarrituz, zazpi izan ziren Gipuzkoan eraikitzea lortu ziren Etxe Merkeen auzoak (azkenik, zortzi lirakeke, Arrasaten ere izan zen eta horrelakorik eta) eta lau herri edo hiritan soilik ageri dira metatuak. Zerikusirik ere ez, noski, gure lagun Bizkaitarrekin, bertan, berrogeita hamazazpi altxatu baitziren. Aurrerago sakontasun handiagoz azalduko den bezala, baldintzak eta beharrak ez ziren berdinak han eta hemen. Arrazoi nagusia: bertan, industrializazioa askoz ere bortitzagoa suertatu zela.

Obratu ziren auzoak hiru izan ziren Donostian (Altzan, Antiguan eta Loiolan), bi Irunen (Anaka eta Lapitze), bi Azkoitian (San Martin auzoa eta bi etxebizitza eraikin) eta azkenik, Arrasatekoa.⁹

Eskuartearen dugun lana Azkoitiko San Martin auzoari eskainia denez, hau ez dugu atal honetan ukitu ere egingo. Beraz, beste hiru hirietan eraikitako eta, osorik edo ia osorik, zutik dirautenak aztertuko ditugu. Baita ere, Azkoitian eraiki ziren bi etxebizitza eraikin ere, hauek ez direlarik, tamalez, jada existitzen.

Donostia

Ordena kronologikoari jarraiki, eraikitzen lehena izan zena Donostiako **Antiguan kokatutako Arantzazu auzoa** dugu. Eraiketa lanak 1919an zehar egin ziren. Eginkizun honetarako *Sociedad Constructora de Viviendas Económicas Nuestra Señora de Aránzazu* sortu zen. Bere lehendakaria Manuel Mercader izan zen. Oraindik auzoko etxe guztiek zutik dira eta, dirudienez, osasuntsu.

Aukeratutako eredua lorategi-hiria izan zen, Etxe Merkeen legee heldu zitzaizen gehiengo bezala. Guztira berrogeita bi etxebizitza altxatu ziren, Erregezainen kaleari perpendikularki zuzenduak. Denak lau ilaretan antolaturik daude, elkarri atxikiak. Etxebizitza guztiek etxabea eta lehen solairua dute. Etxabea, beraien sorreran behintzat, sukalde, komun eta egongela edo jangelaz hornitua zegoen eta lehen solairuan hiru logela zeuden. Etxebizitza bakoitzaren oinplanoak, bere hurrengoaren simetrikoak dira. Ez dute sarrerako lorategirik, orainaldian bederen; bai ordea, atzealdeko baratzetxo edo terraza. Litekeena da hauetako asko eraberrituak izana denboran zehar eta solairu gehiago atera izana, sabaileihoak ireki... Estilo arkitektonikoari dagokionez, elkarri atxikitako etxeetan ohikoa den oinarritzotasuna

⁸ HERRERAS Moratinos, Beatriz. *Las Casas Baratas en Gipuzkoa*. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía, 21. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993. 263-274 orr.

⁹ Ikus 1. Eranskina: Gipuzkoako Etxe Merkeak

erakusten dute, langileen barrakoi arruntak bezala. Ez dute formetan ugariak izatea lortu, beraien fatxada nahiko lisoa da. Hala ere, ilarako eraikin hauek dituzten mugen barruan, hain monotonoak ez izatea lortzen du arkitektoak. Estilo neoeuskaldunaren ezaugarri nagusietako batez apaintzen ditu beraien teilatupeak: zurezko armazoiaren imitazioa, kolore berdean, fondo guztia txuri kolorekoa izanik. Etxe bakoitzak balkoi bat du lehen solairuan, bi leihoz gain, eta sarrerako ateak binaka estaliak daude teilatutxo batez. Frontoia ere armazoi faltsu batez apaindua dago bi txoritoki dituelarik erdian.

Etxebizitza hauen erregimena errentakoa zen. Bakoitzarengatik hilero ordaindu beharrekoa 45 eta 47 pezeta artekoa zen, etxearen azaleraren arabera. Beraz, prezio hauek Azkoitiko San Martin auzoarekin alderatzen baditugu, askoz garestiagoak zirela ondoriozta dezakegu. Hauetan hilero 23,85 pezeta ordaintzen baitzuten eta, gainera, 30 urtetan jabetza lortu zuten. Ezberdintasun honen azalpena Etxe Merkeentzat egindako hiru legeetan aurki dezakegu, ziur aski. 1924ko hirugarren legeaz geroztik, Gipuzkoan Etxe Merke gutxi eraiki bazen ere, probintziaz kanpo, gehienek lege honi heldu zieten. Dударik gabe, baldintza hobeak eskaintzen zituen.

Gaur egun, auzoa guztiz ezkutuan ageri zaigu. Ia mende batean zehar, bere perimetroan egoitza handiak eraiki dira eta ondotik pasatzen den Matia kaleko zaraten aurrean, isiltasun handiko mikroklima atsegina eskaintzen du.

1921ean **Altzako Maria Kristina Koloniaren** inaugurazioa ospatu zuten. Proiektuaren sustatzailea, 1916an sorturiko *Asociación General para la Construcción de Casas Baratas* elkarteak izan zen. Urte horretan bertan 4.000 m²-ko lurzorua erosi zuten Herreran, 52 etxetxo eraikitzeko asmoarekin. Proiektuaren diseinatzailea José Gurruchaga arkitektoa izan zen. Finantziaziorako, Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren 160.000 pezetako maileguaz gozatu ahal izan zuten, %3,5eko interesarekin. Hurrengo urtean, Udaletxeak 6.000 pezetako diru-laguntza ematea adostu zuen, etxe baten balioa hain zuzen, eta hau lanak bukatzean emango zen. Eraikuntzako materialen eta eskulanaren garestitzeak, sustatzaileak, proiektua 28 etxetxora murriztera bultzatu zituen. Azkenik, 1922an, 13 ziren guztira eraikiak. Argia aldizkariko 1921eko urriaren 23ko zenbakian, ordurako zortzi etxe eraikiak zirela dio, eta aurreko igandean, irekiera ekitaldian, «*Éregin zaía eta Donosti'ko jaun aundi asko*»¹⁰ izan zela bertan.

Hauek ere lorategi-hiriaren patroien jarraitzaile baziren ere, Larratxo Pasealekuarekin paraleloan, lerro bakarrean ordenaturiko etxe batzuen multzoa izatera baino ez ziren iritsi. Hori bai, elkarri atxiki gabeak, honek ematen dituen argiztapen eta aireztatze ahalmenekin, garaiko postulatu higienistei jarraiki. Bi isuriko estalkipean, oinplano karratuko etxabe eta lehen solairuz banatutako etxetxoak dira.

¹⁰ Argia aldizkaria. 27. zenbakia. 1921eko urriaren 23a. 2. or.

Etxabearen barru banaketa sukalde, komun eta gela batez hornitua zegoen; lehen solairua, berriz, hiru gelez.

Fatxadei dagokienez, behe solairuan fatxada osoa alde batetik besteraino okupatzen zuten bi arkuz osaturiko ataria zuten. Gaur egun ia denak estaliak daude denboran zehar barruko azalera irabazteko asmoz altxaturiko hormez. Horma hauetan gelditzen den bakarra arku haien marrazkia besterik ez da, bere zentzua eta koherentzia guztiz galdu duelarik. Garai hartako arkitekturan hainbeste erabiltzen zen armazoiaren imitazioa erakusten dute fatxada printzipalean duen frontoian. Bi arkuen gainean, etxeak dituen hutsarte bakarrik diren lehen solairuko bi leihoak armazoiaren lerro huez inguraturik gelditzen dira.

Gaur egun 12 etxetxo ditugu bertan, 12 horietatik bat behintzat eraikuntza berria delarik oso-osorik. Honez gain, batzuk eraldaketak jasan dituzte beraien jatorrizko kanpoko itxuran, eraikin mota hau berezi egiten duten elementu apaintzaileak deseginez edo aldatuz eta koloreak ere bakoitza bere erara pintatuz.

1922an **Loiolako Etxe Merkeak** altxatu ziren, eraikitzeke lizentzia 1917an eman zelarik. Proiektuan, Maria Kristina Austriakoa erreginak 14.000 pezetako kopuruarekin lagundu nahi izan zuen. Hau horrela izanik, arazoaren karitatezko tratamenduaren ideia bat egin dezakegu. Arkitektoa, José Ángel Fernández de Casadevante izan zen. Etxe multzo osoa Matxinene izeneko kale batez zeharkaturik dago. Etxeak lortzeko lehiaketa bat ospatu zen. Bertan parte hartzeko baldintzak ondokoak ziren: hirian jaioa izatea, azken hamar urteetan bertan bizi izana, familia ugaria izatea, eskulangile edo soldatapeko enplegatu xumea izatea, lana izatea, dokumentu bidez portaera ona izana frogatzea eta hilero 50 pezeta ordaintzea errentan, udaletxeari.

Auzora sartzeko diseinaturiko plaza, Maria Kristinaren omenezko monumentu bat izan behar zuena, aparkaleku bat da orainaldian. Proiektua gauzatu zenean, bere inguruarekin ez bazen ongi artikulatua izan konexioen mailan, orain, arazoa ez dago egoera hobean. Mailaz altxaturiko autopista eta trena; eta errepede batez inguraturik daude, baina, oinezkoen mailan eta desplazamendu motzetan oro har, urbanizazioak asko du hobetzeko.

Kasu honetan, etxe bakoitza ezberdina da beste guztiekiko eta bi eta hiru solairukoak dira. Gehiengoa familiabakarrekoak eta bifamiliarak dira. Ornamentazioan dibertsitate handia eskaintzen dute. Bi isuriko eta gehiagoko teilatuak eta, hauen azpian, lehenengotik gora, armazoiaren imitazioa. Hau, batzuk fatxada printzipalean bakarrik dute eta besteetan lau aldeetan. Estilo askotako leihoak ere ikus ditzakegu, bakanak, inongo detailerik gabeak, harlangaitzez osatutakoak, hirukoitzak, arkuarekin... eta estilo ingeles zaharretik hartutako (Old English) *Oriel Window*-ak, hau da, hexagono erdi baten oinplanoa duten begiratokiak. Balkoiak zurezkoak dira denak eta ez daude etxe guztietan, baina direnak nahiko luzeak dira eta etxearen fatxada nagusiaren buru

dira. Harlagaitzezko piezak apaingarri modura han eta hemen kokatuak eta neoeuskaldunaren beste erreferentzia bat suposatzen duena: dekorazio-suhesia. Fatxada batzuetan eremuak akabera ezberdinez bereizita daude, akabera jarraiak eta ageriko adreiluak uztartzen dira.

Azkoitia

San Martineko esperientziaz gain, denboran atzerago, 1924an, herrian izandako beste bat aipatu behar dugu. Honetan ere, Udaletxea izan zen protagonista nagusia. Esan beharra dago ere, hau izan zela Gipuzkoan familia bakarreko etxebizitzak izan ez ziren Etxe Merke bakarrek. Proiektuaren arkitektoa Marcelo Guibert izan zen. Udaletxearen lehen aldia zen alojamendu gabeziari aurre egiteko eraikuntza lanetan sartzen zela. Horretarako, benefizentziaren lurretan bi etxebizitza kolektibo altxatu zituen. Etxabea dendetarako eta hiru solairu zituzten biek. Guztira, 24 etxebizitza izan ziren, solairu bakoitzeko lau. Hauek guztiek sukaldea, jangela, komuna, arropategia eta hiru logela zituzten.

Proiektua aurrera eraman ahal izateko, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak 200.000 pezetako mailegua¹¹ eman zion Udaletxeari %5eko interesarekin. Gero, etxebizitza bakoitza bere kostuaren prezioan saldu zen: 6.000 pezeta. Diru honekin, Aurrezki Kutxari zorra ordaindu ahal izan zitzaion. Klase ertainari zuzendutako laguntza izan zen dudarik gabe. Garai haietan 6.000 pezeta ezin baitzituen edonork eskuratu.

Irun

1925ean, *Cooperativa Irunesa para la construcción de Casas Baratas* sortu zen Irunen. Honen helburua, bere bazkideentzat, 1924ko Etxe Merkeen legean oinarriturik, etxe merke eta higienikoak eraikitzea zen. Elkartearen lehendakaria Florencio Iracheta Quilez izan zen. Madriletik 1920an Irunera etorritako langilea. 1931n udaleko zinegotzi hautatu zuten eta, geroxeago, Iruneko UGT (Unión General de Trabajadores) sindikatuaren lehendakaria izan zen. Guda Zibilean eraila izan zen, 1938ko martxoaren 10ean, Burgosen¹².

Elkarte honen parte izateko 1924ko araudian azaltzen diren baldintzak betetzea, Irungo Maizterren Elkarteko kide izatea eta, elkartean alta ematean, sarrera kuota ordaintzea eskatzen zen.

¹¹ Jose de Possek bere La Casa Propia-n aipaturiko datua. Beatriz Herrerasek 325.000 pezeta aipatzen ditu baina aurrekoa izan da kontuan, etxebizitzekin garaikidea izanagatik.

¹² Florencio Iracheta. Las Calles de Anaka. Anaka 1881 Kultur Elkartea.
<http://anaka1881.com/Albunes/Callejero/Iratxeta/Iratxeta.htm> (kontsulta: 2012/06/04)

Udaletxeak, **Anakan**, 14.000 m²-ko lurzorua erosten laguntzea erabaki zuen, 15.000 pezeta jarriaz. Hala ere, auzo osoak 65.751 m²-ko lurzorua behar izan zuen proiektuko 130 etxebizitzak sartzeko. Lan Ministerioak 1926an onartu zituen lurrak, Etxe Merkeak eraikitzeko modukoak zirela esanez.¹³

Kooperatibaren helburuen barruan, etxeak bere bizilagunen jabetzapean ematea zegoen. Lorategi-hiri honetan, hiru motatako etxeak egin ziren, familia bakoitzak ez baitzituen behar berdinak. Etxeak neoeuskaldun estilo garbian diseinatuak izan ziren. Atarietako arkuak eta leihoak eta hauen inguruak harlangaitzez osatuak daude. Baita ere fatxaden arteko ertzak ere. Bi isuriko teilatuaz babestua. Denak txuri kolorekoak dira eta ia frontoi guztiak armazoi faltsuz apainduak daude. Gehienak gorri edo granate kolorekoak. Lehengo solairuan, batzuk bi leiho eta beste batzuk burdin forjatuzko balkoia eta leihoa dute. Etxabeen berriz, ederrenek Oriel Window bat dute eskuineko erdian eta ezkerrekoan etxeko sarrera dago arkupeko atari batez babestua. Sinpleagoak direnak fatxada bi zatitan banatua dute. Eskuinekoa, ezkerrekoarengatik aurreratua dago. Etxe hauek ez dute ez arkuperik ez eta begiratoki ingelesik, sarrerako ate lauki arrunta eta leihoak bakarrik baizik. Familiabakarreko etxebizitza hauetako bakoitzak bere lorategia edo baratzetxea izan zuen eta oraindik badira batzuk erabilera hau ematen dietenak beraien lurtxoei.

Aipatzekoa da auzo erraldoi honi eraikin bat gehiago eman zitzaiola: *Kasino* bat. Eraikin handi eta eder honetan beraien aisialdiaz gozatzeko biltzen ziren auzokide guztiak. Oraindik ere bere funtzionamendu sozialak martxan dirau.

Lehenengo 26 familiak 1930ean sartu ziren beraien etxeetan bizitzera eta, etxe guztien eraikuntza, 1936ko Guda Zibila baino lehentxeago bukatu zen.

Anekdotak modura, esan beharra dago etxe hauetan debekaturik gelditu zela edari alkoholikoak saltzeko helburua izango zuen edozein saltoki mota zabaltzea.

Irungo Etxe Merkeen bi auzoetako bestea **Lapitze** dugu. Honentzako aukeratutako lurrak Alai Txokoren bi aldeak izan ziren. Oñurre baserriaren lurrak profitatuz eta Oña-berriren lurretako ur edangarriek ureztatutako alde zertxobait horizontala.

Arkitektoa Teodoro Anasagasti izan zen. Hark, lorategi-hiria bere hitzez definitzeko asmoz, «*etxe bakoitza barazkiz beteriko espazio handi batez inguratua dagoena da, hau eraikinak okupatzen duena baino handiagoa delarik*» zioen.

¹³ Las Casas Baratas. Anaka 1881 Kultur Elkartea.

<http://anaka1881.com/EI%20Barrio/Casas%20baratas/casas%20baratas.htm> (kontsulta: 2012/06/04)

Proiektuan lurzoru osoa 178 orubetan banatzen du. Guztiak ez ziren berdinak, 272 eta 600 m² artekoak zirelarik. Anakan bezala, hemen ere arkitektoak hiru motatako etxeak diseinatu zituen. Fatxadak 14 metro ingurukoak dira.

Etxeak bi auzunetan banatuak izan ziren: Oñaurre eta Oñaurre-berri, gaur egun, hiriaren erdialdetik isolatuak. Proiektuaren data 1926koa da eta bertan 118 etxetxo eraikitzeke asmoa ikus daiteke. Hala ere, Beatriz Herrerasen dokumentuari berari kasu eginez, 1932an 80 zeuden eraikita, horietako 34tan jadanik familiak bizi zirelarik, eta beste 60 etxeren eraikuntza lanetan murgilduta. Guztira, 140. Zenbakiak ez datoz bat.

Urbanizazioa 30garren hamarkadan egin zen. Udaletxeak lan hauen 2/5enak ordaintzeko hitza eman zuen, zati honek, beti ere, 12.000 pezeta baino gehiago suposatzen ez bazuen.

Etxe bat eskuratzeko, familia bakoitzaren urteko diru-sarrerek ezin zuten 6.000 pezetako muga gainditu.

Etxeak bata bestearekiko distantzia handiz kokatuta daude. Berdegune edo lorategiak okupatzen duen eremua, arkitektoaren intentzioekin bat, oso handia da, eta leku oso lasai eta apartatu bihurtzen du. Intimitate handiarekin. Denak bi isuriko teilatupeko etxeak dira eta bi solairu dituzte: etxabea eta lehena. Fatxadei dagokionez, etxabea sarrerako ateei teilatzko estalki bat daukate atari-aterpe moduan eta lehen solairuan balkoi bat, hauek itxura ezberdinekoak daudelarik: txikiak, handiagoak eta hirukiak. Batzuk armazoiaren imitazioa daukate eta, beraien kromatismoari dagokionez, dibertsitate handia dago, baina gehienak txuri kolorekoak dira.

Arrasate

Hauez gain, Arrasateko herrian ere izan zen Etxe Merkeen ekintzarik¹⁴. 1923an *Junta Local de de Casas Baratas* sortu zen. Elkartea hau herriko 10 biztanle garrantzitsuk osatu zuten: medikua, alkatea, eta abar. Gehienbat, Unión Cerrajera enpresak bultzatua izan zen, bera baitzen langileak lantegitik gertu edukitzea komeni zitzaiona. Hainbestekoa zen bere nahia, 1924an osorik ordaindu zituela 18 etxebizitzak Maala kalean.

Etxe hauek **Etxe Txikiak** eta Komunisten Etxeak bezala izan dira beti ezagunak. Lehena ondoko kale baten izena da orainaldian. Arkitektoak, langile etxeen eredu anglosaxoia hartzen du inspirazio iturri, hauek diseinatzerakoan. Etxabea egongela eta sukaldea ditu eta komuna eta hiru logela lehenengo solairuan. Etxeak errentako erregimenean eduki zituzten, hilerokoa 30 pezeta zirelarik. Etxebizitza bakoitza 200 m²-ko azalera

¹⁴ Aramendia, Isabel; Parra, Leire. *Arrasate, un pueblo forjado por los trabajadores*. Arrasate: Arrasateko Udala, 2004. 32 eta 33 or.

zuen berdegune batez inguratua zegoen eta, bertan, beraien barazkiak eta, baita ere, animaliak izateko aukera izan zuten beraien ekonomia hobetzeko laguntza gisa.

Etxeen bolumena “L” formako oinplanodun bi solairuz osatua dago. Bi isuriko teila lauко teilatua dute eta honen gailurra “L” honen erditik doa. Harri landuz eraikiak daudela dirudi. Harriak beraien ehunduraz ordenatuak daude, lauak eta lakarrak alternatuz. Arotzeria, kontraleiho eta guzti, berdez dute pintatua. Ez dute balkoirik. Atarian, etxeak inguratua gelditzen den txokoan, behe solairuko eraikuntza txiki bat daukate atxikia etxeko sarrera modura.

Amets batean geldituak

Baina fruiturik ikusi ez zuten saiakerarik ere izan zen. Horietako bat, 1919garren urtean, **Tolosan**, *Asociación Obrera*-k egindako ahalegina. Elkartek honek, urte bereko urrian izandako Asanblada Orokorrean, herriak langileen eguneroko joan-etorriak zirela eta pairatzen zuen etxebizitzaren gabezia ikusirik, Ongintzarako Etxean (Casa de Beneficencia), eskulangileentzako Etxe Merkeak eraikitzeke eskatzea adostu zuen. Badirudi intentzioa horretan gelditu zela, eskaera batean.

Beste kasua **Errenterian** gertatutakoa da. Hemengo ekimena haratago joan zen, zeren eta, badirudi dokumentazio handia sortu zela, proiektua ere diseinatu baitzen. Herrian, 1922an, *Cooperativa Renteriana para la construcción de Casas Baratas* elkarteak sortu zen. Honen helburua Bazkide bakoitzarentzat etxe higieniko eta merke bana eraikitzearena zen. Proiektuaren arkitektoa Fausto Gaiztarro izan zen. Etxe Merkeen eraikuntzarako 10.170,14 m²-ko lurzoru bat erostea pentsatu zen. Hau 300 m²-ko 51 lursailetan banatuko zen, bakoitzaren hiru laurdenak lorategiarenak izango zirelarik eta bat eraikinarena. Auzoaren fisionomia, lau ilarakoa izango zen, iparretik hegorako norabidean.



Anaka (Irún) eta Altza (Donostia) auzoetako Etxe Merkeak

Iturriak: Anaka 1881 Kultur Elkartea (<http://anaka1881.com/EI%20Barrio/Casas%20baratas/casas%20baratas.htm>)

Altzako Tokiko Bilduma (<http://www.altza.info/doku?z=3&p=1346954187374&o=12&n=&h=casas%20baratas&x=6214>)

3. SAN MARTIN, AZKOITIA

*«Pugnamos por descubrir en el seno virgen de la naturaleza
el mismo secreto de sus leyes;
Pero no mostramos tan vivo afán
por establecer un reparto más equitativo de los dones
que la propia Naturaleza nos ofrece a todos»*

(Fidel Urbina, 1920.
Eusko Ikaskuntzaren II Kongresua)

HERRIAREN EGOERA SOZIO-POLITIKOA



“Azcoitia. Vista General”

Iturria: Indalecio Ojanguren. 1915. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Sig.: AGG-GAO_OA04429 eta AGG-GAO_OA04430

Denbora gutxi zen, 1924 hartan, espainiar estatuan Miguel Primo de Riveraren diktadura ezarri zela 1923ko irailaren 13ko estatu kolpeari esker. Diktadura honek 1930 arte iraungo zuen Alfontso XIII.aren oniritziarekin.

Herriaren gobernuari dagokionez, urte horretan bertan, Ricardo Otaño izan zen alkatetza betetzeko bozketan herritarrek hautatua. Alderdi Integristaren partaidea zen. Hau zen Azkoitian garai hartan zeuden alderdietatik indartsuena. Beste bi alderdiak Eusko Alderdi Jeltzalea eta Alderdi Karlista ziren. Otaño ez zen 1931 arte alkatetzako aulkitik altxa beharko. Urte honetan ez da zinegotzi modura ere ageri eta litekeena da aurkeztu ere ez izana.¹⁵

¹⁵ ALBERDI Uria, Raimundo. *Errotik arro. Azkoitiko abertzaletasuna, bizipenak eta historia. 1907-2007*. Azkoitia: Azkoitiko Batzokia. 2011. 116. or.

Gurutz Garmendiak oso ongi azaltzen du herriko giro soziopolitiko bere *Jasokunde Kooperatiba oroitzuz* liburuan¹⁶. Alderdi honek herrian eta eskualdean zuen indarra izugarria zen. Ideia bat egin ahal izateko, Manuel Senante, Alderdi Integristako buru nazionala, Azpeitiko distritutik aurkeztu zen Kongresura, bere hautagaitza ziurtatzeko intentzioz, eta 1907tik 1923 arte, 16 urtez jarraian izan zen hautatua. Eraitza on horietan zerikusi handia izan zuen Azkoitiak. Hemen, 1911 eta 1922 artean izandako udal hauteskundeetan, Integristek 8-10 zinegotzi lortu zituzten, Jeltzaleek, 2-4 eta Karlitek 1-2. Gainera, kontuan izan beharrekoa da, garai hartan, industria gehien jabeak integristak zirela eta beraien langileen botoak erraz maneiatzen zituztela lantegitik botatzeko mehatxuarean. 1920ko grebaren arrazoi nagusietako bat langileen askatasunez bozkatzeko eskubidearen aldarrikapena izan zen. Hala ere, azpimarragarria da garai haietako udal hauteskundeetara aurkezten ziren alderdi guztiak tradizionalistak zirela. Ez zegoen aukera handirik aldaketarako. Gainera, herriko jauntxo hauen eragina ez zen politikara bakarrik mugatzen, langileen bizitza pribatuan ere sartzen baitziren. Adibidez, erromerietan, dantza heldua egiten zuen orori bost duroko isuna jartzen zieten eta, Epelde enpresariak, dirua ematen zien bere lantegiko langileei egunero mezara joaten baziren eta, gehiago, igandea bazen.

Herritarrek katolikoak izanik, ez da harritzekoa sindikatuak ere katolikoak izatea. 1918ko grebaren bitartekaritza, Gipuzkoako Gotzainak jaso zuen eta honek Azkoitiko Erretoreari pasatu zion lana. Harritzekoa da langileek elizgizonak grebaren epaile modura onartzea. Baina elizan bi talde bereiz zitezkeen: bat enpresarien aldekoa eta hauekin oso harreman onak zituena, langilearen otzantasuna predikatzen zuena, Sindikatu Katoliko edo "Amarilluaren" aldekoa eta gauzak zeuden bezala jarraitzearen aldekoa; eta bestea, gutxiengoa, berdintasunaren printzipioak predikatzen zituena. Hauek Sindikatu Librearen jarraitzaileak ziren eta eliza ofizialaren kritika latzak jasan behar izan zituzten. Integristen egunkaria zen La Constancia-ko orrietan askotan aipatzen dira Sindikatu Librearen laguntzaile diren apaiz horien erreferentzia negatiboak. Sindikatu honen sortzaileetako bat eta hainbat alditan laguntza emandakoa Don Jose Otaño herriko apaiza izan zen.

Industrializazioa

Azkoitiaren ingurueta jarduera batez ere nekazaritzarena zen, baina herrian industriak presentzia nabarmena zuen. Azkoitian, lehenengo lantegiak, XIX. mendearen erdialdekoak dira. Bertan ekoizten ziren produktuak jutearen eratorriak (abarketak) eta txapelak ziren. Aurretik kalean egiten zen lana gutxika lantegietan biltzen joan zen, dirua zutenek inbertsioak egin ahala. Insausti Jauregiaren inguruetan instalatuz joan ziren fabrikak. Abarketagintzak, industrializazioarekin batera, izugarritzko bultzada izan zuen. Hainbeste, non, ia herri guztia ekoizpen honi lotua izan baitzen. Azkoitiko hiru

¹⁶ GARMENDIA, Gurutz. *Jasokunde Kooperatiba oroitzuz*. Azkoitia: Azkoitiko Udala, 1999. 9-31 or.

lantegi garrantzitsuenak Esteban Alberdi y Cía. (Yutera Alberdi), Fábricas Epelde (Epelde, Larrañaga y Cía.) eta Hurtado de Mendoza ziren. Lehenengo biak abarketagintzan eta hirugarrena txapelgintzan aritu ziren. Azkoitiko abarketak Ameriketara esportatzen ziren, batez ere Argentinara.

Abarketagintzak Azkoitian izan zuen arrakasta hiru faktoreren emaitza izan zen: kapital metaketa, mekanizazio maila altua eta soldata baxuak. Lantegietan instalatu ziren makina kopurua handia zen eta soldadak, berez baxuak baziren, emakumeena oraindik ere baxuagoa zen. Guzti honek industriaren lehiakortasuna areagotu egin zuen. Luis Castells-ek bere *Los Trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*¹⁷ lanean dioenez, Azkoitian 72 makina zeuden abarketagintzan aritzen ziren lantegietan eta estatuan zeuden beste lantegi guztien artean 25¹⁸ batzen zuten. Hori gutxi balitz, horietatik 13 Gipuzkoan zeudela aipatzen du gainera. Honek Azkoitiak sektorean zuen nagusitasunaz hitz egiten digu. Langileei ordaintzen zitzaien kopuruei buruzko datuak ere nahiko argigarriak dira. Honela, aipaturiko liburuan dioenez, 1913an enpresaburu talde baten idatzi batean «langileek makinaren instalakuntzak onartzeaz gain, “tareak” (18 abarketa pare jostea) prezio baxuago baten truke jostez konformatu ziren» esaten omen da. Eta «makinen instalazioa eta gastu murrizketa batzuekin Amerikako kontsumitzaile zentroak konkistatzera ausartu ginen Maule eta Oloroneko fabrika handiekin latz borrokatuz (...) borroka luze baten ondoren, lortu dugu Amerikako merkatua».

Enpresek izandako irabaziak ikaragarriak izan ziren. Hona hemen zifrak: Epelde, Larrañaga y Cía.-k 1900ean 409.000 pezetako kapital soziala izatetik, 1919an 3.500.000 pezeta izatera pasa zen. Esteban Alberdi y Cía.-k berriz, 1903an 1.000.000 pezeta zituen, 1917an 2.500.000 eta 1922an 7.000.000ra iritsi zen. Esteban Alberdi Hijos de Hurtado de Mendoza enpresako langile bat izan zen, gero Azkoitiko lantegi indartsuena izango zena sortu zuenarik.

Pakistandik ekartzen zen abarketak egiteko lehengaia (jutea) Azkoitiko tren geltokira iristen zen Urolako trenaren bitartez¹⁹ eta, bertatik, Yutera Alberdiren lantegietara iristen zen horretarako eginiko Guardi Kaletik pasatzen zen trenbidetik.

Sektoreko langileak hiru taldetan banatzen ziren: *fabrikatzaileak* (jutezko trentzak lantegian egiten zituztenak), *makinistak* edo *urdidoreak* (tailerretan lan egiten zutenak) eta *txorteroak* (etxean lan egiten zutenak, *txortak* egiten: bost dozenako barne-zolak).

¹⁷ CASTELLS Arteché, Luis. *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Madril: Siglo XXI. 1993. 93. or.

¹⁸ Datu hauek 1918ko greban Castañeda abokatuak kaleratutako datuak dira.

¹⁹ Kontuan izan behar da trena Azkoitiara ez dela 1926 arte iristen.



Azkoitiar apretarien manifestaldia (20.5.1890)

Iturria: ODRIOZOLA, Imanol Elias. *Azkoitia historian zehar*. Azkoitia: Azkoitiko Udala, 1999. 613. or.

1922ko greba dela eta, Azkoitiko udalak txosten bat bidaltzen dio IRS-ko (Instituto de Reformas Sociales) ordezkariari. Bertako datuen arabera, lantegietan lan egiten zuten pertsonen kopurua 150ekoa zen eta lana etxera eramaten zutenena 1.500ekoa. Lantegietan lan egiten zutenen erdiak somara egiten omen zuten. Urte berean berriz, Udaletxeak berak 3.000tan estimatzen ditu herriko langileak, horietatik 1.250 izango zirelarik lantegietakoak. Somara lan egiteak ekartzen zituen desorekak izango ziren 1915 eta 1918ko greben arrazoietakoa bat.


Bizkaikoarekin alderatuta, Gipuzkoako industrializazioa nahiko lasaia izan zen eta, beraz, Azkoitian ere, ez zen hain aldaketa azkarra eman. Batez ere, bi arrazoiengatik: batetik Bizkaiko ekoizpena metalurgian oinarriturik egon zelako eta, Gipuzkoakoa, ehungintzan eta honen eraldaketan, bakoitzak dituen berezitasunekin, batez ere, lehena industrialagoa eta masiboagoa dela. Eta bestetik, immigrazioaren faktorea. Bizkaian aukera hobeena bila estatutik etorri zen langile kopurua handia izan zen, honek ekartzen duen kultura aldaketekin. Azkoitian, 1920ko langileen %85a herrian jaioak ziren, %13a gipuzkoarrak eta %2a bakarrik Gipuzkoa kanpotik etorriak.

Sozialismoak, anarkismoak eta komunismoak beste industria guneeetan izandako gorakadak ez ziren eman Azkoitian. Hemen, sindikalismo katolikoa zen nagusitu zena, Zirkulu Katolikoak bezala ezagutzen zena. Hauek, burgesiak beren langileak kontrolatuta izateko tresna gisa erabiltzen zituzten, mezu erlijiosoa zabaldu... Gauzak lasai ibili ziren arazo larririk ez zegoen bitartean.

Lehen Mundu Gerra baino lehenago afiliazio sindikala oso baxua zen Azkoitian. Giroa oso lasaia izan zen 1918-1919 arte. Lehen Mundu Gerrak 1914an egin zuen eztanda. Lehen, ogia garesti bazegoen, orain prezioa igo zen eta herri xehea larri ibili zen. Guztiz bestelakoa zen jauntxo industrialen egoera. Hauek, espainiar estatuak gudan ez sartzea erabaki zuenez, beraien produkzioaren gorakadaz eta, beraz, beraien etekinen handitzeaz gozatu ahal izan zuten esportazioei esker.

Esan beharra dago, Azkoitian, Zirkulu Katolikoak Lehen Mundu Gerra baino lehenagoak direla. 1918ko istiluen ondoren, aldarrikapena hobeto antolatzeko Sindicato Católico Libre osatzen da, “Sindikatu Librea”, alegia. Baina Patronalak, bere interesak babestuko dituen sindikatua eratzea erabakitzen du, aurreko Zirkulu Katolikoan oinarrituko den Sindicato Católico Obrero: “Sindikatu Katolikoa” edo “amarilluak”. Bi sindikatuen arteko ezberdintasun handi bat erresistentzia kutxarena zen, Libreak bazuelarik baina Katolikoak ez. Noski, Katolikoa industria jabeek emandako diruarekin konpontzen zen bitartean, Libreak bere kabuz gestionatu behar zuen eta laguntza izugarria zen, langabezia garaian diru gutxi zegoenean, antolakuntza eta aldarrikapena aurrera eramateko. Sindikatu Katolikoa langileria kontrolatzeko enpresen tresna bat besterik ez zen. Adibidez, etxeetan lan egiten zutenek lantegian postu bat lortzea nahi izaten zuten, lan gutxi zegoenean sarrerarik gabe geratzen baitziren eta, horrela, egonkortasuna irabaziko zutelako. Enpresek, kontratatu ahal izateko, sindikatu honetako kide izatea eskatzen zien.

Beste sindikatu bat SOV (Solidaridad de Obreros Vascos) dugu. Gero ELA-STV deituko zena. Sindikatu hau EAJko bazkideei laguntzeko sortu zen Bilbon 1911ko uztailaren 23an. Bizkaian sortua izanik ere, ez zen asko berandutu Gipuzkoako hedapena. Azkoitian 1919an sortu zen eta abertzale asko izan ziren kideak.



Urolako Trena Azkoitiako Geltokian

Iturria: “Ferrocarril del Urola”. Pascual Marin. 1925. Kutxa Fototeka. Sig.: KUTXA_MACA_3_4152_P-926

Herrian izan zuen garrantziagatik azaldu beharreko beste eragile bat Urolako Trenaren iristea izan zen. Burdinbide honen irekitze ekitaldia 1926ko otsailaren 22an izan zen²⁰. Tren honek Zumaia eta Zumarraga arteko herriak lotzen zituen. Gainera, gure aztergai den San Martin auzoaren ondo-ondotik pasatzen zen, geltokia bera bere oinetan zuelarik. Auzoa eraikitzeke orduan, material gehiena garraiobide honetan iristen zenez,

²⁰ ODRIOZOLA, Imanol Elias. *Azkoitia historian zehar*. Azkoitia: Azkoitiko Udala, 1999. 527. or.

izugarritzko garrantzia izan zuen, gero obrarako espresuki eginiko funikularrean igotzeko. Gaur egun, ez dago Urolan bailarako trenik, 1988ko otsailaren 2an sinatu baitzen bere ixtearen dekretua²¹.

Herriaren industrializazioarekin batera, asko izan ziren bertan bizitzera hurbildutako langileak. Azkoitiko demografia oso garrantzitsua da herriko biztanleriaren alojamendu falta ulertzeko. Ez da erraza datu hauek zehaztasun osoz ematea, iturri ezberdinek gora-behera xumeak baitituzte. Hala ere, guztietan atzematen da urte gutxitan herriak izandako hazkundera. Erreferentzia moduan, hemen bi iturritakoak aipatzea erabaki dut:

<u>Urtea</u>	<u>Biztanle kop.</u>	<u>Urtea</u>	<u>Biztanle kop.</u>
1911	5987	1900	5506
1913	6103	1910	5883
1914	6235	1920	6675
1915	6498	1930	7557
1916	6498	1940	7632
1917	6525	1950	7714
1918	6574		
1919	6594	Iturria: Eustat ²²	
1920	6793		
1921	6870		
1922	6974		
1923	7162		
1930	7720		
1932	8042		
1935	8074		

Iturria: *Azkoitia historian zehar*²³

Tauletan ikus daitekeenez, 1900etik 1920ra mila biztanle baino gehiagoko hazkundera izan zen. Herriak zuenaren %21a, hain zuzen. Gipuzkoa mailan hazkundera oraindik eta handiagoa izan zen: %32a²⁴. Eta gainera, argi zeukaten hazkunderak goraka jarraituko zuela, industriak zeraman abiaduraz jabe. Eta baita jarraitu ere. Gainera, esan beharra dago herrien errolda hazten lagundu zuten biztanle horiek guztiak ez zirela inondik ere

²¹ «El 2 de febrero de 1988 se decretó el cierre...» *Ferrocarril del Urola*. Wikipedia. 2011.
[http://es.wikipedia.org/wiki/Ferrocarril del Urola#cite_ref-14](http://es.wikipedia.org/wiki/Ferrocarril_del_Urola#cite_ref-14) (kontsulta:2012/06/26)

²² Eustat - Euskal Estatistika Erakundea: http://eu.eustat.es/ci_ci/indice.html#axzz20xUqjE7p

²³ ODRIOZOLA, Imanol Elias. *Azkoitia historian zehar*. Azkoitia: Azkoitiko Udala, 1999. 642. or.

²⁴ Eustat - Euskal Estatistika Erakundea

landa eremuetan gelditu, eremu urbanizatuan baizik, industria zegoen lekuan. Bestalde, asko izan ziren herrira aukera hobeagoen bila hurbildu ziren baserritar azkoitiarrak. José de Possek San Martin auzoa eraiki ostean, honen historiari buruz idatzitako liburuan²⁵, 40 urtetan 2540 biztanleko hazkundera egon zela dio. Eta azpimarratzen du, guzti horietatik 326 soilik izan direla baserri munduko biztanle berriak. Bestalde, Fidel Urbinak 1920ko Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresurako egindako kontsulten arabera²⁶, herriaren azken bost urteetako hazkundera 400 pertsonena izan zen, eremu urbanizatuaren biztanleak 3.080an kuantifikatuz urte horretan. Testu berean, herriaren etxebizitza beharra 100ean zehazten du, datuak udaletxeek emanak direlarik. Kasualitatea ala ez, sei urte beranduago San Martineko muinoaren magalean eraikiko zen etxe kopuru berdina.

²⁵ POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaína. 1931

²⁶ URBINA, Fidel. *El Problema de la Habitación en el País Vasco*. Eusko Ikaskuntza. Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresua. Donostia: Elkartearen argitalpena. 352. orr.

ARAZOARI RTENBIDE BILA

«Este estado se señala por la lucha entre el sindicalismo y el individualismo. El primero, llámese sovietismo y comunismo, nos llevaría irremisiblemente a la destrucción del hogar, representación de la familia. Porque el sovietismo es la negación del derecho de propiedad y el mejor modo de combatirlo es hacer al obrero propietario, darle su casa con su pequeño jardín o huerta, y entonces, él se encargará de mantener inconvencible el derecho de propiedad, base de toda sociedad organizada.»

(Pedro Guimón, 1920.
Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresua)

Azkoitiko udalak, zailtasunak zituzten herritarrei etxebizitzak eskaintzeko jardueran, beste esperientzia bat izan zuen lehenago. Lehen esan bezala, 1924an 24 familientzako edukiera zuten bi eraikin altxatu ziren. Baina, zoritxarrez, ekintza hau ez zen nahikoa izan arazoa konpontzeko.

Herria igarotzen ari zen etxebizitza krisiari aurre egiteko, Udaletxeak 1924ko Etxe Merkeen lege berriak eskaintzen zituen abantaila ekonomiko handiei atxikitzea erabaki zuen. Etxe Merkeen hirugarren legea hain zuzen. Aurrerago azaldu den bezala, aurrekoek baino abantaila handiagoak zituen eta aurrekoen aldean atxikimendu handiena jaso zuena izan zen, batez ere Bizkaian, langileak Etxe Merkeen Kooperatibetan antolaturik.

Hala ere, lege honek ba omen zituen bere etsaiak, eta, hauek, argudio ezberdinak erabiltzen zituzten proiektuen aurka egiteko. Hala nola, batzuk etxeak ez zirela kalitatezkoak zioten, material txarrez eta akatsez beteak zeudela esanez. Besteek, berriz, lege berri honi atxikitzen zirenei, etxea oparitu egiten ziela zioten. Hau guztia ez zen egia. Alde batetik, etxea ez zen oparitzen, hau lortzen zuten langileak errekurtsio gutxiko langileak ziren eta, etxe bat lortzeko zailtasunak medio, laguntza batzuk ematen zitzaizkien, interes baxuko mailegu moduan. Eta %10 edo %20 hobaritan ematen zen kasuen arabera. Bestetik, kalitate txarrekoak ziren ala ez irizteko, gaur egun badakigu ez zela horrela izan. Bestela, orain dela ia mende bat eraikitako etxeetatik ez ziren gehiengo zutik eta osasuntsu egongo.

Legearen baldintzen barruan sartzeko langileek inplizituki izan behar zuten estatus ekonomikoak ere eztabaida sortu zuen. Etxebizitza bat lortzeko, normalean, sarrera bat ordaindu behar zen. Honek, kopuru horretara iristen ez zirenak kanpoan uzten zituen, familia txiroenak babes gabe utziz. Honetaz aparte, arrazoi guztiz kontrakoak sortutako inkonformismoak ere izan zuen oihartzunik. Klase ertain-altuko gizarteak, kasu batzuetan, beraienak baino hobeak ziren etxeak hain erraz lortzeak erreakzioak piztu zituen. Honek Etxe Merkeen baldintzetan sartzeko eskatzen zen urteko diru sarreraren gehieneko muga handitzea eskatzen zuten. Denborarekin lortu zen.

Baina lege berri honen babesaren ez izan Udaletxearen erabakiaren arrazoi bakarra. Atzeragotik zetorren gauza zen. Hedabideetan eta konferentzietan garrantzia handiz eztabaidatutako gaia zen etxebizitza faltarena. Adibidez, 1918 eta 1920an gertatutako Eusko Ikaskuntzaren I. eta II. Kongresuetan (batez ere honetan) izandako ponentzietako bat baino gehiago arlo honi buruz izan ziren. II. Kongresuari dagokionez, hiru izan ziren gai honi buruz hitz egin zutenak beraien hitzaldietan: Pedro Guimón, Bilboko arkitektoa; Fidel Urbina, Gipuzkoako Aurrezki Kutxako



Aurreikuspenarako Institutu Nazionaleko Kudeatzaile Ordezkarria; eta Jose de Posse Villelga, Bizkaiko Aurrezki Kutxa sortzeko ponentziako kidea. Hirurek bat egin zuten etxebizitza merkeak lor daitezkeen formulak proposatzearekin. Hirurentzat egokiena jabetza pribatuan ematearena zen.

Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresuko
kartela

Iturria: <http://www.eusko-ikaskuntza.org>

Urbina, hala ere, langile xumeentzat hau ezinezkoa zela esaten zuen, hirietatik gertu eraikitzen bazen lurra garestia zelako eta aldentzen bazen, materialen garraioa zelako obra garestitzen zuena. Hauentzat alokairua proposatu zuen, bai publikoa, bai kooperatibetan antolaturikoa. Eskulangile bakoitzak bere etxean inbertitu beharreko dirua soldataren seirena edo %17a baino handiagoa ezin dela izan defendatzen du. Kalkulu batzuen bitartez, hauen sakrifizioa gutxienez soldataren heren bat dela argudiatuz, «jabetzako etxea ez da etxebizitzaren krisiari irtenbidea jartzeko soluzioa» eta «krisiaren irtenbidea langileen ahalmen ekonomikoarentzako moduko alokairuan emateko etxebizitza askoren eraikuntzan dago» zioen.

Udaletxean, kooperatibismoaren formula baztertua izan zen, zaila ikusi baitzen beharrezkoa zen bazkide kopurua lortzea. Onuragarriagoa ikusi zuen udaletxea bera izatea eraikitzaile lanetan arituko zena. Eta Urbina hitzak zalantzan jartzeko moduko ekintza burutu zuen. Alokairuan ematearen ordez, hilean 24 pezetara iristen ez zen kuotaren truk, jabetza pribatuan emateko familiabakarreko etxeak eraiki zituen eta. Garai hartan Etxe Merkeak izateko ere oso merke eskaintzea lortu zen. Etorkizuneko jabeen konfiantza handia ematen zien eraikitzaile udaltxeak. Udaletxea eraikitzailea izan zen gertakari bakarrenetakoa dugu hau, eta botere honek arazoan izan zuen inplikazioa erakusten digu.

Esan bezala, udaletxea erakunde eraikitzaile baten bihurtu zen eta, beraz, maileguen bitartez lortu behar zituen premiazkoak ziren errekursoak eta mailegu hauek estatuaren eta diputazioaren laguntzak jasotakoan kitatu beharko zituen. Gainera udaltxeak urtero 6.000 pezetako diru-laguntza ematea adosten du 30 urtez, onuradunen urterokoa murrizteko intentziaz.

Kontuan izan behar da zer nolako ideologiako politikariak ziren udaletxean boterean zeudenak. Tradizioaren defendatzaileak, jabetza pribatua guztiaren gainetik jartzen zutenak eta ekintza hauetan kristauaren karitatea besterik ikusten ez zutenak. Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresura itzuliz, bitxiak dira, hala ere, Fidel Urbinaren hitz batzuk. Jabetza pribatuak suposatzen duen indibidualismoaren baitan, kontzientzia sozial handi bat erakusten duelako. Eta jabetzak dituztenak ere ez ditu beraien erantzukizun sozialetatik libratzen uzten. Bere aldarrikapen nagusia Etxe Ona, Jabetzakoa eta Merkea izanik, harritzekoa da bere proposamenen artean, etxeen jabeek norbere etxebizitzetan hutsik dituzten gelak alokatzera behartzearena egotea. Eta horregatik boltxebiketzat ez hartzearen, kristautasuna besterik ez dela argudiatzen du. Testu berean, atzerago, gudari esker Euskal Herriko industria eta bankuek sekulako irabaziak eskuratu dituztela eta, langileen ongizatearenganako beraien arduragabekeria eta berekoitasuna salatzen ditu. Eta honen aurka, industriek beraien irabazietatik zati bat bertako langileei etxebizitza bat bermatzera zuzentzera derrigortuko lituzkeen legedi bat defendatzen du. Boltxebikearen etiketa ezartzeagatik erakusten duen kezkak orduko idazteko modu “politikoki egokia” erakusten digu.

NON ERAIKI?

Azkoitiko herriaren fisionomia oso sinplea zen 1924 inguruan. Urbanizatutako herrigunea Urola ibaiaren inguruan pilatzen zen eta ez zegoen maldan eraikitako eremurik inguruan sakabanaturik zeuden baserriez gain. Ez zen lan erraza izan herriko etxebizitza gabezia larriari irteera emango zion eraikuntza berrien kokapena topatzea, argi baitzegoen hauek lurzoru handia behar zutela. Gainera, herrigunetik gertu egotea komeni zen. Kontuan izan behar da, hazkunde demografikoaren arrazoi nagusia, bakarra ez bada, industrializazioa izan zela, eta beraz, langile horientzat eraiki behar zela. Auzo berriak, lantegietatik ere gertu behar zuen egon. Baita ere, merkatutik, udaletxetik... eta nola ez, elizatik.

Aipatutako ezaugarri guztiak betetzen zituenenez, azkenik, San Martineko muinoaren magalean pentsatzen hasi ziren. Eraikitako etxe multzoaren erdigune moduan Etxe Soziala hartzen badugu, auzotik herriko plazara 250 metro baino gutxiagoko distantzia dago. Insausti Jauregirainoko distantzia berriz (industrigunea honen inguruetan zegoen), ez da 400 metrora iristen.

Honek herria maldan gora zabaltzea ekarriko zuen. Garai hartan, bere gailurrean zegoen (eta oraindik dagoen) San Martin ermita izan ezik, batere eraiki gabeko lurrak ziren eta, gainera, tontorrean, ermitarekin, erietxe bat jartzeko asmoa zegoen. Gertuen zeuden etxeak muinoaren oinean zeuden lauzpabost baserri ziren. Haien artean, Artxamendi baserria, (gero haurreskola instalatuko zen lekua), Echezuri, Echaluze, Echezabala, Epeldenea...

Ofizialki, Udalak eta Tomas Bilbao arkitektoak, Etxe Merkeentzako lurzoruaren onartze eskaeran²⁷, hauen kokalekua San Martin muinoaren maldan izatea 1926ko maiatzean proposatzen du. Estolderia Etxezuri baserriraino iristen zen, hau auzo berriaren oinetan zegoelarik. Muinoaren altitudea oso osasungarria zen ur zikinen kanporatzea ongi egin zedin. Hainbeste, non bere tontorrean erietxe bat jartzea pentsatzen zen. Aintzakotzat hartzeko baldintza dudarik gabe. Ur hornikuntzarako, berriz, oso toki estrategikoan zegoen, herria hornitzen zuen hodia lurzoru hauen gainetik, hau inguratuz, pasatzen zen eta. Aipatutako eskarian esaten denez, herriak herritar bakoitzeko eta eguneko zuen ur emaria 179 litro omen zen. Etxe Merkeen Legeak eskatzen zuena baino askoz handiagoa.

Datu hauekin guztiekin, proiektuaren zuinketa egiten da eta bertan 23.083,00 m²-ko azalera duen eremua aurreikusten da. Gero, eskrituretatik atera daitezkeen datuen arabera, badirudi neurketa berriak egin eta azalerak aldatu egiten direla, lurzoru bakoitzarena zein, noski, osoarena. Dena den hau da, gutxi gorabehera, lurzoru

²⁷ *Solicitud de aprobación de terrenos...* Azkoitiko artxibo municipal. Signatura: 2431-01

hauengatik sei jabego ezberdinenei ordaindu zitzaizkien kopuruen laburpena (eskrituren arabera)²⁸:

Jabea	Azalera (m2)	Prezioa (pta)
Adrián Zubizarreta eta		
Patricio Epelde	5.446,10	16.000,00
Santiago Epelde	5.124,00	11.000,00
Maria Encarnación Murua	6.242,50	15.918,37
Ignacio Iruretagoiena	1.779,71	4.537,26
Jose Maria Larrañaga	1.550,00	-
Julian Alberdi	2.398,00	5.397,00



Lehenengo hiruren lurrak erostea arazorik gabeko gauza izan zen, baina besteena zintzilik gelditu zen, ez baitzeuden eskaintzen zitzaien prezioan saltzeko prest. Udaletxea desjabetzearen bidea egiteko prest zegoen baina ez zen horretara iristeko beharrik izan. Azkenik, negozioazio batzuen ondorioz, saldu egin zituzten.

²⁸ *Construcción Casas Baratas...* Azkoitiko Artxibo Munizipala, Funts Historikoa. Signatura: 2432-01

SAN MARTIN AUZOA. LORATEGI-HIRIA

Azkoitiko Etxe Merkeen enkargua jaso zuenean, Tomas Bilbao arkitektoa, aurretik beste bost proiekturen esperientziaz bustia zetorren eta hau izango zen egingo zuen azkena. Aurretik eginiko Etxe Merkeen auzoak bezala, ideia berdinarekin jarraitu zuen: lorategi-hiriaren printzipioak erabiltzea auzo berri honen diseinurako. Arkitektonikoki, langileentzako eginiko etxebizitza multzo hauek zerbaitek ezberdintzen baditu, hori gehienak lorategi-hiriaren formaren barruan eginak zirela da. Eta honek, legeak hala gomendatzeaz gain, bere azalpena, garai hartan dentsitate baxuko hiri-antolakuntza honengan ikusten ziren osasun abantailak ziren batez ere.

Urbanizatze mota honen jatorria Ebenezer Howard-ek (1850, Londres - 1928) 1898garren urtean argitaraturiko *To-morrow: A Peaceful Path to Real Reform* (Bihar: Erreforma oso baterako bide baketsua) izeneko liburuak izaniko arrakastan datza. Urte batzuk geroago, 1902an, *Garden cities of tomorrow* (Biharko Lorategi-Hiriak) izenarekin berrargitaratuko zen beste liburu batean. Howard, kazetaria zen, ez arkitektoa ez ingeniaria, eta 21 urte zituela Chicagon bizitzera joan zen 1872an. Bertan kazetari moduan lan egin zuen eta jende interesgarriez inguratu zen. 1876an, Ingalaterrara bueltatu zen eta bertan ere kazetari lanetan aritu zen. Bitartean, sozialista moderatuen korranteetan mugitzen da eta 1879an Webb eta G. B. Shaw senar-emazteak ezagutzen ditu, hauekin bere ideietarako balioko dizkion dokumentazio eta inspirazioa lortzen duelarik. Industrializazioa hirietan eragiten ari zen bizi-balditzen tamalgarritasunaz oharturik, ikerketa sozial sakon bat egiten du eta aipaturiko bi liburuak ikerketa horren emaitza dira.



Howardek lorategi-hiriaren gakoak azaltzeko osatutako eskemetako bi

Iturria: SICA, Paolo. Historia del urbanismo: el siglo XX. Madril: Instituto de Estudios de Administración Local. 1981. 16. or.

Proposamen honen funtsa, hiriak eta landa eremuak dituzten abantailak uztartzea izan zen. Hiriak industria metatzeko gune bezala erabili ziren eta horrek osasun arazo izugarriak ekarri zituen. Horretarako hiru imanen diagrama osatu zuen. Horrekin, industrializazioarekin sortu ziren bi aukeren artean (mendia eta hiria), hirugarren bat jarri zuen. Honek hiriak eta mendiak zituzten alde onak bakarrik izango zituen, alde txarrak baztertuz. Hirietan lan eskaintza, salerosketen erraztasuna eta teknologia berrien erakargarritasunak alokairuen prezio altuak, higie baldintza onen gabezia, auzoen narriadura eta airearen kutsadura zituen kide. Bestalde, mendi eta landa eremuetan errekurtsio ambientalak ustiatu gabe gelditzen dira ekipamendu faltarengatik, bertako bizitzaren pobrezia-gatik eta soldata baxuengatik. Beraz, lorategi-hiria bizitoki eta industria osasuntsu baterako proiektatua izango zen, bertan bizitza sozial bete bat burutu ahal izango zelarik.²⁹

Hirugarren iman hori posible egin dadin, hiri eredu berri bat osatzen du, non, hiriaren egitura pertsonen mugimenduari lotua izango den. Bere proposamena antolakuntza erradiala izango zen, hiritar guztien jomuga diren toki eta egoitzak (administrazioa, etab.) zentroan izango zituelarik eta bizitokiak eta lantegiak, progresiboki erditik aldentzen joango ziren, beti ere berdeguneekin txandakatuz. Azkenik, elkarren artean trenez komunikaturiko hirien hierarkia bat osatzen du. Hiri guztiak hiri nagusi baten inguruetan jarritu. Horrela, hiri edo gune bakoitzak bere azpiegitura bat izango zuen, bere zentro eta guzti, eta bertan gune horri dagokion ekipamenduak izango zituen. Guztia bere analisi ekonomikoarekin osatua aurkeztu zuen baina ez dugu hori hemen aztertuko.

Balore higienisten defentsa oso ohikoa zen urte haietan. Aipaturiko Urbinaren testuan ere, honek etxeen higienikotasuna aldarrikatzen du. Beretzat *Etxe Ona* izango litzatekeena irudikatzean, hona hemen bere hitzak:

«Osasun-diktaduraren erregimen baten barnean, alokairuen prezioak ez dira altzarien luxua kontuan izanik ordainduko (...), baizik eta bere gela kuboa kontuan izanik, bere hutsarteetatik sartu ahal izango den eguzki, aire eta alaitasun kopuruagatik»³⁰

Hondakinak behar bezala kanporatzeko beharrezkoak diren obren beharra ere azpimarratzen du, *«joan behar diren lekura joan daitezten»*. Erreferentzia modura, Ingalaterra eta Holandako gobernuen jarduerak jartzen ditu, puntu hauetara hemen iristea ezinezkotzat jotzen badu ere. Lehenengo kasuan, higiearen inperioaren

²⁹ SICA, Paolo. *Historia del urbanismo: el siglo XX*. Madril: Instituto de Estudios de Administración Local. 1981. 15. or.

³⁰ URBINA, Fidel. *El Problema de la Habitación en el País Vasco*. Eusko Ikaskuntza. Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresua. Donostia: Elkartearen argitalpena. 346 or.

izenean, hiri askotan auzo osoak eraitsi zirela zihoen. Liverpool-en kasuan, 40 urtetan, 22.000 etxebizitza izan omen ziren arrazoi honengatik deseginak. Holandaren kasuan, legediak herriei eraikitzeke eta etxebizitza higienikoak okupatzea debekatzeko³¹ eskubidea ematen ei zien eta etxe bakoitzari bere edukieraren arabera izan ditzakeen gehieneko pertsona kopurua mugatzeko ahalmena. Bere aldarrikapenetan jarraituz, 10.000 biztanle baino gehiagoko hirietarako Fitxategi Sanitarioa proposatzen du. Sistema honen bidez, Jules Siegfrieden³² hitzetan oinarrituz, zera dio: hiri handi batean, gaizki eraiki eta orientaturiko gela askoko etxe batean, 20 urtetako epean, 1.000 bizilagunetatik 75eko heriotza tasa ikusi ahal izan dela. Lorategi eta atzeko patioa zuten etxeen heriotza tasa, denbora epe berdinean, ordea, ez zen 1.000ko 15etik pasa³³.

Langileen auzoen diseinurako Pedro Guimonen ekarpena ere lorategi-hiriaren aldekoa izan zen, kongresu berean. Auzo hauek hiri batek dituen elementuekin hornituak izan behar direla dio, bere plaza, lorategi, kale eta zumardiekin. Filosofia hau defendatzerakoan, Ingelesak erabiltzen ditu erreferentzia moduan. Hegoaldera begira dauden etxebizitzak fatxadak semizirkulu baten kokaturik, etab.

Howarden hiri proposamena aztertuz, ezin zalantzarik sortu, Azkoitiko San Martin auzoa bere lorategi-hiriaren oinarriak jarraituz egina dagoela. Auzo berri hau garai hartako Azkoitia txiki bateko kanpoaldean eraikia izan zen. Bere zentroa Herriko Plaza inguruan zuen, bertan zeuden udaletxea, merkatua eta eliza. Industriegunea ere ez zuen urruti. Era berean, auzo berri hau bere zentro propioaz hornitu zuen auzoko biztanle ororen behar batzuei aurre egiteko. Hori izan zen Eraikin Sozialak izan zuen garrantzia. Lehenik duxak eta geroago haurreskola ere izan zuelarik.

Esan bezala, proiektua bi solairuko familiabakarreko 100 etxe atxikiz osatua dago, proiektuan 99 izan ziren arren. Hauek hiru kalez zeharkatuta (Altuna-Portu bertikalki eta, Balentin Olano eta Idiakez, horizontalki) eta beste hiruz inguratuta daude (Balda, Joakin Egia eta Tomas Larraspuru). Intimitate handiena duen kalea Altuna-Portu dela esan dezakegu, bertara ezin baita ibilgailurik sartu. Etxe Sozialetik beherako zatia eskailerak besterik ez dira baina goiko partea lauagoa eta ibiltzeko errazagoa da. Horrela, sei talde edo etxe-irla handitan banatuta gelditzen dira etxe guztiak, eredu erradiala osatuz. Gehienak, plano horizontalean ilaratan kokatuak daude, lautik zazpira bitarteko multzoetan. Lau talde dira plano inklinatuan, mailakatuak daudenak eta, hauek, auzoaren goiko partean daude. Guztiaren erdian, Altuna-Portu eta Balentin Olano kaleak zeharkatzen diren puntuan, biribilgune bat dago eta, honen erdian Ardatz


³¹ Akatsa dela suposatuz, antihigienikoak esan nahiko lukeela ondoriozta daiteke.

³² XIX. mende amaierako enpresari eta politikari frantsesa

³³ URBINA, Fidel. Op. cit. 356. or.

Elkartea dago, lehen Eraikin Soziala izan zena. Bertan komunitate osoarentzako dutxak eta komunak izan zituen eta, 1931n honen handitze bat egin zen Gipuzkoako Aurrezki Kutxak emandako diruaz baliatuz, haur-eskolatxo bat ere eginez.

Etxe kopuruari dagokionez, egun batean etxe guztiak gaur egungo katastroko planoan banan-banan kontatzea bururatzeagatik dakigu 100 zirela. Azkoitiko artxiboan naiz Posseren *La Casa Propia* liburuan dagoen dokumentazioan ez da ageri behin betiko kokaleku planorik, etxe bakoitzaren eta partzelen mugatze errealak izango dituen. Eta hori liburua proiektua gertutik bizi izan zuen pertsona batengatik 1931n idatzia izan zela, dokumentazio osoa eskuragarri zuenean eta obra amaitua. Gainera, garaiko dokumentu guzti-guztietan 99 etxez hitz egiten da, behin ere ez 100 etxez. Egiaztatze pertsonala izan da benetako errealitatearekin topatzeko bide bakarra gai honetan. Hala ere, eta aipaturiko *La Casa Propia* liburuan jasotzen den planoarekiko ezberdintasuna, bakarra da: Balendin Olano kalearen azpiko lehen lau etxeen ordez, azkenean, bost dira eraikitakoak.




Belturik daudenak dira bosgarren etxea duen taldea

Elaborazio propioa

Baina egin dezagun eskuragarri ditugun planoen azterketa kronologiko txiki bat. Badirudi, hasiera batean, auzo osoaren urbanizazioaren azalera azken batean eraiki zenarena baino handiagoa izateko asmoa egon zela. 1926ko uztailaren 12an Gumersindo Bireben bide-ingeniariak sinatzen duen plano urbanistikoan, azkenean urbanizatzen den azaleraz gain, gaur egungo Joakin Egia kaleaz bestaldean sei etxebizitza kokatzen ditu. Hala ere, etxebizitza guztiak zenbatuz gero, kopurua 99koa zen orduan ere. Udalak, planoak ikusita, hilaren 15ean, San Martineko parkerako gordeta zeuden lurretan eraikitzea erabakitzen du.

Planoak onespenerako bidea hasten du eta, azaroaren 22an, Gipuzkoako Osasun Batzordeak proiektuaren kokalekua onesten du, baina baldintza batekin: parkerako gordeta zeuden lurrak beste batengatik ordezkatuak izan beharko dira. Urte eta erdi

geroago, 1927ko apirilaren 20an, Birebenek beste plano bat aurkezten du. Plano honek “Parque contiguo a las Casas Baratas” du izenburutzat. Azken finean, plano hau parkerako proiektukoa besterik ez da eta ez du berezko lotura esturik. Baina bertan, Etxe Merkeen multzoa eta parkea ageri dira eta hau lehen aipaturiko sei etxeak zeuden lekuan hasten da, Joakin Egia kaleaz beste aldean. Parkea, bi zatitan bananduta, oraingo Balendin Olano kalearen luzapen hipotetiko batek zatituko balu bezala, gelditzen zen, beste bi etxe-irla bailiran. Hemen ez da posible etxeak kontatzea, beraz, ez dakigu data honetarako pentsatua zegoen etxetxoen banaketa zehatza. Baina, ongi begiratuz gero, argi ikusten da txantilo modura lehen azaldutako plano (1926ko uztailaren 12koa) erabili zela, Joakin Egiaz beste aldeko etxeak kenduta soilik. Pentsa daitekeena zera da: plano hura parkearen arazoa gainditzeko soilik izan zela marraztua eta gerorako utzi zela etxe guztien kokapena zehaztea.



Etxe Merkeen plano urbanistikoa

Iturria: Azkoitiko Artxibo Municipal. Funts Historikoa. Sig.: 2432-01




Etxe Merkeen ondoko parkea

Iturria: Azkoitiko Artxibo Municipal. Funts Historikoa. Sig.: 2432-01

Ondorioz, sei etxe haiek eta beste bat, gaur egun ezagutzen dugun azaleraren barruan sartuko zituzten nonbait, azkenik 100 eraiki baitziren, esan dugun bezala.

Azaldutako guztiaz gainera, errealitatera gehien hurreratzen den plano kontuan izanik, hau da, Possek jasotakoa, bi garbitoki zituen bere perimetroan. Bat auzoaren puntu gorenean kokatua (gaur egun San Martin Mikologi Elkartearen egoitza dena).



Errealitateari gehien hurbiltzen zaion plano urbanistikoa

Iturria: POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaina. 1931.

Bestea, aldiz, auzoaren puntu beheerenean, Balda Kaleko 1.go zenbakidun etxearen aurrean hain justu. Auzokide baten testigantza baten arabera, ordea, garbitoki hauek hiru omen ziren. Litekeena da hirugarren hau Etxe Sozialean bertan egotea, funtzio hau ere betetzen zuelako.

Kontuan izan beharreko datu garrantzitsu bat auzoaren okupazio ahalmenarena da. Etxe bakoitzak hiru logela zituen lehen solairuan, bakoitzean bi pertsona sartu ahal izateko pentsatuak zeudelarik eta, etxabeen berriz, gela bat egongela edo logela izan zitekeen, familia bakoitzaren beharren arabera, pertsona batentzako modukoa. Beraz, etxe bakoitzeko, zazpi pertsonako gehieneko okupazioa ahalbidetu zuten. Hau da, auzoak gehienez, 700 pertsonentzako alojamendua eman zezakeen. Eta familia guztiak ez baziren hain ugariak ere, ongi profitatuak izango ziren. Benetako oxigeno baloia, hainbesteko biztanle gorakada jasan zuen herriarentzat.

Aipatu beharra dago, urbanizazio berri honen barruan, etxe merkeetakoa ez zen etxe bat barneratua izan zela. Etxe hau, Iruretagoiena Jaunarena zen, gaur egun Torria-Etxea izentzat duena dagoen lekuan. Eta bertan zegoen proiektu hau aurrera atera baino lehen. Jaun hau izan zitekeen auzoa eraiki ahal izateko erosi behar izan ziren lur ataletako baten jabea, Ignacio Iruretagoiena. Hiru solairuko etxe eder honek, bertan dirau oraindik, hori bai, birmoldaturik edo berriturik.




Trenaren gaineko igarobidearen planoa

Iturria: Azkoitiko Artxibo Munizipala. Funts Historikoa. Sig.: 2432-01

Konexioen aldetik, auzoa bi irisbiderekin lotua gelditzen zen. Horietako bat, urbanizazioaren ipar-ekialdean gelditzen zen. Geroago egingo zen beste bideak auzoa herriaren erdigunearekin lotzen bazuen, honen orientazioa Insausti Jauregiaren inguruetan zegoen industrialde handira zuzenduago zegoen. Bide hau maldan behera zihoan errepide nagusiarekin topatu arte eta orduan ibilgailurik inork izango ez bazuen ere, bidea hauek ere igotzeko modukoa zen, zabala eta egokia.

Besteak proiektu propioaren beharra izan zuen eta hau 1927ko apirilaren 30ean izan zen aurkeztua. Martxan bi urte inguru zerraman Urolako Trenaren burdinbidearen gainetik pasatzen zen. Igarobide hau auzoaren ipar-mendebaldean zegoen. Zumaia eta Zumarraga arteko errepidean hasten zen, Tomas Bilbao berak proiektatutako merkatuaren paretik eta 20garren hamarkadan altxatutako Olimpia Aretoaren ezkerraldeetik hain justu. Areto hau jada eraitsia dago³⁴. Bere lekuan, lan hau burutu bitartean, zazpi solairuko etxebizitza eraikin bat eraikitze prozesuan zegoen. Gero, eraikin honen atzetik igarotzen zen trenbidea zubi batez gainetik pasa eta eskailera sail bat hasten zen auzoaren lurak eusten zituen hormaren oinetara iritsi arte. Azkenik, bertan gelditzen zen altuera salbatzeko, euste-hormari itsatsitako bi eskailera hasten ziren. Bat alde bakoitzera.

Pasabide hau izan zen auzoak izan zuen oinezkoentzako sarrera nagusia, baina hau erabiltzeko 1928 arte itxaron beharko zuten, etxeak 1927an bukatu zirenetik. Bitartean, bide aldapatsua erabiliko zela ondoriozta dezakegu. Gainera, teileria hornitzen zuen funikularrak edo plano inklinatuak Olimpia Aretoaren atzean zuen bere bidearen hasiera, Urolako Trenaren ondo-ondoan, bertan antolaturiko nasan deskargatzen baitzen teileria igo beharreko eta auzoaren eraikuntzarako ekartzen zen material guztia. Funikularra desegin arte ezinezkoa zen igarobidea eraikitzea.



San Martin auzoa eraiki zeneko argazki zahar bat

Iturria: Azkoitiko Artxibo Munizipala. Funtz Historikoa. Sig.: 2431-01

³⁴ "El edificio Olimpia, erigido en los años 20, fue derribado ayer". El Diario Vasco. 2009/02/01


ETXEEN ANALISI KONPOSITIBO BAT

Dakigun bezala, ez zen lehen aldia izan Tomas Bilbaok honelako Etxe Merkeen proiektu batean sartua ikusten zuena bere burua. Eta San Martinekoak marrazten ari zen bitartean, Bizkaia aldeko asko oraindik amaitzeaz zeudelarik, azken ekitaldia izango zen honetara, esperientziarekin zetorren. Ekonomia estu baten ondorioz ziurrenik, bi solairuko txalet atxikien formula erabiltzea erabaki zuen. Horrela lurzoru berdinean etxe isolatuak edo bifamiliarrak eraikita baino azalera bizigarri gehiago eraiki ahal izango zen eta, era beran, berdegune atal bat mantendu. Etxe batzuk besteek baino lorategi edo baratze gehiago izanda ere, guztiek dute zati duin bat. Aurreko terrazen kasuan ere, etxe batzuk beste batzuk baino handiagoa dute. Honetan kaltetuenak Balendin Olano kaleko zazpi etxeko multzoa dira, aurreko lorategi gabe geratu baitziren.

Etxe guztiak atxikiak daude. Baina ez dute, kasu batean izan ezik, beraien artean angelurik sortzen. Lerro zuzenean daude denak kokatuta, irletako erpinetan atxikiak izan gabe. Etxeak bi isuriko teilatuaz estaliak daude, frontoirik osatu gabe (salbuespenekin), lerro bereko guztiek estalki luze bat osatuko bailute. Hau ez da horrela gertatzen mailakatutako etxeetan, noski. Kantoiko etxeek, beraien perimetroa osatzeko, hirugarren isuria dute. Orokorrean denak dira simetrikoak bere hurrengoarekiko.

Proiektuari jarraiki, hiru dira etxe motak: A, B eta C; eta hauek dira bakoitzeko zenbatekoa:

- A motakoak: 46
- B motakoak: 25
- C motakoak: 22
- Bereziak: 7 (Hauek, Tomas Larraspuru kalekoak denak, bi moten arteko konbinazioa dira eta ez daude proiektuko planoetan).



A, B eta C motako etxeak planoak irudikaturik
Elaborazio propioa

Barru banaketa




Etxearen espazioak, bi solairu izanik, estantzia bakoitzaren funtzioaren arabera oso garbi banandutakoak dira. Horrela, etxabea familiako kide guztiek erabiliko zuten espazioetara zuzendua dagoen bitartean, lehen solairua logeletarako erreserbatua gelditzen da. Behean eguneko ekintzak eta goian, batez ere, gauekoak.

San Martineko etxe guztiak orokorrean, proiektuari kasu eginez, hiru motatakoak dira: A, B eta C. Hala ere, proiektutik irten eta errealitatea begiratzen badugu, geroxeago ikusiko dugun bezala, salbuespenak daudela konturatuko gara. Izan ere, badaude, fatxaden konposizioaren aldetik, proiektuarekin bat ez datozen berezitasunak. Eta ez dugu jakingo aldaketa hauek proiektuaren eranskin berri moduan baimendutako aldaketak izango diren ala denboran inprobisaturik “in situ” hartutako erabakiak, ez baitugu dokumentazio osoa eskuratzeko modurik izan.

Denek dute banaketa orokor berbera. Hiru motatako etxeak izanik, guztiek barne antolakuntza berbera konpartitzen dute, ezberdintasun nagusia azaleretan dagoelarik. Hau da etxe guzti-guztiek originalki duten banaketa (denboran zehar birmoldaketak jasan dituzte beraietako askok):

- Etxabea: sukalde-jangela, komuna, egongela edo logela bat, eskailera eta honen azpiko trasteleku bat.
- Lehen solairua: Bi kiderentzako moduko hiru logela eta arropategi edo trasteleku bat (hau B eta C motako etxeetan soilik).
- Teilatupea: lehen solairutik tranpatxo baten bitartez sartzen den ganbara txikia.

Hiru motatako etxeek duten ezberdintasun garrantzitsuena hauek lurzoruari egokitzeak eragindakoa da. Hau da, auzoa lurzoru maldatsuan eraiki zenez, etxeak malda honi egokitu behar izan ziren. Hau izan zen, dudarik gabe, baldintza nagusia hiru



A, B eta C motako etxeen oinplanoak hurrenez hurren

Iturria: Azkoitiko Artxibo Municipal. Funtz Historikoa. Sig.: 2431-01

mota hauek diseinatzerako orduan. Kontuan izan behar da, gainera, etxe guztiak irletan antolaturik egon beharrak, A eta B moten artean (biak horizontalki jarriak), alde batekoen orientazioak beste aldekoena guztiz alderantzizkoa izatera behartzen zuela. Fatxada printzipala iparraldera begira dutenek, hau da, A motakoek, atzeko fatxada lehen solairuan bakarrik dute. B motakoetan berriz, irlako beste aldean, fatxada nagusia da beheko solairu gabe gelditzen dena, hau lurraren kontra gelditzen baita. C motakoak, lurzoruaren plano inklinatuan, malda handienaren zentzuan izan ziren lerrokatuak. Beraz, mailakaturik ezarriak izan ziren, eskailera moduan. Honek bai aurreko eta bai atzeko lurzoru maila kota berean izatea ahalbidetzen zuen eta bi fatxadetan bi solairuak dituzte ikusgai, honek ematen duen argi naturalaren abantailekin, eta etxerako sarrera etxabetik egiten delarik.

Funtsean, A eta B motako etxeen barru banaketak guztiz berdinak dira. Aldatzen dena, lehen azaldu ditugun arrazoiengatik, etxeko sarreraren kokapena da. Batek sarrera nagusia duen lekuan besteak atzeko atea du eta alderantziz. Honek fatxaden konposizioan ere badu eragina baina geroxeago aztertzeke utziko dugu. A-ren kasuan, sarrerak sukalde-jangelaren ondoan du lekua, logikak agintzen duen moduan. B-ren kasuan, ordea, sukaldea etxeko sarreratik urrutien dagoen gela da, etxera sartu eta, logela artetik, maila bat jaitsi behar delarik bertara iristeko. Hau eragozpen handia izanik, badu bere abantailatxoa ere, izan ere, sukalde ondoan du atzeko patiorako irteera, A motakoetan solairu bat igo behar den bitartean bertara iristeko.


Barru banaketan onuradunenak C motako etxeak dira. Hauek, esan bezala, lursail lauan daude eraikita eta, beraz, bai aurreko aldera eta bai atzeko patiora etxabetik dute irteera. Horrela, goiko solairura logeletara joateko beste ezertara ez da igo behar. Sukalde-jangelaren kasuan, atzeko fatxadaren erdia gutxi gorabehera metro eta erdi inguru aurreratua izateagatik, azaleran eta argitasunean irabazten du.

Etxe guztietan gelarik handiena sukalde-jangela dugu, batez ere C tipoko etxeetan. Gehien zapaltzen dena izanik, eta orduan familiari ematen zitzaion garrantzia kontuan izanik, etxeko zentroa da dudarik gabe eta familiaren topaleku garrantzitsuena da. Bertan topatzen dira kide guztiak: lanerako, jatekoa prestatzeko zein otorduetarako.

Etxeen azalera erabilgarriak 80 eta 90 metro karratu ingurukoak izango dira, gutxi gorabehera, solairu bakoitzak 40 edo 45 bat metro karratu izango dituela kontuan izanik. Mota batekin ere bat egiten ez duten Tomas Larraspuru kaleko etxe horien artean, 6a izango litzateke kaltetuena. Erpinean kokaturiko etxe bakarra izateagatik, bere azalerak, zabalera berdineko fatxada edukirik, trapezio forma duelako.

Fatxadak

Aurreratua izan den bezala, fatxaden konposizioan ere badu eragina hiru motatako etxeak izateak. Printzipioz, salbuespenak izan arren, mota hauek izango dira aztertuko ditugunak. Hiru motetako etxeen fatxadek eskematikoki bat egiten dute orokorrean. A eta C motako etxeen aurreko fatxadak guztiz berdinak



A, B eta C motako aurreko eta atzeko fatxadak hurrenez hurren

Iturria: Azkoitiko Artxibo Munizipala. Funtz Historikoa. Sig.: 2431-01

dira. Beraien guztien arteko ezberdintasunak lurzoruak eragindakoak dira. Arau

modura, bi solairuak agerian dituzten fatxadetan etxerako sarrera (aurrekoa zein atzekoa) eta hiru hutsartez osatuak daude. Hutsarte hauen artean, A eta B motakoetan, bi solairuak dituzten fatxadetan sarrerako atearekiko diagonalean, balkoia dute. Honek A motakoek aurrean eta B motakoek atzean edukitzea dakar. Beste bi hutsarteak leihoak dira eta beheko solairukoa benetan handia.

Possek dioenez, ataria oso garrantzitsua zen familia haietan, Azkoitiko lanbide nagusia zen abarketagintzan, langileek beharra etxera eramatean, bertan egiten baitzuten lan.³⁵

C motakoen kasuan, atzeko fatxadan bost leiho ditu. Fatxada honen erdia aurreratua izateak atea bi atal horien artean perpendikularki kokatzea onartzen duenez, azalera gehiago uzten du barrua argiztatzeko.

Hutsarteen motei dagokienez, mota guztietako etxe guztiek arau berdina jarraitzen dute beraien tipologietan: atzeko fatxadetan, huts guztiak laukiak dira eta aurrekoetan ate guztiak eskuharriz egindako zirkulu erdiko arkudunak. Leihoen artean, B motakoek beraien fatxada printzipaletakoak ere tipo bereko arkuaz koroatuak dituzte. Material hau, eskuharria, izkinetan dauden etxeen ertza hornitzeko erabilia ere bada. Beste bi motako etxeen leiho laukiek, ordea, eskuharriaren imitazioa dute beraien

³⁵ «En Azcoitia, por la característica de su trabajo, se ha convertido en taller de alpargatería donde la familia desenvuelve sus actividades productoras». POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaína. 1931. 45. or.

ingurabidean. Honez gain beheko solairuko gelen airea berritu ahal izateko leihotxoak dituzte hauen goiko partean, lurren ezpondaren aldeko fatxadan.

Balkoiak nahikoa hornituak suertatzen diren elementuak dira. Beraien zoruak agerian ditu azpiko zurezko habexken hegala eta motibo sinple batez tailaturik beraien buruak. Sekzio karratuko zurezko barandak dituzte eta balkoien erpinetan sekzio handiagoko zurezko posteak daude beraien gaineko teilatuaren hegada eusteko. Hauek, zurrungarri moduan, taila sinple bateko beso batzuk dituzte eskuairak osatuz beren goiko muturrean. Ondoko bi etxeen balkoiek bat egiten duten puntuan banaketa trenkadatxo bat daukate intimitatea babesteko asmoz.

Leiho eta balkoiek zurezko kontraleihoak dituzte. Zurezko atal guztiak pintatuta daude. Koloreen artean, orokorrean, kohesioa mantendu nahi izan da gertukoenen artean. Nagusi direnak marroia, beltza, urdin argia eta berdea dira. Kolore hauek dira originalak izatearen probabilitate handiena dutenak. Bestalde, balkoien mailatik hasi eta estalkiperaino mugatua gelditzen den fatxada zatia ageriko adreiluz hornitua dago. Adreilu piezak gorriz eta junturak zuriz pintatuta daude. Ate eta leihoen eskuharriak eta beraien imitazioak gris koloreaz margotuak dira eta junturak zuriz. Elementu horiez guztiez gainerako azalera osoa zuritutakoa da etxe guztietan.

Salbuespenekin hasteko, Altuna Portuko lau frontoiez hitz egingo dugu. Kale honen Etxe Sozialetik gorako partean lerro guztiaren erdian alde bakoitzean bi frontoi daude, bakoitza etxe bateko balkoiaren gainean, beraien artean frontoirik gabeko etxe baten tarte dutelarik. Etxe hauek esandako kaleko 7, 8, 11 eta 12 zenbakidunak dira. Frontoi hauek ez daude eskuragarri ditugun planoetan, beraz ez dakigu nola planeatu ziren. Nolabait kale honi garrantzia eman nahiko zitzaien. Kale pintoreskoena da, estuena eta intimoena, bertako zirkulazioa oinezkoentzat bakarrik baita irekia.

Azkenik, Tomas Larraspuru kaleko zazpi etxeen fatxaden arteko albuespenak ditugu. Etxe hauen fatxadak, alde batetik, A, B eta C moten arteko nahaste baten emaitza ditugu; bestetik, proiektuan inon jaso gabeko aldeak dituzte. Kale honetako 1etik 5erainoko etxeen aurreko fatxada A edo C-rena izan daiteke, baina ezberdintasunekin. Goiko solairuan, balkoia beste guztiek duten modukoa izan beharrean hegali gabekoak dira. Atea eta bere arotzeriari itsatsiriko baranda besterik gabe. Beste etxeen balkoiek okupatuko luketen azaleraren perimetroan egurrezko armazoiaren imitazioa dute eta atzealde zuria. Hauek balkoien habeen hegala egongo liratekeen lekuan sinpleki tailaturiko habeburutxo batzuk liratekeenak dituzte jarriak apaingarri moduan eta armazoiaren kolore berdinean pintatuak. Urdinez zein berdez.

Atzeko fatxada C eta B-renak nahastutakoa litzateke. Beheko solairukoa C-rena eta goikoa B-rena litzateke gutxi gorabehera. Etxabeko fatxadak, erdia aurreratua duenez, goiko balkoia honen gainean jarri eta bere estalki moduan egiteko moldatua izan behar zen. Honek B motakoek dutena baino balkoi txikiagoa eman zuen. Eta bertara irteteko

atea B motakoekiko ere tokiz aldatua izan zen, balkoia txikiagoa zenez, erdian kokatzeko. Badirudi aurreko fatxadan balkoia jartzeak ez zuela zentzu handirik. Alde batetik, hormara begira egongo litzakeelako eta bestetik, eguzkiaz gozatzeko alde posible bakarra atzeko fatxadan zegoelako, ekialdea.

Balkoien aldetik pribilegiatuenak ordea, 6 eta 7 zenbakikoak dira. Bi etxe hauek dira bi fatxadetan balkoia duten bakarrak, San Martin auzo osoan. Atzeko fatxadak kaleko beste bostek duten bezalakoak dira eta aurrekoa A edo C-rena bezalakoak, bere ageriko adreilu eta guzti.

Estiloa

Agian, Tomas Bilbaok ez zituen beste leku batzuetan egindako Etxe Merkeak edertu zituen bezala egin hemengoak. Hor ditugu Zurbaran eta Arabella adibide moduan. Egia zen baita ere, baina, horiek biak kritika latzak jaso zituztela klase ertainarentzako moduko etxeak zirelako eta aristokraziarenak ziruditelako. San Martinen ez, hemen ahalik eta familia gehieni eman zitzaion aterpea. Etxeak ez dira txikiegiak, baina handiak ere ez. Gauza ziurra da Azkoitian oso ekonomia estua erabili zela aurrera eramane zen enpresa ahalik eta errentagarrien irteteko. Eta kanpoaldeari dagokionez ez zuten espazio handiegia izan apainduretan luzitzeko.

Hori kontuan izanik, ezin dugu ez, Azkoitiko Etxe Merkeak itsusiak, apaingarri gabeak edo aspergarriak direnik esan. Guztiz aurkakoa. Etxetxo txiki eta atxikiak diren arren, arkitektoak, beraien kanpoko fatxada estu eta mugatu horien itxura modu harmonizatu batean hornitzen asmatzen du. Ateen eta leiho batzuen arkuak, beraien eskuharriaren imitaziozko inguramenduekin, borondate hau erakusten dute. Eta, nola ez, balkoien edertasuna. Hauek okupatzen duten espazioa berezia da. Zurezko pieza sinplez osatua eta beraien adreiluz ezberdinduriko horma. Adreilu margotuak bizitu egiten du gunea eta, kolore ezberdinetako zurak, ere bai. Guztia karesnez margotutako atzealde zuriarekin.

Esan daiteke hornidura konbinazio honek neoeuskaldunetik edo euskal erregionalismotik datorren eragina duela. Hau etxeak egin ziren garaian puri-purian zegoen eta Etxe Merkeak egiteko erabili zen estilo nagusituena izan zen. Esan bezala Tomas Bilbaok, ez zituen beste leku batzuetakoak bezainbeste kargatu hornidurari dagokionez. Baina badaki nola apaindu Etxe Merke atxiki batzuk barrakoi lisoak irudituz ez ditzaten. Adibidez, estilo hartakoak dira “txoritokiak”, dekorazio-suhesiak, izkina zilindrikoak eta teilatu gainean erpinetan jartzen ziren pinakuluak (jauregietan batez ere). Hemen ez dago horrelakorik, baina bai binaka jarritako eskuharri imitaziozko arkeriak, frontoi batzuk eta armazoiaren imitazioen bat. Gainera, kolore printzipala karesnez margotutako horma izatea indikatibo nabarmena da. Hori izan daiteke gure baserrien ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Arkitektoa ur horietan mugitzen zela

nabaria da. San Martineko etxeak neoeuskaldunaren bertsio xumeetako bat bezala sailkatzea ez legoke guztiz lekuz kanpo.

Garai hartan, bere baldintza higienikoengatik, alde batetik; eta langilearen familiarentzako etxebizitzarik egokiena zela iruditzen zitzaielako bestetik, familiabakarreko etxeak bultzatzen ziren. Eta Euskal Herrian, erregionalismoaren korrontearen baitan burgesiarentzako etxeak estilo honetan egiten ziren, batik bat Bizkaian. Etxebizitza mota honetarako Euskal Baserrian eredu bat ikusi zen. Ez da kasualitatea Pedro Guimonen ustez baserria eskulangile-etxearen eredua izatea.³⁶

Zentzu honetan, Joaquin Yrizar azkoitiarraren ekarpena ere aipatzekoa da. 1920an arkitekturan lizentziatu zelarik, 1929an *Las Casas Vascas: torres, palacios, caseríos, chalets, mobiliario* liburua argitaratu zuen, ordura arte euskal etxeari buruz hark egindako ikerketen bilduma garrantzitsu bat zelarik. Bertan jasotako ikerketa horietako bat 1924an Eusko Ikaskuntzaren ekitaldi baterako prestatutakoa zen eta izenburutzat *Ensayo sobre el problema arquitectónico vasco* zuen.³⁷

Dokumentu horretan, euskal arkitektura erregionalista denboran zatitutako bi fasetan banatzen du, tartean I. Mundu Gerra kokatuz. Lehenengoan, Iparraldean izandako euskal arkitektura tradizionalerako itzulerak eraginda, gure kostaldean ere antzina gure mendietan zabaldurik zeuden euskal baserrien irudia gogoraraziko diguten etxeak ikusiko ditugu. Yrizarren aburuz, hauek edonola kopiatutako elementuez josiak eta beraien arteko koherentziarik gabe jarriak izan ziren. Bigarren fasea, berriz, guda ondoren etortzen da eta hau izango da garrantzitsuena, honek ekarriko baitu balore artistikoen berrazterketa. Neoeuskaldunaren etiketa jar diezaiokegun eraikinak bigarren fase honen jarraipena direla esan dezakegu.

Egitura eta materialak

Atal honetan azaldutako egitura eta materialak proiektuaren memoria deskriptiboari kasu eginez landuak daude, batez ere. Baita ere beste dokumenturen bat, hala nola, Posseren *La Casa Propia*. Datu hauei bertan norbere begiekin konparatu ahal izan diren datu orokorren bat gaineratzen zaie. Barnealdeei dagokienez, aldaketak nabarmenak eta anitzak izan dira etxe guztietan. Beraz, luzeegia litzatekeenez eta interes hierarkia bati jarraiki, originalki eginak izan ziren moduez gain, nolako bilakaera izan duten aztertzea baztertzen da.

³⁶ GUIMÓN, Pedro. *Casas Obreras: aisladas o agrupadas; en el campo o en la ciudad. Hospederías, hoteles, casinos obreros. Colonias y barrios obreros*. Eusko Ikaskuntza. Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresua. Donostia: Elkartearen argitalpena. 376 or.

³⁷ ORDOÑEZ Vicente, María. *Una aproximación al estudio de la arquitectura regionalista en Guipúzcoa*. Ondare, 18 zbk. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999. 183-241. orr.

Hormigoia garai hartan oso material berria zen arren, proiektuaren memoria deskriptiboan zimenduak hormigoizkoak izan behar direla jasotzen da: «*zangak hormigoiez beteko dira zapatak osatuz eta hauen oinarriek 3kg/cm^2 -ko esfortzua baino handiagoa jasango ez duen adinako zabalera izan beharko dute*». Hala ere, testu hau kontrajarria da Posseren *La Casa Propia* liburuarekin, bertan zimenduak eskuharriz eginak direla azaltzen baita. Gainera, auzoko etxe bateko erregistro bat altxatuz ikus daitekeenez, horrela eginak direla dirudi.



Eskuharrizko zimenduak

Iturria: Elaborazio propioa

C etxeen etxabeko solairuak gapirioetan finkaturiko adreilu mehez osaturiko gangatxoizkoak dira. A eta B motakoek hormigoizko zolarri bat dute eta hiru motakoek gaina lauzatua dute. Etxea lurraren hezetasunaz babesteko 2 cm-ko asfaltozko kapa bat jartzen da beheko solairuan lurrarekin kontaktua duen puntu guztietan.

Fatxadak osatzeko erabilitako materiala adreilua da. Hauek azta osokoak dira etxabearen solairu osoan. Goiko solairuan, ordea, proiektuari kasu eginez, adreilua agerikoa duen balkoiaren eremua osatzen duen fatxada zatia, adreilu trinko mehez eginiko azta erdiko horma da. Honek, barrutik, beste trenkada bat izango duelarik gainerako atalen zabalera bera lortzeko. Fatxaden errebokoak morteroa eta gainetik karesnea zabalduz eginak dira. Atarien ingurabideak eta leihoak eskuharriz eginikoak dira. Arkurik gabeko leihoburuetan T bikoitzak edo haritza kokatzea gomendatzen zen proiektuan, hormigoiez ere egin zitezkeelarik. Sukaldeko leihoak beheko partean tranpadura bat izango zuen. Gaur egun ez dira asko geratuko ziurrenik, baten bat bada.

Goiko solairuak gainera, zurezko armazoa du. Hau, beti ere proiektuaren arabera, haritzeko zutabe eta habez eta material bereko zapata sendoz osatua dago. Zutabeak 0,18 x 0,18 cm-koak eta habeak 0,24 x 0,18 cm-koak dira.

Kanpoko mihizatzea pinu gorriarekin egingo zen. Balkoietan, barandak pinuarekin eta postetxo eta frontalak pinu kanariarrarekin edo haritzarekin egingo ziren. Hauek zoruak 5 cm-ko marmol konprimituekin amaituko ziren gapirioen hegalean.

Barrualdeetan, sarrera osatzen duten hormak eta tarte-hormak azta erdikoak dira. Bestalde, trenkadak igeltsuz jasotako adreilu mehez eginak dira eta barnealdeko paramentu guztiak mortero eta igeltsuz luzituak dira. Sabaiei dagokienez, bi solairuetan sabai izunak gauzatu ziren.

Solairuak haritzezko gapirioz eginak beharko litzatekeen lauzatuak dauden azaleratan eta pinu gorritz besteetan, ardatzen arteko tarteak 0,50 metrokoa izango zelarik bi kasuetan. Lauzatuak izango ez ziren lurrak Holandako pinuaz eginiko oholza mihizatua zuten. Bestalde, etheen sarreretako mailak 0,30 x 0,18 cm-ko harri artifizialez eginak izan behar ziren.

Estalkipearen egitura, berriz, pinu gorritzko armazoiak eginak dago, honen gainean taulak eta hauek, era berean, teilak eutsiko dituen listoiak izango dituelarik gainean kokatuak. Teila hauek lauak behar luketela dio. Gaur egun denak edo ia denak arabiarrek dira, ezin jakin lauak jarri ziren hasiera batean. Erretenak, nabak eta bizkarrak eta tximini inguruak zinkezkak izango ziren. Baita ere euri ura kanporatzeko zorrotzenak ere.


Eskailerek metro bateko zabalera izan behar lukete. Bere mailak haritz lehorrezkoak eta eskudelak intxaurrondozkoak.

Sukalde, komun eta sarreran alikatatuak 1,20 metroko altura arte estaliko zituen hormak. Zoruak lauzazkoak izango ziren. Sukalde-jangeletan, sukalde eta harraskaren ingurua alikatatua izango zen horma babestua gelditzeko. Sukaldea “ekonomika” izango zen eta harraska 0,90 x 0,60 cm-ko marmol konprimituzkoa. Komun eta harraskaren isurbideak gresezkoak eta sifoidunak izango ziren eta komunetakoak, gainera, estalkiaren altueraraino iritsiko zen aireztatze-hodiak izango zituen.

Eraikin soziala

Eraikin Soziala auzoaren zentroan kokaturik zegoen eta bertako biztanle guztiei zerbitzu batzuk eskaintzera zuzendua zegoen. Garrantzitsuena, higienearekin lotua zegoena eta etxe barrura oraindik iritsi gabekoa zen: dutexak eta bainuontziak.

Hemen, hasiera batean eginiko proiektua eta azkenean egindakoa ez datoz bat. Hasteko, Azkoitiko Artxibo Muzipaleko planoetan (1927an sinatuak) Tomas Bilbaok bi solairuko eraikin eder eta ongi apaindua marrazten du. Hala ere, oraindik bertan dirauen eraikinak etxabea besterik ez du eta badakigu beti izan dela horrela. Gainera, beraien fatxadek ez dute zerikusirik, beraz, proiektu hartako eraikina ez zen inoiz errealitate bihurtu.



Eraikin Sozialaren proiektua

Iturria: Azkoitiko Artxibo Munizipala. Funtz Historikoa. Sig.: 2431-01

Bestetik badakigu, 1931. urtean, eraikin originalak handitze bat izan zuela. Handitze proiektu hau³⁸ Joaquín Yrizarrek, herriko seme eta arkitekto garrantzitsuak, trazatua izan zen³⁹. Artxibategian jaso dago eta bertan marraztua dagoen eraikina gaur egun existitzen denaren berbera da. Itxiturak bai bederen, gaur egun elkarte batek erabiltzen baitu eta barrua guztiz eraldatua izango da ziur.

Interesgarriena Bilbaok diseinaturiko proiektu hura litzateke. Etxebizitzek, lehen esan bezala, neoekuskaldunaren karga handirik ez zuten beraien fatxadetan. Hemen, aldiz, nabarmenki ikusten da gunee honi eman nahi zion garrantzia. Hornidurei dagokienez, fatxada printzipaleko hutsarteak arkuz josten ditu. Etxabea, ataria osatzen duena, aterpe eta guzti, benetan handia da eta hiru koskaz osaturiko eskailera izango zuen sarreran. Honek, bere bi alboetan burdin forjatuz ongi apaindutako leiho lauki bana izango zituen. Goiko solairuan berriz, fatxada nagusia alderik alde okupatuko zuten bost arkuz osaturiko balkoi estali edo galeria izango zuen. Arku sail hau eta beraien arteko tartetxoak ageriko adreiluz osatuak izango ziren. Goiko solairu honi, garrantzia handiagoa eman nahian edo, dekorazio-suhesiak jartzen dizkio alde banatan fatxada mugatuz. Guzti honen gainean, zurezko armazoizko frontoia.

Atzeko fatxadaren ezaugarri deigarriena, teilatuekin egiten duen jokoa da. Atzetik ere eraikinera sartzeko beste arkudun atetxo bat izango zuen. Hau apaindurarik gabea izango zen, ordea. Ate hau goiko solairuko fatxada lerroa baino aurreratuagoa kokatzen du eta estali beharreko azalera handiagoa sortzen duenez, honentzako abaniko formako estalki bat jartzen dio bost isurirekin. Hegala zurezko bi zutoinekin eusten du eta bi beso ditu eskuairak osatuz. Honen gainean ere bada aurreraturiko fatxada zati bat, arkudun leiho txiki batekin. Hau ordea txikiagoa da baina bere estalki zatia ere badu eta guztiek batera itxura erakargarria osatzen dute. Guzti honen atzean,


³⁸ YRIZAR, Joaquín de. "Ampliación pabellón de baños" (1931). Azkoitiko Artxibo Munizipala. Funtz Historikoa. Signatura: 1016-06. Kodea: 253

³⁹ Ikus 50. orrialdean berari buruz aipatutakoa.

fatxada zortzi leiho laukiz hornitua izango zen eta perpendikularki gelditzen ziren bi fatxada zatietan, bana.

Alboetako bi fatxadak simetrikoak azaltzen dira. Beheko solairuan eskuharririk gabeko hiru leihotxo arkudun daude ilaran elkarren ondo-ondoan eta zentraturik. Goian, berriz, dekorazio-suhesiz babestutako balkoia bere teilatu hegalarekin eta zurezko barandarekin. Perimetro guztiaren oinaldea harlangaitzez apaintzen du.

Espazioen aktibitateei dagokienez, beheko solairuaren erdian eskailera kokatzen du. Bere bi aldeetan gizezkoen eta emakumezkoen dutxa, bainuontzi eta konketak jartzen ditu eta atzeko fatxadatik garbitokira sartzen da, hau independizaturik. Goiko solairua areto sozial ireki bat bezala uzten du bere komun eta guzti.



Eraikin Sozialaren handitze proiektua

Iturria: Azkoitiko Artxibo Munizipala. Funtz Historikoa. Sig.: 1016-06 Kodea: 253

Askoz sinpleagoa izan zen azkenean altxatu zena. Ez dakigu zergatik ez zen eraiki Tomas Bilbaoren lehenengo proiektua, naiz eta ziurrenik, ekonomia izango zen arrazoi nagusia edo bakarra. Jatorrizko planorik ezean, Joaquín Yrizarren handitze proiektuari erreparaturik gero, eta arrosa kolorez marraztuak dauden gelak handitzearenak direla suposatuz, hasieran alde bakoitzean bi bainugela eta komun bat besterik ez zituela ikus dezakegu. Handitze proiektuan, berriz, beste bi bainugela eta bi dutxa gehitzen zaizkio. Beraz, bai gizezkoek eta bai emakumezkoek, lau bainugela, bi dutxa eta komun bat izango zituzten. Honez gain, alde bietako batean, armairu bat, ur-berogailuaren gela eta ikatzarentzako armairua izango ziren. Guztia ia-ia forma karratuko oinplanoan.

Fatxadak etxebizitzaren modu bertsuan amaituak dira. Fatxada nagusiak sarrerako atea eta alde banatako leihoak ditu. Denak arkudunak eta grisez margoturiko eskuharrizko ingurabidearekin. Alboetako fatxadek ordea, batek lau leiho zituen, eta besteak bost. Atzeko fatxadak lau leihotxo zituen, komunaren, dutxa batena eta ikaztegiarena.

Gaur egun, fatxadak aldatuak daude hutsarteei dagokienez, aurrekoak berdin jarraitzen duen arren. Besteen kasuan, albokoek leiho batzuk itsutuak dituzte eta atzeko fatxadak ez du leiho bat bera ere gorde.



Eraikin Sozialaren oraingo ikuspegia


Iturria: Elaborazio propioa

ERAIKITZE PROZESUA

Lan asko daude eraikitze prozesu batean edozeinek egin ditzakeenak, eskulan ez kualifikatu moduan, eraikuntzan prestakuntzarik gabea izanda ere: lur-mugimenduetan, materialen garraioetan...


Urte haietan adreiluaren prezioak gorakada handiak izan zituen. Arrazoi honengatik, Bizkaiko Etxe Merkeen Kooperatiba askotan hartutako erabaki berdina hartu zuten: adreiluak eta teilak beraiek, han bertan sortzea. Hala egin zuten Arrigorriagako *La Mutual* Kooperatibakoek eta Bilboko Zurbaran auzoa eraiki zutenek.

Biak Tomas Bilbaoren proiektuak. Izan ere, memorian, bertako lurrak buztinetan aberatsak izanez gero, adreiluak ekoizteko profitatzeko posibilitatea aurreikusten du⁴⁰. Eta hala izan zen. Etxeak egingo ziren lurretan bertan, indusketetan lortutako buztina erabiltzeko aukera izan zuten, kanpoan erosi beharrekoaren kopurua murriztuz. Honek etxeen onuradunek egin behar zuten lan ekarpenari aukera izugarria eman zion. Adreiluak egiteko, adreilu makina edo *galletera* bat erosi zen eta, obrak amaitu zirenean, gehiago beharrezkoa izan ez zenean, saldu egin zen. Lan handia egin zuten bertan bizitzera zihoazen langileek (sartutako ordu guztien gorabeherak hurrengo atalean) eta lekua adreiluz eta teilaz beterik egon zen eraiketa prozesu guztian. Guztira bi milioi adreilu inguru ekoitzi omen zituzten tailertxo hartan⁴¹. Onuradunek eginiko lanaren ia guztia adreilu tailer hartan izan zen.



Galletera bat udaletxera bidalitako propaganda batean

Iturria: Azkoitiko Artxibo Muzipala. Funts Historikoa. Sig.: 1026-01



Adreilu piloak inprobisaturiko tailerran

Iturria: POSSE, José de. La casa propia. El ejemplo de un pueblo. Bilbo: La Editorial Vizcaina. 1931

⁴⁰ «Se construirán de ladrillo si se opta por la fabricación de este material aprovechando la calidad de las tierras que han de moverse al preparar el terreno.» Memoria descriptiva de las obras. Documento nº2. Azkoitiko artxibo munizipala. Funts Historikoa. Signatura: 2431-01

⁴¹ Rikardo Otañok beste alkate bati 1929ko azaroan idatzitako eskutitza. Azkoitiko artxibo munizipala. Funts Historikoa. Signatura: 2432-01

Honi beste datu garrantzitsu bat gehitu behar zaio, oso esanguratsua baita auzoaren kokapena San Martinen izatearen erabakiarekin zein puntutaraino asmatu zuten jakiteko. Izan ere, Urolako Trena auzotik hain gertu igarotzeak ematen zuen aukera ez zen inolaz ere alferrik galdu. Auzorako trenez iristen zen material guztia (teileria labeetarako ikatza, gehienbat) modu erraz eta azkar batez garraiatzeko, teileria eta trenbidea elkar lotzeko funikular bat eraiki zen. Aurreproiektua 1926ko abenduaren 20an Antonio Bizcarrondo bide-ingeniariak sinatua dago eta aurrekontuak 19.060 pezetatan jartzen du honen kostua. Olimpia Aretoaren atzean, bertatik igarotzen zen trenbidearen sailean, materialen deskargarako 50 metroko nasa bat inprobisatu zen. Honen luzera osoan, bagoitxoentzako errail bat jarri zen. Bagoitxo hauek, kargaturik, funikularren gurditxoetan jartzen ziren gorako bidea hartzeko.

Funikularra “atzera-aurrerako mugimendu” motakoa zen. Errail bakarrekoa zen eta bidebanatze bat zuen bere ibilbidearen erdigunean, bagoitxoak elkar talka egin ez zezaten. Bagoitxoak kable bitartez tiratuak ziren.

1927ko maiatzaren 26an, Udaletxeko Areto Nagusian, proiektua gauzatzeko lehiaketa eta enkantea gauzatu ziren. Udalak, bere eraikitzaile lanetan sartu zelarik, alde batetik, materialak zuzenean erosi zizkien ekoizleei eta saltzaileei, eta bestetik, eskulana langileei beraiei esleitu zien, inongo kontratistari utzi beharrean lan hori. Honi esker, bitartekarietan diru kopuru handi bat aurreztu ahal izan zen eta eragin zuzena izan zuen obraren kostu osoan.



Funikularren proiektuko plano

Iturria: Azkoitiko Artxibo Munizipala. Funts Historikoa. Sig.: 2432-01

ASPEKTU EKONOMIKOA

Etxe Merkeak eraikitzeke, 1924ko urriaren 10ean onartutako legeak eskaintzen zituen abantailak ekonomikoak ziren batik bat. Estatua, Lan Ministerioaren bitartez, helburu hau zuten proiektuei babes emateko baimendua gelditzen zen.

Estatuaren laguntza, zerga salbuespenez gain, mailegu eta hobarietan zetzan. Mailegua lurren balioaren %50a eta eraiketaren kostuaren %70a urteko %3aren interesarekin eta 30 urteko epearekin, gehienez, izango zen. Honez gain, proiektuaren aurrekontu osoaren %10a (%20a nahi zuten irabazi-asmoko entitatea ez zirelako) hobari moduan jasotzeko aukera zegoen.⁴²

Beraz, lurren aprobazioa eta etxe merkeen kalifikazioa lortzeko, Lan Ministeriora jotzen dute proiektuaren izapiderako. Ministerioak proiektua onestu zuen, baita emango zituen laguntzen datuak erraztu ere: 694.291,10 pezeta mailegu eran eta 103.207,82 pezeta eraikuntzarako hobari moduan.

Onuradunen zozketa egin beharra zegoen. Hauen antolakuntza beharrezkoa zen beraien ekarpenez baliatzeko eta. Hasieratik beraien lan pertsonalaz baliatzea pentsatua zegoen. Etxebizitzaren bukaerako prezioaren ahalik eta emaitza txikiena nahi bazen, ezinbestekoa izango zen. Onuradunek, sarrera bat ordaindu behar izango zuten, gero mailegua ordaintzen joateko jarri beharreko hilerokoaz gain. Beraz, aukera ezin hobe zen sarrera hori dirutan edo lanorduekin ordaindu ahal izatea. Sarrera horren kopurua 1500 pezetakoa zen eta hau, dirutan, lanean eta bi eratara ordaindu zuten. Langileen gehiengoak kopuru hau ez zuenez, gehienek lana eskaini zuten.

Lan-ordu bakoitza 0,75 pezetaz balioztatu zen. Hori zen eraikuntzan peoi batek jasotzen zuen soldataren batezbestekoa. Beraz, 1500 pezeta lanetan ordaintzeko, 2000 ordu ziren egin beharrekoak. Hirurogeita hamar onuradunek beren ekarpen guztia lanetan egin zuten, seik lan eta dirutan eta hogeita hiruk diru hutsean. Lanean eta dirutan ordaindutakoaren zenbateko guztia honela gelditu zen:

Lanetan: 106.933,85 pezeta

Dirutan: 44.144,00 pezeta

Guztira, 106.933,85 pezetei dagokien onuradunek egindako lan-ordu kopurua 142.579koa izan zen. Zortzi orduko lan jardunaldia ezarri zenetik, langileei denbora librea gelditzen zitzaien beraien etxebizitzaren eraikuntzan bere ekarpena egiteko. Norbere etxea eraikitzeke.

⁴² POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaína. 1931. 29. or.

Eraikuntza lanak abian zirela, gastuak areagotu egin ziren eta, material berrietarako eta kontratuak ordaintzeko, diru gehiagoren beharra zegoen. Horretarako, Udaletxea Gipuzkoako Aurrezki Kutxara joan zen mailegu eske eta, honek, urteko %5eko interesaren truke, 531.000 pezetako mailegua egin zion bertako lurren eta eraikiko ziren etxeak hipotekatuz. Udalaren asmoa mailegu hau estatuen mailegua eta hobaria iristean kitatzea zen.

Lanak amaituak zirelarik, 1928. urte bukaeran, Udaletxeak paper guztiak antolatu zituen estatuen laguntzak eskatzeko. Hau prozesu nahikoa motela zen eta erantzuna 1929ko maiatzaren 25ean iritsi zen. Guztira 797.499,63 pezeta jaso ziren: 694.291,81 mailegu moduan eta 103.207,82 pezeta aurrekontuen %10ari zegokion hobaria. Diru hauek jaso bezain laster, Gipuzkoako Aurrezki Kutxara jo zuten zor zuten 531.000 pezetako zorra kitatzera.

Proiektuen aurrekontuak 1.032.078,91 pezetatan estimatzen zuen auzoaren eraikuntza, lurren erosketa eta eraikuntza (materiala eta eskulana) kontuan izanik. Hala ere, kopuru hau handiagotua izan zen lanak aurrera zihoazen heinean, eta azkenik kostu osoa 1.141.174,61 pezetatan ezarri zen.

1930eko uztailaren 21ean Diputazioak Etxe Merkeentzat eman nahi zituen laguntzen Araudia onartzen zuen. Laguntza hauek Estatuak ematen zuen hobarietan osagarri bat gehitzea dute helburu. Azkoitiko San Martin auzoaren kasuan, egokitu zitzaion hobaria aurrekontuen %10a izan zen.

Diputazioaren neurri berri hauetaz gozatzen lehena Azkoitiko Udala izan zen. Baina, gainera, hasierako aurrekontua, lanak aurrera zihoazen heinean, hazi egin zela eta hobaria oso berandu iritsi zela oharturik, beste laguntza orekatzaile bat egitea adostu zen. Beraz, alde batetik, 103.207,82 pezetako hobaria eman zuen, eta bestetik, 44.844 pezeta gehiago.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxak, lehen esan dugun bezala, San Martineko auzoa eraikitzeko behar zen dirua aurreratu zuen estatuko laguntzak iritsi artean, lanek aurrera jarraitu zezaten. Baina erakunde honek, bere laguntzekin jarraitu nahi izan zuen eta, 1930eko urriaren 31n, Aurrezkiaren Egun Unibertsalean, beste laguntza bat ematea adostu zuen. Hiru ziren laguntza hau emateko arrazoiak: Estatuaren laguntzen atzeratzeak Aurrezki Kutxarekin zuten maileguaren interesak denbora gehiagor ordaintzea ekarri zuen; auzoa aztertu ondoren, honen dutxen instalazioak eskasak zirela ikusi zuten eta hauen handitzea komeni zen; auzoko onuradunen umeentzat haur-eskola bat egitea komenigarria litzatekeela iritzi zioten. Hiru gabezia hauek estaltzeko, honako kopurua ematea adostu zen:

Eraikuntzak sortutako gastuei erantzuteko	12.884,71	pezeta
Dutxen instalazioak handitzeko	7.115,29	"
Haurreskola eraikitzeke	5.000,00	"
Guztira	25.000	pezeta

Honetaz guztiaz gain, beste bi erakundek eta Udaletxeak dirua jarri nahi izan zuten. Erakundeak herriko bi konpainia garrantzitsu ziren: Sociedad Cooperativa Obrera "La Asunción" eta "La Lanera Hurtado de Mendoza" S.A. Lehenak urteko 600 pezeta jarriko zituen eta bigarrenak, berriz, 500. Diru hauek eta udalaren urteroko 6.000 pezeta estatuaren mailegua itzultzeko, familiek ordaindu beharreko amortizazioaren urterokoak gutxitzeko ziren.

Gauzak horrela, ondoko hau da kontu guztien laburpena:

Gastu osoa

Lurrak, urbanizazioa, eraiketa, ur hornidura, saneamendua, interesak, zuzenketa, administrazioa	1.141.174,61	pta
---	--------------	-----

Sarrerak

Onuradunen ekarpenak, diru eta lanetan	151.078,85	pta
Estatuaren hobaria	103.207,82	"
Gipuzkoako Diputazioaren hobaria	103.207,82	"
Gipuzkoako Diputazioaren laguntza osagarria	44.844,00	"
Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren laguntza	12.884,71	"
Partikular baten dohaintza	14.000,00	"
Estatuaren laguntzak iritsi aurretik onuradunek emandako errentak	17.659,60	"
Guztira	446.882,80	pta

ZORRA	694.291,81	pta
--------------	-------------------	------------

Zor hau Estatuari bere maileguarengatik 30 urtetan %3ko interesarekin itzuli behar zena zen. Eta, esan bezala, kopuru hau ere dohaintza batzuekin gutxitu zen, onuradunen urterokoaren kopurua horrela gelditzen delarik:

Zorra:

Zorra ordaintzeko estatuak jarritako urterokoa	35.422,21	pta
--	-----------	-----

Kenkariak:

Udaletxearen laguntza	6.000,00	pta
"La Asunción" Kooperatibaren urteroko laguntza	600,00	pta
"La Lanera Hurtado de Mendoza"-ren urteroko laguntza	500,00	pta
Guztira	7.100,00	pta

ONURADUNEN URTEROKOA	28.322,21	pta
-----------------------------	------------------	------------

Honek hilean 2.360,20 pezeta ematen ditu eta 99 onuradunetan zatituta, hilean **23,85 pezetako errenta** ateratzen zen. Azpimarratzekoa da, kopuru honek ez zuela garai hartan herrian zeuden alokairuko etxeen batezbesteko errenta gainditzen.

Estatuaren laguntza eta Erregearen bisita eskertzeko, auzoaren izena *Barrio Obrero Alfonso XIII* izan zen. Gaur egun ez du inork izen honekin ezagutzen, baizik eta San Martin auzoa bezala.

BI INAUGURAZIO ETA OMENALDI BAT

Garaiko egoera politikoaren baitan, Etxe Merkeen inguruko guztia handitasun osoz tratatuko gaia izan zen, hau izan baitzen Miguel Primo de Rivera diktadoreak eta Eduardo Aunós Lan Ministroak herritarren aurrean beraien politika sozialaren handitasuna erakusteko gehien erabilitakoa.

Beraz, ez da harritzekoa Azkoitiko Etxe Merkeak bi aldiz inauguratuak izatea. Bietan lehena izan zen eragin handiena izan zuena, Alfontso XIII.a Espainiako erregea, Azkoitian izan baitzen, ordura arte amaituak ziren 40 etxeen giltzak beraien jabeen ematen. Erregea, bere udaroko Donostiako egonaldiaren azken egunetan zegoen eta bertatik etorri zen gero, berriro, hiriburura bueltatzeko.

Honela dio 1927ko irailaren 20ko La Constancia egunkariak ekitaldi honi buruz:

“Ayer (...), llegó la noticia oficial, de que para las diez de hoy estaría en ésta. Seguidamente (...), comenzó la labor de adornar los sitios por los cuales deba de pasar Su Majestad. El héroe de esta jornada ha sido (...), don José de Otaño, presbítero laboriosísimo, que en toda la noche ha laborado en unión de jóvenes, levantando arcos artísticos, guirnaldas, etc. (...) El Orfeón acompañado de la Banda Municipal cantó la Marcha Real del Padre Otaño. Hubo discurso del señor alcalde y del excelentísimo señor presidente de la Diputación, don Modesto Luzunariz...”⁴³



Alfontso XIII irekiera ekitaldian

Iturria: POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaina. 1931.

⁴³ “Azcoitia” atala. LA VISITA DEL REY. La Constancia egunkaria. 1927/09/20. 6. or.

Etxe Merkeen inaugurazioaren aitzakiarekin, Alfontso XIII.a herrira datorren hirugarren aldia da. Lehenengo aldia 1910eko Euskal Jaietan izan zen eta bigarrena Urolako Trenaren inaugurazioan 1926ko otsailaren 26an⁴⁴.

Bigarren irekiera ekitaldia etxe guztiak eraikiak izan zirenean izan zen, 1929ko apirilaren 14an, hain zuzen. Aldi honetan ez zen Erregea etorri baina bai agintari garrantzitsu batzuk. Hilaren hamaseiko La Constanciaren aleak dioenez:

*“Concurrieron al acto de inauguración el gobernador civil de la provincia y el inspector provincial del Trabajo que fueron recibidos (...) por todas las autoridades de la misma y algunos diputados, entre ellos, el presidente de la Diputación y el señor Churruca. (...) Bendijo las casas el señor párroco y luego el alcalde leyó unas cuartillas...”*⁴⁵

Garaiko prentsa ikuskatzean, egitasmoari eman zitzaion garrantzia antzeman dezakegu. Benetan ugariak dira Azkoitiko Etxe Merkeei egiten zaizkien erreferentziak prozesu guztian “El Dia”, “El Pueblo Vasco”, “El País Vasco”, “La Constancia”... egunkarietan. Batez ere, azken honetan, integrista baitzen eta argi dago bere ideologiakoen ekintzak goraipatzeko erabilia zela. Adibide modura, egunkari honen 1927ko urriaren 11ko alea hartzen badugu, bertan zera idazten da:

*“Siguen siendo visitadísimas las Casas Baratas de San Martín. Durante toda la semana ha desfilado un imponente gentío (...). Anotamos varios autocares forasteros, entre ellos uno eibarrés (...). Todos ellos se deshacían en elogios al ver las esbaltas [sic], higiénicas y realmente admirables Casas construidas y rematadas de modo irreprochable según los modernos adelantos (...). El domingo, Zumárraga y Villareal dieron un buen contingente de visitantes...”*⁴⁶

Eta amaitzeko, estatuaren maileguaren amortizazio amaiera ospatzeko egindako ekitaldia aipatu behar dugu. Honetarako hautatutako eguna 1960 maiatzaren 1a izan zen. Ekitaldiak probintziako produktore jubilatuei egin zitzairen omenaldiarekin bat egin zuen eta egun osoko egitaraua prestatu zen. Bertara, gobernadore zibila, Sindikatuen ordezkari probintziala, “Instituto Nacional de Previsión”-en batzorde probintzialaren presidentea, Aurrezki Kutxa Probintzialaren zuzendaria, diputatu probintzial bat


⁴⁴ Datu hauek Pedro de Yrizarren liburutik hartuak dira: YRIZAR Barnoya, Pedro de. *Memoria de Azkoitia y de sus familias*. Azkoitia: Ayuntamiento de Azkoitia, 2010. 112 or. Trenbidearen inaugurazioari dagokionez, Imanol Eliasek otsailaren 22an jartzen du bere data. Ikus “Herriaren egoera sozio-politikoa” atala. ODRIOZOLA, Imanol Elias. *Azkoitia historian zehar*. Azkoitia: Azkoitiko Udala, 1999. 527. or.

⁴⁵ “Se inauguró un grupo de casas baratas”. La Constancia egunkaria. 1929/04/16. 1. or.

⁴⁶ “Azcoitia” atala. LAS CASAS BARATAS. La Constancia egunkaria. 1927/10/11. 4. or.

Diputazioaren ordezkari modura, “Cámara Sindical Agraria”-ren presidentea, Guardia Zibilaren tenientea, etab. joan ziren.

Lehenengo meza entzun zuten herriko parrokian, gero San Martin auzora igotzeko. Bertan, Etxe Merkeen komisioren presidentea zen Bernardo Juaristik, beraien istorioa irakurri eta gobernadore zibilak Rikardo Otañoren omenezko plaka eta bustoa desestali zituen eraikin sozialeko fatxada nagusian. Gero, Udaletxeko idazkariak 99 etheen amortizazioen amaierako ziurtagiriak eskura eman zituen (anekdotikoa da, albiste honetan ere, 99 etxebizitzaz hitz egiten jarraitzea, 100 izanik). Handik Herriko Plazara zuzendu ziren aipaturiko jubilatuen omenaldia ospatzeko. San Martineko dantzari taldeak plazan izandako lunch batean dantzatu zuen eta eguerdiko ordu bietan 200 pertsonentzako banketea eman zen herriko frontoian.



Omenaldiaren berria El Diario Vasco egunkarian

Iturria: El Diario Vasco. Nº 7.890. 11. or.

TOMAS BILBAO HOSPITALET. ARKITEKTOA

Azkoitiko alkate Ricardo Otaño, herriko arazoari konponbidea bilatu nahian, hasieratik Bilbora gerturatu zen. Jakitun zen, nolabait, bertan langileen masifikazio handiak sortutako beharrei aurre egiteko hartutako neurriez eta, badirudi, Bizkaiko Aurrezki Kutxan sartu zela, gomendio bila⁴⁷. Lehenengo bisita hark sortutako kontaktuekin joko zuten Tomas Bilbao arkitekto gaztearekin. Honek, bere bizitza profesional murriztean nahikoa esperientzia eta inplikazio pilatu ahal izan zuen bere bizkarrean, baita Etxe Merkeetan ere. Azkoitiko proiektua egin aurretik, gutxienez beste lautan ikusi zuen bere burua horrelako proiektu batean sartua eta,aldi berean, Bilboko beste batean ere murgildua zegoen. Lau urteren buruan, sei Etxe Merke multzo eginak zituen. Denak Bilbon, Arrigorriagakoak eta Azkoitikoak izan ezik. Esan beharra dago ere, San Martin auzoa izan zela guztietan, etxe gehien eraiki zituen lekua eta, beraz, familia gehien kokatu zituena, 100 hain zuzen. Bilbaok egindako Etxe Merkeen kopuru osoa 320 familiabakarreko etxerena da.

Ezagutu dezagun zerbait baina, bere bizitza, ez baitzen izan, ikusiko dugun bezala, geldirik egoten zen gizona.

Tomas 1890eko irailaren 18an jaio zen, Bilbon. Patricio Bilbao eta Maria Hospitalet-en lau seme-alabetatik hirugarrena izan zen. Bere aita, Patricio, hiriko kontratista garrantzitsuenetakoa zen. Honek nolabaiteko babes emango zion, lizentziatu ostean lana izateko orduan. Madrilgo Arkitektura Eskolan ikasi zuen 1918ko promozioan. Han Rafael Bergamín, Pablo Zabalo, Blanco Soler eta Manuel Galíndez-ekin egin zuen topo. Badirudi Secundino Zuazo arkitekto eta hirigilearekin ere harreman profesionala izan zezakeela.⁴⁸

Karrera amaitu baino zerbait lehenago, bizi osoan ondoan izango zuen Julia Duran Embarbarekin (Bilbo, 1904 – Mexiko Hiria, 1987) ezkondu zen eta, titulua lortu bezain laster, Miranda de Ebrora joan ziren bizitzera. Hemen lan batzuk egin zituen. Hala nola, postetxea, zinema eta etxebizitza eraikin bat. Baita Burgosen ere.

Hala ere, bere lanen gehiengoa Bilbon egin zuen, lehenengo enkarguak aitarengandik jasoz 1919an. 1924an, hiri honetatik enkargatutako lanen gorakada dela eta, Bilbora joaten dira bizitzera.

⁴⁷ «Un día llegó a la Caja de Ahorros Vizcaína, su Alcalde Presidente. (...) expuso la significación de su llegada a Bilbao, atraído por la labor de Vizcaya». POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaína. 1931.

⁴⁸ DEL CUETO Ruiz-Funes, Juan Ignacio. *Presencia del exilio vasco en la arquitectura mexicana*. Revista Internacional de Estudios Vascos, 53, 1. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 2008. 11-44 orr.

Obrak

Bere bizitzan egindako lan arkitektoniko guztiaz hitz egitean, ezin dugu aipatu gabe utzi, bere lan jariora etena izan zela Guda Zibilaren iristearekin, 46 urte baino ez zituela. Atzera bueltarik gabeko etena gainera. Merezimendu oraindik eta handiagoa, berak utzitako oinordea hain oparoa dela kontuan izanik, formetan anitza eta bere eboluzioa argi ikus daitekeen gauza bat dela.

Genero ezberdinetan murgildu zen Bilbao. Aipatutako Etxe Merkeak, burgesiarentzako etxebizitza eraikinak, etxebizitza familiabakarrekoak, merkatuak, zinemak, egoitza sozialak, erakusketa pabiloi bat eta abar... Bere ibilbide profesionalean euskal estiloan egindako etxe eta Etxe Merkeetatik Bilboko zabalguneko bloke handi barrokoetaraino pasatzen da. Gero, hogeita hamargarren hamarkadaren hasieran, eklektizismo honek arrazionalismo arkitektonikorako bira harrigarri bat izango du.

Etxe Merkeak

Tomas Bilbaok, garai hartan eraikitzen ari ziren Etxe Merke gehienak bezala, lorategi-hiriaren ereduari heldu zion bereak diseinatzerakoan. 1924ko Etxe Merkeen legeak hori gomendatzen zuen eta logikoa zen gehienek, laguntzak jaso nahi bazituzten, kasu egitea. Gainera, Europatik zetorren joera bat zen langileentzako etxebizitzak egiterakoan urbanizazio idealtzat zeukaten. Osasun aldetik abantailak zituen: argi naturala sartzea eta airearen berritzea errazten zuen, pertsona bakoitzeko azalera gehiago gelditzen zen... Hiria eta mendia uztartzeko ahalegin bat ere bazen, etxean lorategia, baratzea edota biak izateko aukera ematen zuelarik. Gainera, ur zikinen bilketa ere seriotasunez hartzen zen gaia zen. Hamarkada hartan hasi ziren etxeetan komunak jartzen eta, batzuetan, dutxa ere bai.

Etxe Merkeen sustatzaileak gehienetan, hasieran kasu batzuetan enpresek beraiek eraiki bazituzten ere, langileak ziren kooperatibetan antolaturik. Honen abantailak ekonomikoak ziren, erakundeetatik laguntzak jasotzen zirelako eta etekin ekonomikoak bilatzen zuen higiezinaren sustatzaile bati ordaindu behar ez zitzaiolako. Hitz gutxitan, bertan bizi behar zirenek eraikitzen zituzten etxeak.

Horrelako kooperatibenak izango ziren Tomas Bilbaok jasotako Etxe Merkeen enkargu guztiak, Azkoitikoa izan ezik, eskaera Udaletxearena baitzen. 1924an Begoñako basilikaren oinean etxebizitza batzuk eraikitzeko enkargua jaso zuen "Cooperativa General de Empleados de Oficina de Vizcaya"-ren eskutik. Hau izan zen gaur egun Zurbaran auzoa bezala ezagutzen dena. Euskal Herrian eraikitako Etxe Merkeetan lehenetarikoak izango ziren. Bilbo inguruan eta, urrutixeago ere, mota honetako lorategi-hirian oinarritutako talde gehiago eraikiko zituen geroago.

Diseinatutako hurrengo auzoa Ara Bellako kooperatibarentzako egindakoa (1925-1927) izan zen, Bilbon. Kooperatiba hau Bilboko Udaletxearentzako lan egiten zuten langile

batzuen artean osatutakoa zen eta bere izena *Cooperativa de Casas Baratas de Ara Bella* izan zen. Auzo honek, bere 35 etxebizitza familiabakarreko eta bifamiliarrez gain, eraikin soziala izan zuen, San Martinen erara, kontsumo kooperatiba bat eta areto soziala bertan zituelarik.⁴⁹


Deustuko Unibertsitatearen inguruetan eraiki zen Bilbaoren hurrengo etxe multzoa (1925-1928): “Cooperativa de Casas Baratas Buena Vista”-k sustatutakoa, Buena Vista auzoa bezala ezaguna dena. Kooperatiba hau Ferrocarriles del Norte de España-ko langileek osatua zen. Auzo hau ere familiabakarrekotik osatua zegoen, 30 alegia. Langile hauek Azkoitikoen merezimendu berdina daukate: beraien etxeen eraikuntzan parte-hartze zuzena izan zutela.⁵⁰

1926an Sociedad Cooperativa de Casas Baratas de Obreros Panaderos izenekoak, Tomas Bilbaoren planoak jarraituz, bere auzoa eraikitzeko lanak hasi zituen. Etxe multzo hau Bilboko Artxanda muinoko ekialdeko magalean kokatu zuten. Arkitektoak 40 etxebizitza 20 etxe bifamiliarretan antolatu zituen, seiko taldetan, bost ilaratan. Ez zen proiektu osoa egitea lortu, 40 etxebizitzetatik 30 bakarrik eraiki ziren eta.

Bilbotik kanpo geratzen diren Bilbaoren Etxe Merkeak Arrigorriagako La Mutual (1925-1926) eta Azkoitiko San Martin (1926-1928) auzoak ditugu. La Mutual 50 etxebizitzakoa zen, San Martin auzoa, dakigunez, 100ekoa.

Familiabakarreko etxeak

Ez zen hau izan gehien erabili zuen tipologia bere erreperitorio arkitektonikoan. Baina etxe hauek eta Etxe Merkeak diseinatu zitueneko urteetan erabili zuen estiloa erakusteko adibide garbia dira burgesiarentzat eraikitako hauek. Gehienetan, estilo neoeuskaldunaren bila dabil. Horien artean, Getxoko Aurelino Jauregibetiaren txaleta dugu, 1926an eraikia eta gaur egun desagertua; Sir Ramon de la Sotarena, 1929an herri bereko Ondategi kalean



Jauregibetiaren txaleta

Iturria: SAN GINÉS, Ignacio Miguel. Tomás Bilbao. Lanak. Bilbo: COAVN, 1995.

⁴⁹ DOMINGO Hernández, M^a del Mar. *La vivienda Obrera en Bilbao y el Bajo Nervión: Las Casas Baratas, una nueva forma de alojamiento (1911-1936)*. Girona: Universitat de Girona. 2005. 354. or.

⁵⁰ Buena Vista eta Zurbaran auzoen deskribapen zabalagoa, Bizkaiko Adibidea sailean (ikus 15-16. orrialdeak).

eraikia eta Jose Libanorentzat Erandioko Asua auzoan 1933an egindakoa.

Hiru hauek, euskal erregionalismo edo estilo neoeuskalduna erabilitako etxeak dira. Proiektatutako familiabakarreko guztien artean, bat bakarra izan zen, postulatu hauekara entregatu ez zena eta, hala ere, ez du guztiz baztertzen. Hau Jose M^a Belaustegigoitiarentzat marraztutakoa dugu. 1931n izan zen eraikia, Laudion, eta jadanik eraitsia izan da, noiz izan zen ez dakigularik. San Ginesen liburutik eskuratutako perspektibazko irudi honetan antzeman daitekeenez, bi isuriko estalki luzeak mantentzen ditu eta, sarreran ere, hain esanguratsua den arkua jartzen du etxabeaz. Frontoiari dagozkion txoritokiak tximinian kokatzen ditu. Badirudi, estetika euskaldun tradizional hau bere gain hartzen hasi den beste estetika modernoago baten txantilo bat bezala erabiltzeko saiakera dela. Izan ere, leiho luze etzanez eta terraza handiez atontzen du, kasu honetan, arkitektura historizista hau, estiloen fusio berri bat sortuaz. Kontuan izan behar da, gainera, Tomas Bilbaoren sorkuntzan, lehen aipatu dugun bezala, 30garren hamarkadan eman zuela 180 graduko bira arrazionalismoan sartuz eta etxe hau 1931koa dela. Baliteke etxe honen enkargua bere asmo berriaren entsegu bat egiteko erabili izana.

Erreformatik (2 eraikin):

Arkitekto honen ibilbidean badira bi erreforma: bat, Bilboko Ercilla kaleko 16. zenbakia (1928-1930) eta, bestea, Areatzako hirugarrena (1928-1931), enkargua egin zion seguru etxearen izenaz ezagunagoa dena: La Unión y el Fénix.

Lehena, hiru solairu zituen etxebizitza eraikin bat zen eta bi gehiago jarri zizkion; beheko solairuko hutsarteen banaketa guztiz aldatu zuen eta bigarren solairutik gorakoetan hegala eraiki zituen.

Benetan deigarriena hurrengo da dudarik gabe. Hiriko erdigunean, Areatzako pasealeku zabala eta Arriaga Antzokiaren artean eta Nerbioi ibaia zeharkatzen duen zubiaren parean dago. Kokaguneak oso ikusgarri egiten du eraikina eta hori profitatzeko zortea izan zuen enkargu hau egin ziotenean.

Eraikin honi egindako eraldaketa benetan sakona izan zen. Fatxada aldatu eta solairu bat gehitu eta honen gainean errotonda bat jarri zion kupula batekin koroatuaz. Kupula honen handitasunaz ideia bat egiteko, nahikoa da bi solairuren altuera zuela



La Unión y el Fénix-en egoitza

Iturria: SAN GINÉS, Ignacio Miguel. Tomás Bilbao.
Lanak. Bilbo: COAVN, 1995.

esatearekin. Etxabean, Cafe Boulevard izeneko kafetegi handia dugu (oraindik izen honekin), *art deco* estiloaz apaindua eta berak, pertsonalki, diseinatu.

Eraikinaren eraldaketa-lanak amaitu zirenean, honen azken bi solairuak berak erosi zituen. Baten bere familia ugaria (zortzi seme-alabekin) instalatu zuen eta azkenean, kupuladunean, bere estudioa finkatu zuen.

Lau proiektu berezi

Tomas Bilbaok, bere sorkuntzan, bizitzako sormenaren eboluzio bati erantzunez, tipologia eta estilo ezberdinak jorratzen ditu. Eta, ibilbide horretan, lau proiektu aipatzekoak dira beraien berezitasunengatik.

Hauetako bi Sociedad Centro Farmacéutico Vizcaíno-rentzat Hilario Imazen laguntzarekin egindakoa (1924-1925) eta Getxoko Areetan eraikitako Mesedeetako Ama Birjinaren Elizaren Etxe Soziala (1927) dira.

Azkoitiko merkatu plazaren (1926-1929) handitzea ere aipagarria da. Etxe Merkeen garai berdinekoa da naiz eta hauek lehenago eraikitzen hasi. Gainera, oso gertu daude biak, merkatuaren parean hasten zelarik auzorako bide berri hura. Merkatu zaharrari atxikitako bolumen berri honek Urola ibaiaren bi aldeak batzen ditu, aldi berean zubi modura baliatuz. Bere kanpoaldean bi pasabide ditu, alde batetik bestera pasatzerakoan, barrura sartu beharrik ez edukitzeko. Maila bakarrekoa da, lau isuriko teilatu handi eta altu batek estalia. Dorretxo bat ere badu bere bi erpinetako batean. Oso eraikin berezia da.

Guztietan bitxiena Altos Hornos de Vizcaya ordezkatzeko 1929ko Bartzelonako Erakustaldi Internazionalerako eginiko eraikin iraungikorra da. Ludwig Mies van der Rohe-k Alemaniari eskainitako pabilioi nazional famatutik gertu. *Arquitectura* aldizkariaren 131. zenbakian⁵¹ (1930eko martxoa) argitaraturiko irudiek eraikin txiki eta iraungikor hura nolakoa izan zitekeen ideia bat egiten laguntzen dute: burdinazko egitura arin bat eta koloretako panel transluzidoz osaturiko *art deco* gustuko beirazko kaxa moduko bat.

Francisco Javier Muñozek bere *“La arquitectura racionalista en Bilbao...”* tesian, pabilioi hau modernitatearen lehenengo arkitekturen artean sartzen du, Donostiako Klub Nautikoarekin batera:


⁵¹ *“Instalación para Altos Hornos de Vizcaya en Barcelona. Obra de hierro y cristal. Arq. Tomas Bilbao”*. *Arquitectura* aldizkaria. XII. urtea, 131. zenbakia. Madril, 1930ko martxoa; 85-86. or. DEL CUETO Ruiz-Funes, Juan Ignacio. *Presencia del exilio vasco...-n* aipatua, op. cit.

“En definitiva, el club náutico de San Sebastián (...), fue un manifiesto de modernidad, como también lo fue el efímero pabellón de Altos Hornos de Vizcaya del arquitecto Tomás Bilbao para la Exposición Internacional de Barcelona de 1929.”⁵²



Azkoitiko Merkatu Plaza

Iturria: Elaborazio propioa



Bartzelonako Erakustaldi Unibertsalerako AHV-rentzat eginiko pabilloi efimeroa

Iturria: SAN GINÉS, Ignacio Miguel. Tomás Bilbao. Lanak. Bilbo: COAVN, 1995.

Etxebizitza eraikinak. Arrazionalismoa

Tomas Bilbaoren arkitekturak izango duen eboluzio estilistikoa 20garren hamarkada hasieratik 30garrenaren erdialdera arte Bilbon eginiko etxebizitza eraikinetan ongi ikus daiteke⁵³. 1922a hasi eta 1931 arte eraikitako etxebizitza eraikinak Ercilla, 20; Elkano, 8; Uriortu, 4; Errekalde, 32; Epaltza, 2; eta Diputazio kaleko 12 zenbakia ditugu.

Ercilla kaleko 12.a 1922an amaitu zen eta lau urte pasatu behar izan ziren horrelako beste eskaera bat jasotzeko. Hala ere, eraikuntza mota hau izan zen ordutik aurrera bere ekite profesional nagusia. Diputazio kaleko 12 zenbakian eraikitakoan (1929-1931) bereiz dezakegu hemendik aurrera II. Errepublika garaian egingo dituen etxebizitzetan hartuko duen estiloaren lehen aldaketa.

Estetika modernora Erripa kaleko 6 zenbakian (1930eko azaroa-1932ko otsaila) Bilboko ibai-ondoan (La Unión y el Fénix beste aldean paren dago gutxi gora behera) dagoen eraikinarekin lotuko da betiko. Honen atzetik etorriko dira Henao, 15; Urkixo Zumarkalea, 58-59 Indautxun; Rekalde Zumarkalea, 7; eta Poza Lizentziatuaren kalea, 5-7. Azken hau 1936an hasi zen eraikitzen baina gerraren ezta 1941n Emiliano Amann-ek bukatu araztea ekarri zuen.

⁵² MUÑOZ Fernández, Francisco Javier. *Arquitectura Racionalista de Bilbao (1927-1950). Tradición y modernidad en la época de la máquina*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2011. 95. or.

⁵³ DEL CUETO Ruiz-Funes, Juan Ignacio. *Presencia del exilio vasco...* op. cit. 19. or.

Politika

Errepublika hastearekin batera, arkitekto lanak utzi gabe, beste zeregin batzuetan sartu zen. 1931n Bilboko Udaleko zinegotzi hautatua izan zen, eta, honen barruan, Etxebizitza Munizipalen presidente moduan aritu zen. Postu honetan oso paper garrantzitsua bete zuen Euskal Herrira arkitektura modernoa sar zedin. Mugimendu modernoaren pentsaera aintzat hartzen zuten oinarriak zituen Espainiako Institutuzio Publiko baten lehenengo lehiaketak bultzatu zituen. Hauetariko lehena Solokoetxeko etxebizitza taldea izan zen 1931ko abenduan.

Hurrengo lehiaketa “Grupo Escolar Tomas Meabe”-rena izango zen, San Francisco auzoan. Gainera, epaimahaikide kalifikatzaile moduan ere aritu zen bai hemen, bai penintsulako beste leku batzuetan ere. Ekialdeko GATEPAC-en hitz goxoak ere entzuteko ohorea ere izan zuen, bere lan ona zoriontzeko asmoz:

“(...) Bilboko lehiaketa interesgarria batzarrean eztabaidatuko dugu[Solokoetxekoez ari da]; ziur izan proiektuak aurkeztuko ditugula (...) ondo deritzogu Tomas Bilbao zoriontzea; beste talde guztien izenean zu izan behar zarela zoriontzen duena uste dugu...”⁵⁴

1933an GATEPAC-Grupo Norteko bazkide bezala sartu zen eta Espainiako Arkitektoen Elkargoko Kontseilu Gorenerako Euskal Herriko Arkitekto Elkargoaren ordezkaria izendatu zuten.

Politika eta kultura munduan ere, ez zen edonor izan. Eusko Ikaskuntzako kidea izan zen eta, bertatik, Lizarrako Estatutuaren aldekoak eta Sozietatearen Estatutuaren aldekoak batzen saiatu zen⁵⁵. Eusko Abertzale Ekintzaren sortzaile eta zuzendarietako bat izan zen, eta alderdi honen ordezkari moduan lortu zuen Bilboko Udaletxeko alkateorde izatea. Jarduera honengatik 1934an kartzelaratua izan zen, Burgosen, eskuindarren biurtekoan edo biurteko beltzean. Guda hasi zenean, Bilboko ondare kulturalaren babesean aritu zen lanean; besteak beste, babesleku antiaereoak egin zituen eta Bilboko Ateneoaren biblioteca tropa frankistek topatzetik libratu zuen, horma disimulatu bat eraikiz, hiria beraien eskuetan erortzear zelarik. 1937an, Gobernu Errepublikarraren Perpignango kontsul izendatu zuten. Ez zuen asko iraungo postuan, 1938ko abuztuan, berau utzi behar izan baitzuen, Juan Negrín Errepublikako

⁵⁴ 1931ko abenduaren 29an GATEPAC Bartzelonak Jose Manuel Aizpuruari (GATEPAC-Norte) bidalitako eskutitza. SANZ Esquide, José Ángel. *Archivo de Arquitectura del País Vasco. Años Treinta*. COAVN, Bizkaiko ordezkarietza, 1990. Anexo 3, 125. or. DEL CUETO Ruiz-Funes, Juan Ignacio. *Presencia del exilio vasco...*-n aipatua, op. cit.

⁵⁵ Tomas Bilbao Hospitalet. Auñamendi entziklopedia. Eusko Ikaskuntza. 2004
<http://www.euskomedia.org/aunamendi/14160> (kontsulta: 2012/08/30).

presidenteak, Manuel de Irujok bere Errepublikako Ministro postua utzi zuenean, Sailik Gabeko Ministro postua okupatzeko deitu baitzuen. Bi ministro izan ziren dimititu zutenak eta Negrinek berregituraketa bat egin behar izan zuen. Errepublikako Gobernuan krisi politiko latz batean murgildua zegoen. Batzuk errenditzearen alde zeuden eta besteek borrokan segitzeko kemena eskatzen zuten. Ahalegin handiak egin zituen Negrinen gobernuarekin batera, honen eta Segismundo Casado koronelaren (armada zentralako buru) arteko ezberdintasunak baretzeko.⁵⁶



Bilbaoren ministro izendapena La Vanguardia-n

Iturria: La Vanguardia. 1938/08/21. 4. or.

Guda amaitu zenean, Parisera joan zen erbesteko Sailik Gabeko Ministro izaten jarraitzeko asmoz. Tropa Naziak sartu ziren egunaren bezperan, Pariseko ebakuazioa bizi izan zuen. Okupazioak iraun zuen bitartean, Sète-n izan ziren bera eta bere familia, Mexikora ihes egiteko intentzioz, baina ez zuten lortu. Marseillara joan ziren baina, bertan, GESTAPOk Bilbao atzeman eta hilabete batzuk atxikita izan zuten Eix-eko kartzelan. Akusazio batzuk izan zituen, baita heriotza zigorrak jaso ere. Frantziako Alderdi Komunisten abokatuek egindako defentsa izan zen bere salbazioa, eta nahiz eta Frankok bere estradizioa eskatu zuen, zorionez, ez ziren gauzatzera iritsi. Beraien seme zaharrena Marseillan bertan hil zen peritonitis batez eta berak diseinatutako hilobian lurperatu behar izan zuten⁵⁷. Kartzelatik irten bezain laster, bere familiarekin bat egin eta Marokora ihes egitea lortu zuten 1942an. Casablancako errefuxiatu-esparru batean egon ziren Nyassan enbarkatu eta Mexikorantz joatea lortu zuten arte, JAREk (Junta de Auxilio a los Republicanos Españoles) antolatutako azken espedizioan.

Hasieran, bere egoeran zeuden beste asko bezala, jasotzen zituen laguntzei esker bizi izan zen. Eta nahiz eta bere jardueraren zati garrantzitsuenean erbesteko Errepublikaren Gobernuko kide bezala aritu, Mexikoko erbeste-kide batzuentzat arkitektura lan gutxi batzuk egin zituen. Martin García-Urtiagak bere etxebizitzaren eta Veracruzeko kontserba paketatzaileen instalazio baten erreforma egiteko eskatu zion. Mexiko Hirian, berriz, "El Jonuco" izeneko Irailaren 16 kaleko jostailutegi baten birmoldaketa lanak ere egin zituen. Geroxeago, tamalez, sute batek irentsi zuen.

⁵⁶ DEL CUETO Ruiz-Funes, Juan Ignacio. *Presencia del exilio vasco...* op. cit. 22.or.

⁵⁷ "Reforma" egunkaria (Mexiko). Kultura atala. 2012ko apirilaren 2a. 24. or.

Mexikon, Euskal Kulturaren Batzordeko kidea izan zen, *Euzko Deia*-ren laguntzailea eta 1943ko Manifestuaren sinatzailea.

Bilbao, 63 urterekin hil zen 1954ko martxoaren 16an, Mexiko Hirian, beti bere aberrira itzultzeko ametsa bizi-bizirik mantendu zuelarik.

Azkenik, esan behar da Mexikoko artxibo pertsonalean San Martini buruz falta den dokumentazioa egon litekeela. Udaletxeko artxiboko Etxe Merkeen espedienteetan dauden planoak azkenean eraiki zenarekin guztiz bat ez etortzearen erantzuna bertan egon daiteke. Aipaturiko Reforma egunkariko artikuluan jasoa denez, artxibo hau Ateneo Español de México-ra lekualdatua izan da, Mexiko Hirian.



Nyassan Mexikora iritsi ziren azkenak. Baliteke erdi-erdian goiko lerroan dagoena Tomas Bilbao izatea.

Iturria: "Los refugiados llegados en el Nyassa a México en 1942". Blog de Iñaki Anasgasti.

http://ianasagasti.blogspot.com/mi_blog/2009/08/los-refugiados-llegados-en-el-nyassa-a-m%C3%A9xico-en-1942.html

4. EGUNGO EGOERA

«Arkitekturak iraunkorra, erabilgarria eta polita izan behar du»

(Andrea Palladio, 1508 – 1580)


Asko aldatu da Azkoitia garai haietatik. Hazkunde demografikoak bere horretan jarraitu du gaur arte (11.618 biztanle 2011n⁵⁸) eta orduan San Martineko eliza eta baserri batzuk zeuden lekuan lehen urbanizazio hura eraikitzetik beste askoren altxatzea ere gertatu da. Hasiera batean bere ondoan parke bat eraiki bazen ere, jada ez dago San Martin auzoaren ekialdean egon behar lukeen berdegunearen arrastorik ere. Bere lekuan, bospasei etxebizitza eraikin daude eta hauen jarraian, eremu urbanizatuak Juin Etxe alderaino iritsi arte jarraitzen du.

Auzoaren ingurua ekipamenduz hornitua ere izan da. Hala nola, Elkargunea izeneko aisia, kultura eta kirolerako esparru handi bat, Musika Eskola eta Artxamendi Ludoteka bertatik bertara dituzte. Baita ere Herriko Biblioteka. Hau, lehen Urolako Trenaren geltokia zen eraikin zaharberrian bertan dago.

Auzoaren konexioak ere modernizatuak izan dira. Trenbiderik ez dagoenetik, honen gainetik pasatzen zen pasabideak ez zuen zentzu handirik. Bere lekuan lan garrantzitsuak egin dira. Lehen, auzora iristeko zegoen bidearen antzeko ibilbidea jarraituz, euste-hormaraino iritsi eta, bertan, eskailera luzetxo batzuk eta igogailu berri bat dago.

Auzoaren irisgarritasunari dagokionez, hobekuntzak izan dira. Horren erakusgarri dira Altuna-Portu Klean eskailerak besterik ez zeuden lekuan eraiki diren aldapak eta barandak.

⁵⁸ *Euskal AEko biztanleria lurralde-eremuen, adin-talde handien eta sexuaren arabera. 1-I-2011.* Eustat-Euskal Estatistika Erakundea:
http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0008400/ti_Euskal_AEko_biztanleria_lurralde-eremuen_adin-talde_handien_eta_sexuaren_arabera_1-I-2011/tbl0008458_e.html#axzz25V9fmfDa (kontsulta: 2012/09/04)



Auzora iristeko eraikitako igogailu publikoa eta Altuna-Portu kalea aldapatxoekin

Iturria: Elaborazio propioa

Auzoaren puntu gorenean zegoen garbitokia gaur egun San Martin Mikologi Elkartearen izenekoak erabiltzen du eta Eraikin Soziala Ardatz Elkartek. Ikus dezakegunez, auzoarentzat erabilgarri izaten jarraitzen dute biek, bertan bizi diren pertsonen topaleku sozial bezala. Beheko aldean zegoen garbitokia jada desagertua dago.

Bestalde, duela urte gutxitik hona, Azkoitian termiten inbasio latz bat atzeman da eta San Martin auzoa ez da honengandik libre gelditu. Inbasioaren kontrola daraman enpresak sei talde ezberdinetan banandu du inbasioaren ekintza, San Martin auzoari 1 zenbakia dagokiolarik. Auzoko ia etxe guztiek estazioak dituzte beraien higiezinetan instalatuak. Ezaugarri ezberdinetako kutxatxo hauek termitentzako karnata dago eta ikuskaritza egitean bertan izan den edo dagoen mugimendua atzeman daiteke. Kutxatxo hauek, batzuk etxearen atzeko aldeko lorategian daude lurperatuta, beste batzuk aurreko aldean, zoruan zuloak eginez, eta etxeke zurezko atalei erantsiak besteak. Azkenean, termiten karnata hau hartu eta beraien etxera eramaten dute eta guztiak kutsatu.

Etxeen egoerari buruz hitz egin ahal izateko, lehenik eta behin, esan beharra dago lan benetan handia litzatekeela 100 etxeren egoera zehatz-mehatz azaltzea eta proiektu oso bat suposatuko lukeela. Beraz, egokiena ikerketa lan honi, etxeen gaur egungo egoeraren hurbilketa umil bat gehitzea litzateke. Horretarako, auzoko lau etxetxo aukeratu dira eta beraien EIT-ak (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa) landu⁵⁹. Hauen harira,

⁵⁹ Ikus 3.eranskina: 4 Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa

atera dezakegun ondorioa oso ongi eta kalitate oneko materialez eginak izan zirela da. Jada 85 urte pasatu dira etxe guztiak eraikitzea amaitu zela eta garai berdinean eraikitako beste Etxe Merkeen auzoetako etxe askok ez dute hain egoera onaz gozatzen.



Kolonia ezberdinak herriko planoan eta San Martineko sail batean jarritako estazioak

Iturria: <http://www.azkoitiasintermitas.com>

Gehienez, hezetasunen bat edo bestez edo zurezko egitura horizontalaren gezi ñimiñoenez hitz egin dezakegu. Ez da asentamendu diferentzialik edota sabeltzerik azaltzen. Ez eta arrakala edo pitzadurarik ere. Gainera, bizilagunek hemen egindako mantenu lanak benetan goraiatzekoak dira.

Auzoaren izaera originala oso ongi mantendu da urte guzti hauetan nahiz eta erreformak egin diren han eta hemen. Etxe guztiak eta eraikin soziala oso-osorik mantendu dira. Ez da bat bera ere eraitsia izan bere osotasunean, beheko garbitokia salbuespen bakarra delarik. Hori bai, fatxada guztiak eraiki ziren bezala mantendu badira ere (hemen kolore originalak zeintzuk ziren jakin beharko genuke baina tira), jakina da barrualde batzuetan egitura erreformak egin direla. Adibidez, bada etxeren bat, bi solairutik hiru atera dizkiotena eta, ondorioz, fatxadaren hutsarteak ez datoz bat hauekin. Bestalde, etxe guztiek arotzeria berria dute ia hutsarte guztietan, gaur egungo leiho eta ate modernoak hermetikotasunaz eta isolamenduaz gozatuz.

Honez gain, gehienek, bai komuna eta bai sukaldea guztiz berritua dute. Kontuan izan behar da eraiki zirenean, etxe hauek komun bat besterik ez zutela. Horregatik zegoen auzoaren erdi-erdian kokaturiko eraikin soziala eta bere bainugela eta dutxak. Orain, ordea, ez dago komuna, konketa eta dutxa ez duen etxerik. Sukaldeak, berriz, ia guztiak oso-osorik berrituak eta oraingo sukalde eta etxetresna elektrikoekin hornituak izan dira.

Orokorrean, laurogeita bost urteren buruan etxeen egoera ezin hobea dela esan dezakegu.



San Martin auzoaren gaur egungo bi ikuspegi
Elaborazio propioa

5. ONDORIOAK

San Martin auzoa herritarrek eta, batez ere auzokideek, gustuko duten txokoa da. Bertan bizi direnek halako identitate eta harrotasun bat ematen diotela diote eta hau ziur aski, faktore ezberdinengatik izan daiteke. Batzuk etxeak politak eta pintoreskoak direlako dela diote, besteek, ez dela berdina familiabakarreko etxe batean bizitzea edo etxe kolektibo batean, hauetan mugimendu eta mudantza gehiago daudelako. Ados nago hau guztiarekin.

Baina faktore benetan garrantzitsuena beste bat litzatekeelakoan nago. Auzoarekiko lotura estu honen arrazoa honen atzean dagoen istorio paregabea da. Bertan bizi izan zirenak mugimendu sozial handi baten parte izan ziren. Garai hartan ere asko baloraturiko ekintza izan zen. Gainera, onuradunek beraien lanpostua utzi eta esfortzu estra bat eskaini behar izan zieten beraien aterpe izango zen etxe hartan lanean jarraitzeko. Jabetza pribatuaren sentimenduaz haratago, nork nahiko luke handik alde egin?!

Bertako errealitatea gertutik ez ezagutzeak auzo honen istorioa herrian zenbateraino ezagutzen den ez jakitera narama. Baina ideia bat egin dezaket, honi buruz liburuetan topatu dudak informazio urriagatik, ez dagoela oso zabalduta. Beraz, hona hemen gure gertuko historia garaikidea ezagutzeko ekarpen txiki bat.

Ondarea gero eta gehiago balioztatzen dugun garai hauetan, ezin dugu gure oraintsuko ondare eraikia ahaztu. Mendeen adina dutenen besteko zaintzaren beharrik ez badute ere, beraien ezagutzak lagunduko digu hauek errespetatzen eta denboran ahalik eta gehien iraun arazten.

Gure kulturaren parte dira eta.

6. KRONOLOGIA

1924	Benefizentziako etxeak egiten dira
1924/10/10	1924ko urriaren 10eko Dekretu-Legea: Etxe Merkeen hirugarrena.

1926/05	Lurren aprobazioaren eskaera.
1926/05/21	Otañoren eskutitza udalari. %10eko laguntza dela eta, %20 eskatzeko bultzatuz.
1926/05/23	Udalak Tomas Bilbaoren proiektua onesten du.
1926/05/24	Udalak Otaño Madrilera bidali %20aren bila.
1926/07/12	1. Plano urbanistikoa. Gumersindo Birebén bide ingeniaria.
1926/07/15	Udalak San Martinen eraikitzea erabaki (parkerako lurretan)
1926/08/24	Etxebizitzaren zozketa
1926/11/22	Comisión Sanitaria ados baina beste parke bat egin behar dela esan
1926/12/20	Plano inklinatuaren (funikularra) aurreproiektua, Antonio Bizcarrondo.
1927/04	Eraikin Sozialaren 1. proiektua (Tomas Bilbao)
1927/04/20	Etxeen ondoko parkearen proiektua. Gumersindo Birebén bide ingeniaria
1927/04/30	Presupuesto Paso Superior + escaleras.
1927/05/26	Udaletxeko Areto Nagusian, eraikuntza gauzatzerako lehiaketa eta enkanteak
1927/09/19	Lehengo 40 etxeen irekiera ekitaldia, Alfonso XIII erregea presente zela.
1927-28	Pasoa + eskailerak eraiki
1928 bukaeran	Eraiketa lanak amaituta, Udaletxeak estatuaren laguntzak eskatu
1929/04/14	2. Inaugurazioa, erregerik gabe.
1929/05/25	Estatuaren laguntzak iritsi ziren: 797.499,63 pezeta
1930/07/21	Diputazioak Etxe Merkeentzako laguntzen araudia onartzen du.

- 1931 Etxe sozialaren handitzea.
- 1960/05/01 Omenaldia etxeen adjudikazioagatik

7. ESKERRAK

Lehenik eta behin nire eskerrik beroenak Azkoitiko Artxibo Munizipaleko arduradunari, Imanoli. Naiz eta beti lanpetuta ibili, nire esperientzia faltarengatik sortutako zalantzak argitzen lagundu didalako dokumentu zaharren interpretazioan. Baita niri auzora hurbiltzeko bidea errazteagatik ere eta, orokorrean, bere prestutasuna erakusteagatik.

San Martin auzoko Tomas Larraspuru kaleko 4, 5 eta 6 eta Balendin Olano kaleko 11 zenbakietako jabeei beraien etxeetako ateak eskuzabaltasun osoz irekitzearren, zorretan nago.

Beraien irudiak erabiltzen utzi didatenei ere, Anaka 1881 Kultur Elkarteari eta Altza Tokiko Bildumako arduradunei, besteak beste, mila esker.

Ezin eskertu gabe utzi Beatriz Herreras, bere artikulu batetik irten baita lan honen ideia eta suertatutako zalantzak argitzen saiatu baita.

Dokumentazioa topatzen lagundu didaten guztiei ere, eskerrak.

Nire anaia Ioni, hizkuntzen kontutan laguntzearren, ezinbesteko laguntza izan baita, eskerrik asko.

Eta ahazten ditudanei, nire hutsunea sentitu dutenei, nire umore txarra jasan dutenei... zer esanik ez.

8. ITURRIAK

ARTXIBOAK

Azkoitiko Artxibo Munizipala, Funts Historikoa.

Espedienteak: 2431-01: Construcción Casas Baratas...

2432-01: Construcción Casas Baratas...

1026-01: P. Técnicos Infraestructuras Edificios (Casas Baratas)

1016-06: Ampliación pabellón de baños. 1931

BIBLIOGRAFIA

ALBERDI Uria, Raimundo. *Errotik arro. Azkoitiko abertzaletasuna, bizipenak eta historia. 1907-2007*. Azkoitia: Azkoitiko Batzokia. 2011.

ARAMENDIA, Isabel eta PARRA, Leire. *Arrasate, un pueblo forjado por los trabajadores*. Arrasate: Arrasateko Udala, 2004.

CASTELLS Arteche, Luis. *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Madril: Siglo XXI. 1993

DEL CUETO Ruiz-Funes, Juan Ignacio. *Presencia del exilio vasco en la arquitectura mexicana*. Revista Internacional de Estudios Vascos, 53, 1. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 2008. 11-44 or.

DOMINGO Hernández, M^a del Mar. Tesia: *La vivienda Obrera en Bilbao y el Bajo Nervión: Las Casas Baratas, una nueva forma de alojamiento (1911-1936)*. Girona: Universitat de Girona. 2005

FUSI, Juan Pablo. *Política Obrera en el País Vasco, 1880-1923*. Madril: Ediciones Turner, 1975.

GARMENDIA, Gurutz. *Jasokunde Kooperatiba oroitzuz*. Azkoitia: Azkoitiko Udala, 1999.

GÓMEZ Gómez, Ana Julia eta RUIZ San Miguel, Javier. *Bilboko Etxebizitza Merkeak. (1911-1936)*. Bilbo: Polidori, EHAEO. 2004

GUIMÓN, Pedro. *Casas Obreras: aisladas o agrupadas; en el campo o en la ciudad. Hospederías, hoteles, casinos obreros. Colonias y barrios obreros*. Eusko Ikaskuntza. Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresua. Donostia: Elkartearen argitalpena. 372-379 or.

HERRERAS Moratinos, Beatriz. *Las casas baratas en Gipuzkoa*. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía, 21. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993. 263-274 orr.

HERRERAS Moratinos, Beatriz. *Altza: historia y patrimonio*. Altza (Donostia): AHM Altzako Historia Mintegia eta Casares Kultur Etxea Donostiako Kultur Udalpatronatua, 2001.

MUÑOZ Fernandez, Francisco Javier. *Arquitectura Racionalista de Bilbao (1927-1950). Tradición y modernidad en la época de la máquina*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2011

ODRIOZOLA, Imanol Elias. *Azkoitia historian zehar*. Azkoitia: Azkoitiko Udala, 1999.

ORDOÑEZ Vicente, María. Una aproximación al estudio de la arquitectura regionalista en Guipúzcoa. Ondare, 18 zbk. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999. 183-241. orr.

POSSE, José de. *La casa propia. El ejemplo de un pueblo*. Bilbo: La Editorial Vizcaína. 1931.

SAN GINÉS, Ignacio Miguel. *Tomás Bilbao. Lanak*. Bilbo: COAVN, 1995.

SICA, Paolo. *Historia del urbanismo: el siglo XX*. Madril: Instituto de Estudios de Administración Local. 1981.

URBINA, Fidel. *El Problema de la Habitación en el País Vasco*. Eusko Ikaskuntza. Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresua. Donostia: Elkartearen argitalpena. 342-360 orr.

YRIZAR Barnoya, Pedro de. *Memoria de Azkoitia y de sus familias*. Azkoitia: Ayuntamiento de Azkoitia, 2010.

ARGITALPEN PERIODIKOAK

Historikoak La Constancia egunkaria

Argia aldizkaria

La Vanguardia

Garaikideak El Diario Vasco egunkaria

Reforma egunkaria (Mexiko)

Bilbao Aldizkaria (Bilboko Udalaren argitalpena)

SAREKO ITURRIAK

Altzako Tokiko Bilduma: <http://altza.info> eta <http://altza.net>

Anaka 1881 Kultur Elkartea: <http://anaka1881.com/>

Eustat: <http://eu.eustat.es/>

Iñaki Anasagastiren bloga: <http://ianasagasti.blogs.com/>

Loiolan... bloga: <http://loiola.weebly.com/12---la-ciudad-jardiacuten.html>

Wikipedia: <http://eu.wikipedia.org/> (euskaraz) eta <http://es.wikipedia.org> (gazteleraz)

1. ERANSKINA

GIPUZKOAKO ETXE MERKEAK*

NON	NOIZ	SUSTATZAILEA	AUZOAREN IZENA	ARKITEKTOA	ETXE KOPURUA	TIPOLOGIA	ERREGIMENA
Tolosa ¹	1919						
Antigua (Donostia)	1919	Sdad. Constructora de Viviendas Económicas N ^a Señora de Aránzazu	Nuestra Señora de Aránzazu		42	Lorategi-hiria. Atxikiak. Lau errenkadetan.	Errentan
Altza (Donostia)	1921	Asociació Gral. para la construcción de casas baratas	Colonia de M ^a Cristina	José Gurruchaga	13 (12 orainaldian)	Familiabakarrekoak. Errenkada batean baina elkarri atxiki gabeak	
Loiola (Donostia)	1922	Udaletxea		J. A.Fernández Casadevante	14	Lorategi-hiria. Isolatuak eta bakoitza ezberdina	Errentan
Errenteria ³	1922	Coop. Renteriana para la construcción de casas baratas		Fausto Gaiztarro		Lorategi-hiria. Atxikiak. Lau errenkadetan.	
Azkoitia	1924	Udaletxea	-	Marcelo Guibert	Bi etxebizitza eraikin	Familia anitzekoak. 24 etxebizitza bi eraikinetan.	Jabetzan
Arrasate	1924	Unión Cerrajera	Etxe Txikiak		18	Lorategi-hiria. Isolatuak	Errentan
San Martín (Azkoitia)	1927	Udaletxea	San Martin auzoa.	Tomás Bilbao	99	Lorategi-hiria. Taldeka atxikiak.	Jabetzan
Anaka (Irun)	20. hamar-kada	Coop. Irunesa para la construcción de Casas Baratas	Anaka		130	Lorategi-hiria. Isolatuak	Jabetzan
Lapitze (Irun)	1932	Cooperativa Ciudad-Jardín	Lapitze	Teodoro Anasagasti	118	Lorategi-hiria. Isolatuak	

* Oinarria: Herreras Moratinos, Beatriz. *Las casas baratas de Gipuzkoa*, Cuadernos de Sección. Historia-Geografía 21-n. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993. 263-274 o

¹.- *Asociación Obrera* -k Etxe Merkeak eraikitzeke eskatzea erabaki zuen. Ez zen gauzatu

³.- Ez ziren eraikitzen iritsi

2. ERANSKINA

TOMAS BILBAOREN LANAK. KRONOLOGIA

	1919	1920	1921	1922	1923	1924	1925	1926	1927	1928	1929	1930	1931	1932	1933	1934	1935	1936	1937
1. Ercilla, 20																			
2. Elkano, 8																			
3. Uriortu, 4																			
4. Errekalde, 32																			
5. Epaltza, 2																			
6. Ercilla, 16																			
7. Diputazio k., 12																			
8. Areatza, 3 (Unión y el Fénix)																			
9. Erripa, 6																			
10. Henao, 6																			
11. Urkixo Zumarkalea, 58-64																			
12. Fernández del Campo, 25																			
13. Rekalde Zumarkalea, 7																			
14. Poza Lizentziatuaren k., 5-7																			
15. Zurbaran Kooperatiba (Bilbo)																			
16. Arabella Kooperatiba (Bilbo)																			
17. Buena Vista Kooperatiba (Bilbo)																			
18. La Mutual (Arrigorriaga)*																			
19. Obreros Panaderos (Bilbo)*																			
20. San Martineko Etxe Merkeak (Azkoitia)																			
21. Jauregibeitia Etxea																			
22. Ramón de la Sota Etxea. Ondategi (Getxo)																			
23. Belaustegigoitia Etxea (Laudio)**																			
24. Líbano Etxea (Asua)																			
25. Centro Farmacéutico. Gral. Concha, 20																			
26. Azkoitiko Merkatua																			
27. Getxoko Etxe Soziala. A. Mesedeetakoa k., 6																			
28. AHV-ren "stand"-a. Bartzelona, 1929																			

Iturri nagusia: San Ginés, Ignacio Miguel. *Tomás Bilbao. Lanak*. Bilbo: COAVN, 1995.

*Iturria: Domingo Hernandez, M^a del Mar. *Vivienda obrera en Bilbao y el Bajo Nervión: las casas baratas, una nueva forma de alojamiento (1911-1936)*. Girona: Universitat de Girona, 2005.

**Iturria: Del Cueto Ruiz-Funes, Juan Ignacio. *Presencia del exilio vasco en la arquitectura mexicana*, Revista Internacional de Estudios Vascos-en. 53, 1, 2008. 11-44 orr.

3. ERANSKINA

4 ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAK

**ERAIKINEN
IKUSKARITZA TEKNIKORAKO
FITXAK**

Tomas Larraspuru, 4
CALLE TOMAS LARRASPURU Nº 4
AZKOITIA, AZKOITIA
GIPUZKOA

EIT FITXAK

0.a FITXA.- HASIERAKO DATUAK ETA SAILKAPEN DATUAK

0.b FITXA.- AURREKO EITen GAINEKO DATU HISTORIKOAK

0.c FITXA.- DATU GRAFIKOAK

1.a FITXA.- ESTALKIA

1.b FITXA.- ZIMENDUA ETA EGITURA

1.c FITXA.- FATXADAK

1.d FITXA.- UR HORNIKETA

1.e FITXA.- HUSTUKETA

2. FITXA.- EITko AZKEN IRIZPENA

3. FITXA.- DATU ESTATISTIKOAK

ANEJO 1.- Erabiltzaileak bete beharreko galdeketa

0.a FITXA

HASIERAKO DATUAK

DESKRIBAPENA	Tomas Larraspuru, 4				
KOKAPENA	Herria	AZKOITIA	Udalerria	AZKOITIA	
	Lurralde	GIPUZKOA	Kalea	Calle Tomas Larraspuru	Zk. 4
ADMINISTRAZIOA	Etxebizitza librea				
JABETZA	Bakarra				

OSAERA	Solairu kopurua	Erabilerak eta kopuruak
Plantas altas		Vivienda (1)
Planta baja		Vivienda (1)

SAILKAPEN DATUAK

ERAIKINA EGINDAKO DATA	XX. mendearen 1. herenekoa	KULTUR SAILKAPENA	Sailkapenik gabea
ESPOSIZIO MAILA	Kokapena	Hiria	Topografia
	Kokapenaren araberako erasoa		
ERAIKUNTZAREN TIPOLOGIA	Familia bakarrekoa Lerroan edo atxikita		
ERAIKITAKO UNITATEAREN KONFIGURAZIOA, ALDAMENEN ERAIKINEN ARABERA			
Ez du elementu komunik -			
Egitura elementu komun batzuk ditu (zimendua, horma bitartekoak, atariak, e.a.) medianeras			

IKUSKARITZAKO DATUAK

Ikuskariaren izena			Titulazioa
Harremanetarako zenbakia	telefono	Kide zenbakia	Elkargo profesionala
Ikuskatzeko arrazoia			
Nork agindua			
Ikuskatutako eguna			

0.b FITXA


AURREKO EITen GAINEKO DATU HISTORIKOAK

AURREKO IKUSKARITZAK

EZ

DATU GRAFIKOAK

Kokapenaren planoak



Fatxada nagusia



1 argazkia



Atzeko fatxada

ERAIKUNTZA DATUAK

MOTA Makurra		
Estaltzeko materiala	Teilak	
Euskarria	Egurra	
Ura biltzea eta bideratzea	Esekitako erretenak	Plastikoa
	Bizkar limak	Zinka
Gune eta elementu bereziak	Tximiniak	

IRISGARRITASUN MAILA	
FISIKOA	BISUALA
Baliabide arruntekin iristeko zaila	Partziala

ITXURAZKO PATOLOGIAK/JABETZA
Ez du atzeman

AURREKO OBRA EDOTA KALTEEI BURUZKO INFORMAZIOA
Termiten erasoa. 2010etik Aurrera Cidemco/Tecnalía enpresak tratatu eta jarraipena egiten dirauena

TXOSTENA

MULTZOA / ELEMENTUA	KONTSERBAZIO EGOERA	SINTOMA / KALTEA		KALTEAREN GARRANTZIA
		DESKRIBAPENA	DATU GRAFIKOAK	
MAKURRA				
	Estaltzeko materiala	Itxuraz ona		
	Euskarria	Ezin da zehaztu		
	Ura biltzea eta bideratzea	Itxuraz ona		Itxuraz ez dauka arriskurik
	Gune eta elementu bereziak	Itxuraz ona		

IRIZPENA

AURRETIKO DIAGNOSTIKOA (ZERGATI POSIBLEAK)			
MULTZOA / ELEMENTUA	SINTOMA	ZERGATI POSIBLEAK	ARGIBIDEAK

ESKU-HARTZEAREN EBALUAZIOA		
MULTZOA / ELEMENTUA	EBALUAZIOA	OHARRAK
MAKURRA		
Estaltzeko materiala	Mantentze-lana	
Euskarria	Mantentze-lana	
Gune eta elementu bereziak	Mantentze-lana	

1.b FITXA

Eraikinaren atala: ZIMENDUA ETA EGITURA

ERAIKUNTZA DATUAK

MOTA Zimendua		
Zimendua	Zapata isolatuak	***Mampostería
MOTA Zolata		
Zolata	Zolata	Hormigoia
MOTA Egitura bertikala		
Egitura bertikala	Pilareak	***Madera
	Atariak	***Madera
	Karga hormak	Fabrika
MOTA Egitura horizontala		
Egitura horizontala	Habeak	Egurra
	Forjak	Egurra
	Estalkiak	Egurra
MOTA Beste egitura elementu batzuk		
Beste egitura elementu batzuk	Arkuak	***Mampuesto
MOTA Gune eta elementu bereziak		
Gune eta elementu bereziak	Hegalak	

IRISGARRITASUN MAILA	
FISIKOA	BISUALA
Baliabide arruntekin iristeko zaila	Ezkutua (emandako informazioa, eskuragarria)

ITXURAZKO PATOLOGIAK/JABETZA
Ez du atzeman

AURREKO OBRA EDOTA KALTEEI BURUZKO INFORMAZIOA
Termiten erasoa. 2010etik Aurrera Cidemco/Tecnalia enpresak tratatu eta jarraipena egiten dirauena

TXOSTENA

MULTZOA / ELEMENTUA	KONTSERBAZIO EGOERA	SINTOMA / KALTEA		KALTEAREN GARRANTZIA
		DESKRIBAPENA	DATU GRAFIKOAK	
ZIMENDUA				
	Zimendua	Ezin da zehaztu		Itxuraz ez dauka arriskurik
ZOLATA				
	Zolata	Ezin da zehaztu		Itxuraz ez dauka arriskurik
EGITURA BERTIKALA				
	Egitura bertikala	Ezin da zehaztu		
EGITURA HORIZONTALA				
	Egitura horizontala	Itxuraz ona		Itxuraz ez dauka arriskurik
GUNE ETA ELEMENTU BEREZIAK				
	Gune eta elementu bereziak			

IRIZPENA

AURRETIKO DIAGNOSTIKOA (ZERGATI POSIBLEAK)			
MULTZOA / ELEMENTUA	SINTOMA	ZERGATI POSIBLEAK	ARGIBIDEAK

ESKU-HARTZEAREN EBALUAZIOA

MULTZOA / ELEMENTUA		EBALUAZIOA	OHARRAK
EGITURA HORIZONTALA			
	Egitura horizontala	Mantentze-lana	

ERAIKUNTZA DATUAK

MOTA Estrukuralak		
Estalki mota / Akaberek	Jarraituak	Emokadurak
		Pinturak
Euskarria	Adreiluzko fabrikak	
Hutsuneak	Ateburuak	***hierro o hormigón
	Barlasaiak	Zeramika
Arotzeria	Leihoak	Egurra
		PVC
	Ateak	Egurra
		PVC
	Pertsiana bilgarriak	PVC
	Leiho ateak	Egurra
Hegalak	Teilatu hegalak	Egurra
	Balkoiak	Egurra
Elementu bereziak	Barandak	Egurra
	Fatxadako instalazioak	Elektrizitate sareak
		Telefonia

IRISGARRITASUN MAILA

FISIKOA	BISUALA
Zailtasunik gabe iristeko modukoa	Zailtasunik gabe, begiz egindako ikuskaritzan

ITXURAZKO PATOLOGIAK/JABETZA

No aprecia

AURREKO OBRA EDOTA KALTEEI BURUZKO INFORMAZIOA

Termiten erasoa. 2010etik Aurrera Cidemco/Tecnia enpresak tratatu eta jarraipena egiten dirauena
 Arotzeria osoaren aldaketa hutsarteetan
 Bi txabolen eraikuntza atzeko fatxadari itsatsiak, bat eraitsia

TXOSTENA

MULTZOA / ELEMENTUA		KONTSERBAZIO EGOERA	SINTOMA / KALTEA		KALTEAREN GARRANTZIA
			DESKRIBAPENA	DATU GRAFIKOAK	
ESTRUKTURALAK					
	Estalki mota / Akaberek	Huts zehatzak	-Erorketak / Altxatuak -Hezetasuna	-humedad	Itxuraz ez dauka arriskurik
	Euskarria	Itxuraz ona			Itxuraz ez dauka arriskurik
	Hutsuneak	Itxuraz ona			Itxuraz ez dauka arriskurik
	Arotzeria	Itxuraz ona			Itxuraz ez dauka arriskurik
	Hegalak	Huts zehatzak	-Erorketak / Altxatuak -Pitzadurak / Arrailak	-Desunión de tornapunta. No recibe cargas. Fisura en poste	Itxuraz ez dauka arriskurik
	Elementu bereziak	Itxuraz ona			Itxuraz ez dauka arriskurik
TRADIZIONALAK					
	Estalki mota / Akaberek	Itxuraz ona			Itxuraz ez dauka arriskurik

IRIZPENA

AURRETIKO DIAGNOSTIKOA (ZERGATI POSIBLEAK)

MULTZOA / ELEMENTUA	SINTOMA	ZERGATI POSIBLEAK	ARGIBIDEAK
ESTRUKTURALAK			
Estalki mota / Akaberek	Erorketak / Altxatuak	Itsasgarritasuna galdu du	
	Hezetasuna	Kanpoko agenteak (adierazi zein)	agua de lluvia filtrada por inadecuada

				cubierta
	Hegalak	Erorketak / Altxatuak	Ezin da zehaztu	
		Pitzadurak / Arrailak	Mugimendu estrukturalak	

ESKU-HARTZEAREN EBALUAZIOA			
MULTZOA / ELEMENTUA		EBALUAZIOA	OHARRAK
ESTRUKTURALAK			
	Estalki mota / Akaberek	Mantentze-lana	Ninguna
	Euskarria	Mantentze-lana	
	Hutsuneak	Mantentze-lana	
	Arotzeria	Mantentze-lana	
	Hegalak	Mantentze-lana	
TRADIZIONALAK			
	Estalki mota / Akaberek	Mantentze-lana	

ERAIKUNTZA DATUAK

MOTA Horniketa		
Horniketa	Udal saretik	
MOTA Kontaketa elementuak		
Kontaketa elementuak	Etxebizitza edo lokal bakoitzeko bana	
MOTA Instalazioa		
Instalazioa	Landatuak	Altzairu galvanizatua
		***Plomo

IRISGARritasun maila	
FISIkoa	BISUALA
Iristezina	Partziala

ITXURAZKO PATOLOGIak/JABETZA
No aprecia

AURREKO OBRA EDOTA KALTEEI BURUZKO INFORMazioA
Ur bidezko berogailu zentralaren instalazioa

TXOSTENA

MULTZOA / ELEMENTUA	KONTSERBAZIO EGOERA	SINTOMA / KALTEA		KALTEAREN GARRANTZIA
		DESKRIBAPENA	DATU GRAFIKOAK	
HORNIKETA				
	Horniketa	Itxuraz ona		Itxuraz ez dauka arriskurik
KONTAKETA ELEMENTUAK				
	Kontaketa elementuak	Itxuraz ona		Itxuraz ez dauka arriskurik
INSTALAZIOA				
	Instalazioa	Itxuraz ona		Itxuraz ez dauka arriskurik

IRIZPENA

AURRETIKO DIAGNOSTIKOA (ZERGATI POSIBLEAK)			
MULTZOA / ELEMENTUA	SINTOMA	ZERGATI POSIBLEAK	ARGIBIDEAK

ESKU-HARTZEAREN EBALUazioA		
MULTZOA / ELEMENTUA	EBALUazioA	OHARRAK
HORNIKETA		
Horniketa	Mantentze-lana	
KONTAKETA ELEMENTUAK		
Kontaketa elementuak	Mantentze-lana	
INSTALAZIOA		
Instalazioa	Mantentze-lana	

ERAIKUNTZA DATUAK

MOTA Hustuketa sarea		
Hustuketa sarea	Bateratua	
MOTA Isuria		
Isuria	Udal sarera bideratua	
MOTA Ur beltzen hoditeria		
Zorrotanak (bertikala)	Landatuak	Gres
MOTA Euri uren hoditeria		
Zorrotanak (bertikala)	Bistak	PVC

IRISGARRITASUN MAILA	
FISIkoa	BISUALA
Iristezina	Partziala

ITXURAZKO PATOLOGIAK/JABETZA
Ez du atzeman

AURREKO OBRA EDOTA KALTEEI BURUZKO INFORMAZIOA
Euri uraren erreten eta zorrotenek ez dirudite zaharrak. Baliteke denboran zehar berriak izana.

TXOSTENA

MULTZOA / ELEMENTUA	KONTSERBAZIO EGOERA	SINTOMA / KALTEA		KALTEAREN GARRANTZIA
		DESKRIBAPENA	DATU GRAFIKOAK	
HUSTUKETA SAREA				
	Hustuketa sarea	Ezin da zehaztu		Itxuraz ez dauka arriskurik
ISURIA				
	Isuria	Ezin da zehaztu		Itxuraz ez dauka arriskurik
